

# **Antigitanismoaren estereotipoak aztertzen: horiek eraisteko eta diskriminazioari aurre egiteko proposamenak**



ZUZENBIDE  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE DERECHO

**Añes Zarate Arrieta**  
**Kriminologiako Gradu Amaierako Lana**  
**2023/2024**

**Zuzendaria: Ana Leturia Navarrea**  
**2024ko ekainean**

## Laburpena


Dibertsitatea ezaugarri nagusitzat duen gaur egungo gizartearen testuinguruan, ijitoak bezalako hainbat minoria etnikok integratzeko oztopoak aurki ditzakete. Ijitoak, nahiz eta aspaldi Espainian zein euskal lurretan asentatu ziren, oraindik diskriminazio egoera nabarian bizi dira, eta ez dago ikerketa nahikorik jazarpen horien inguruan. Lan honek zehazki ijitoek estereotipoen erruz, integraziorantz aurki ditzaketen zailtasunetan jartzen du arreta. Planteatzen den hipotesia da estereotipoak inferitutako eta oinarri gabekoak ideiak direla; eta, era berean, ijitoenganako diskriminazioetan estereotipoek duten eragina demostratu nahi da. Horiek, kasu isolatuak baino, egiturazko arazo baten isla direlako hipotesitik abiatzen da, esanez sozialki onartutako ideiak direla eta, askotan, estereotipoak erabiltzen dituztenak ez direla horretaz jabetzen. Estereotipo horiek, gizarteak egiazat hartzen dituenak, besteengandik hartutako ideiak dira, oinarri fidagarririk eta esperientzia pertsonalik gabekoak, kontzienteki gaitzetsi beharko lirateke. Hori egitean, agerian geratzen da ez direla egia objektiboak, baizik eta zalantzan jar eta alda daitezkeen eraikuntza sozial eta kulturalak. Beraz, estereotipoak aztertuko dira diskriminazioari aurre egin ahal izateko. Diskriminaziozko egoera hauek, lan munduan, hezkuntzan zein etxebizitzaren problematikan modu azpimarragarrian islatzen direla argudiatzen da. Lanean zehar, zati teoriko eta enpirikoa dituen metodologia aplikatu da, eta ikerketa honen abiapuntua elkarrizketa bidez jasoriko testigantza batzuetan oinarritzen da.

**Hitz gakoak: antigitanismoa, diskriminazioa, estereotipoa, aurreiritzia, interkulturalitatea, multikulturalitatea, hezkuntza interkulturala, minoria etnikoa.**

## AURKIBIDEA

Laburpena	2
Laburpen exekutiboa	4
<b>1. Ikerketa gaiaren azalpena</b>	<b>14</b>
1.1. Arazoa	14
1.2. Hipotesiak eta helburuak	17
1.3. Kriminologian duen garrantzia ijitoenganako estereotipoak desmuntatzeak	21
1.4. Metodologia eta edukiaren egitura	29
<b>2. Atal teorikoa</b>	<b>33</b>
2.1. Kontzeptuen azterketa	33
2.2. Ijito herriarenganako hurbilketa historikoa	47
2.3. Diskriminazioa, “antigitanismoa”	51
2.3.1. “Antigitanismoaren” datuak edo Euskadiko egoera	51
2.4. Estereotipoak eta aurreiritziak: Zer dira? Nola barneratzen ditugu?	54
2.4.1. Estereotipoa	58
2.4.2. Nola eragiten diote ijito herriari estereotipoek eta aurreiritziek	61
2.4.3. Bestelako eraginak: aurreiritziei buruzko barometroen inkesten berezko arrazismoa	63
2.5. Estereotipo nagusiak	68
2.5.1. Ez dute lan egin nahi	68
2.5.2. Txaboletan bizi dira	72
2.5.3. Hezkuntzari ez diote garrantzirik ematen	77
2.6. Estereotipoen eragina zenbait eremutan	82
2.6.1. Lan eremuan	82
2.6.2. Etxebizitza	83
2.6.3. Hezkuntza	91
2.7. Lana, etxebizitza eta hezkuntzaren eremuko diskriminazioei aurre egitea	93
<b>3. Atal enpirikoa</b>	<b>99</b>
3.1. Violetaren esperientzia eta estereotipoak: hezkuntza, etxebizitza eta lana	99
3.1.1. Estereotipoen eragina lan eremuan	103
3.1.2. Estereotipoen eragina etxebizitzan	105
3.1.3. Estereotipoen eragina hezkuntzan	107
3.1.4. Diskriminazioari aurre egiteko proposamen ideiak	111
3.2. Aurreiritziak lantzen dituzten inkestetako barometroen hausnarketa ijito begiradatik	112
3.3. Arartekoko teknikari bati elkarrizketa	113
3.3.1. Arartekoaren zeregina ijitoen alorrean	113
3.3.2. Inkesten barometroen galderak	116
3.3.3. Diskriminazioari aurre egiteko proposamenak	117
<b>4. Ondorioak</b>	<b>120</b>
<b>5. Bibliografia</b>	<b>122</b>
<b>6. Eranskinak</b>	<b>140</b>
6.1. Elkarrizketak erabiltzeko baimenak	140
6.2. Violeta Perezen elkarrizketaren transkripzioa	142
6.3. Arartekoaren elkarrizketaren transkripzioa	152
6.4. Elkarrizketetarako gidoiak	165

## Laburpen exekutiboa



Jarraian, ***Antigitanismoaren estereotipoak aztertzen: horiek eraisteko eta diskriminazioari aurre egiteko proposamenak*** lanaren laburpen exekutiboa aurkezten da. Bertan, lehenik eta behin, laburpen txiki eta orokorra emango da lanaren ikuspegi zabala izateko eta, ondoren, zehatzago aurkeztuko dira lanaren atalak.

Dibertsitatea ezaugarri nagusitzat duen gaur egungo gizartearen testuinguruan, ijitoak bezalako hainbat minoria etnikok integratzeko oztopoak aurki ditzakete. Ijitoak, nahiz eta aspaldi Espainian zein euskal lurretan asentatu ziren, oraindik diskriminazio egoera nabarian bizi dira, eta ez dago ikerketa nahikorik jazarpen horien inguruan. Lan honek zehazki ijitoek estereotipoen erruz, integratzaileentzat aurki ditzaketen zailtasunetan jartzen du arreta. Planteatzen den hipotesi nagusia da estereotipoak inferitutako eta oinarri gabeko ideiak direla; eta ijitoenganako diskriminazioetan estereotipoek duten eragina azpimarratu nahi da. Horiek, kasu isolatuak baino, egiturazko arazo baten isla direlako hipotesitik abiatzen da, esanez sozialki onartutako ideiak direla eta, askotan, estereotipoak erabiltzen dituztenak ez direla horretaz jabetzen. Estereotipo horiek, gizarteak egiazat hartzen dituenak, besteengandik hartutako ideiak dira, oinarri fidagarriak eta esperientzia pertsonalik gabekoak. Estereotipoak kontzienteki gaitzetsi beharko liriateke; hori egitean, agerian geratzen da ez direla egia objektiboak, baizik eta zalantzan jar eta alda daitezkeen eraikuntza sozial eta kulturalak. Beraz, estereotipoak aztertuko dira diskriminazioari aurre egin ahal izateko. Diskriminaziozko egoera horiek, lan munduan, hezkuntzan zein etxebizitzaren problematikan modu azpimarragarrian islatzen direla argudiatzen da. Lanean zehar, zati teoriko eta enpirikoa dituen metodologia aplikatu da, eta ikerketa honen abiapuntua elkarrizketa bidez jasoriko testigantza batzuetatik abiatzen da.

Jarraian lanaren azalpen garatuago bat emango da. Lehenik eta behin, aztergaiaren azalpen egingo da:

Gaur egun, askotariko gizarteetan bizi gara, eta etnien arteko bizikidetzak gero eta ohikoagoak dira. Lan hau ijito-komunitatean oinarritzen da, historikoki Espainian eta Euskal Herrian baztertuta eta zapaldua izan dena. Izan ere, lanean zehar aipatzen diren hainbat daturen artean, iturri eta azalpenekin, bat Europar Batasuneko Batzordeak egindako 2021eko

txostena aipatzen da, antigitanismoa hirugarren gorroto-arrazoi hedatuena dela adierazten duena; beraz, esan daiteke arazo larria dela antigitanismo eta horregatik lan honetan horren inguruko ikerketa egitea planteatu da.

Espainiak munduko ijitoen zati handi bat hartzen du, 650,000 pertsona inguru, XV. mendetik ijito ez direnekin batera bizi direnak. Komunitate hori gutxiengo etnikotzat hartzen da.

Lan honen helburu nagusia da Euskadiko ijitoen egungo egoera ikertzea; ijitoak nola diren ikusiak, tratatuak eta gizartean erabat onartuak ote diren aztertuz. Aurrez aurre dituzten estereotipoetan sakonduko da, eta antigitanismoa, diskriminazio-modua, aztertu egingo da, integrazioari eta bizikidetzari bide eman ahal izateko. Izan ere, estereotipoak diskriminazioan eragina duten faktorea dira, baina ezin da ahaztu beste hainbat faktore ere badirela; hala nola, pobrezia, gizarte bazterkeria... Baina lan hau, estereotipoen faktorean zentratuko da.

Ijitoek jasaten duten diskriminazioaren eremuko estereotipoetatik, hiru ikertuko dira hemen: lanarekin, etxebizitzarekin eta hezkuntzarekin lotutako estereotipoak hain zuzen ere; izan ere, ikerketan ikusi ahal izango da nola eremu horietan jasotzen duten diskriminazio gehien. Estereotipo horiek **identifikatu** egingo dira lehenik eta behin; ondoren, arketipo horien **arrazoia aztertu** egingo da; jarraitzeko, estereotipo horien etiketa faltsua edo **ez guztiz errealia ikertu** egingo da. Bukatzeko, estereotipo horiei aurre egiteko **proposamenak bilduko** dira lanean. Estereotipoak eta horien ondorioak hobeto ulertzeko, elkarrizketa esanguratsuak aurkeztuko dira lanean: Violeta Pérez, Zuzenbideko titulua lortu duen lehen emakume ijitoa, eta Arartekoaren bulegoko legelari bat.

Azterlanak ijitoei buruzko oinarririk gabeko estereotipoak desagitea, haien gizarteratzea sustatzea eta ijitoen behar espezifikoiei erantzungo dieten politikak garatzeko bideak irekitzea du xede.

Azterlan honen nahia da ijitoen aurka sortutako edo ondorioztatutako estereotipoak deseraikitzea, errealitatearekin lotura zuzenik ez dutela eta oinarririk gabeko ideiak baino ez direla argudiatuz. Delituak eta krimenak aztertzeaz gain, gizarte justuago bat sortzea ere

bilatzen du. Hori lortzeko, diskriminazioa ezabatzea eta ekitatean eta gizarte-osasunean oinarritutako prebentzio-arauak ezartzea proposatuko da.

Nahiz eta jakina den diskriminazioan faktore askok eragiten dutela, eta estereotipoak soilik landuz ezin izango dela guztiz amaitu diskriminazioarekin; baina bai, alor batekin, eta hori da lan honetan ikertu nahi dena.

Beraz, ijito-komunitatea hobeto aztertuta, gizartearen parte baitira, nahiz eta askotan gizartetik kanpo uzten ditugun, haien aurkako estereotipoak azaldu ahal izango dira, jatorria ikertu eta ideia oker horiei buruz hausnartu. Eta estereotipoak aztertzean, horiek apurtu edo deseraiki nahi dira. Ijitoek ere gizartearen parte izan behar dutela frogatu behar da. Ijitoak beste edozein "payo" bezalako pertsonak dira, eta eskubide eta errespetu berberak merezi dituzte. Horrela, estereotipoei aurre eginez, diskriminazio-arlo bati hel dakiokete, eta, horren ondorioz, ijitoen beharretara eta testuingurura egokitutako politikak sor daitezke.

Epe luzera, gizarteratzea izango litzateke helburua, baina gaur egun, oraindik orain, erronka handia da. Gizartean funtsezkoak diren arlo sozioekonomikoak aztertu eta doitu beharko dira; bereziki lana, etxebizitza eta hezkuntza bezalako arloak. Eremu horietako estereotipoek ondorio larriak izan ditzakete ijito-komunitatearentzat, horiek baitira gizarteratzea eta bizimodu duina ahalbidetzen duten eremu nagusiak.

Kriminologiarekin duen harremanaren harira arloaren azalpena emateaz gain harremana ere zehazten da lanean. Kriminologia gutxiengo etnikoekiko estereotipoekin nola erlazionatzen den aztertzen da, Espainiako ijito-komunitatean arreta berezia jarritz. Kriminologiak, diziplina zientifiko gisa, delituzko eta gizartearen aurkako portaera aztertzen du, bai eta kontrol sozialeko mekanismoak ere. Hala ere, historikoki frankismo garaian esaterako, talde etniko batzuekiko, ijitoekiko adibidez, estereotipoak eta diskriminazioa iraunarazteko ere erabili izan da, kriminologia positibo izenarekin.

Baina frankismo garaian, berezko kriminalak existitzen zirela adierazten bazen ere, ez da inoiz frogatu ijitoak gainerako biztanleak baino kriminalagoak direnik. Beraz, garrantzitsua da kriminologiatik ikuspegi kritikoa garatzea estereotipoak lantzean.

Estereotipo negatiboek ijitoek kriminalizat hartzen dituzten pertzepzioan eta tratamenduan eragina izan dutela nabarmentzen da, eta horrek erakundeekiko mesfidantza areagotu eta gizarte-bazterketa betikotu du. Gainera, egiturazko diskriminazioak hezkuntza, enplegua eta etxebizitza bezalako eremuetan barne, pertzepzio estigmatizatzaile horri ekarpen nabarmena egiten dio.

Estereotipoei aurre egitea funtsezkoa da politika inklusiboagoak eta bidezkoagoak sustatzeko. Ikerketa objektiboen garrantzia azpimarratzen da, pertzepzio lerratuak gezurtatzeak eta gizarte-kohesioak errespetu handiagoa lortzen laguntzen du.

Laburbilduz, kriminalitatea aztertzeaz gain, gutxiengo etnikoekiko diskriminazioa betikotzen duten estereotipoak kritikoki aztertuko dituen ikuspegi kriminologikoaren alde egiten du lanak, gizarte bidezkoagoa sustatzeko helburuarekin.

Diskriminazio horrek eragin negatiboak ditu, eta tirabirak sortzen dira elkarbizitzan, gizarteko jendarte jakin bat epaitu eta kriminalizatu egiten baita. Beraz, oso eremu garrantzitsua eta mamitsua da kriminologiarentzat. Estereotipoen alor guztietan eman daiteke kriminologiarekin lotura; azken finean, ez dugu nahi inor krimenera lerratu dadin, eta hori prebenitu egin nahi da. Horregatik, kriminologiaren ikuspegia behar-beharrezkoa da gaia aztertzeko.

Metodologia eta egiturari dagokienez, ijitoen estereotipoak eta diskriminazioa aztertzeko ikerketa teoriko eta enpiriko bat burutu da. Azterketa horrek, lehenik eta behin, ijitoenganako estereotipoen jatorria azaleratuko du, eta estereotipo jakin batzuk —lana, etxebizitza eta hezkuntzaren— azterturik, oinarri zientifikorik ez dutela egiaztatuko da; horri esker, politika zuzenagoak garatzeko bideak ere proposatuko dira.

Atal teorikoan, ijitoen estereotipoak, diskriminazioa, eta kulturartekotasuna aztertu dira, bereziki Euskadiko "antigitanismoaren" testuinguruan. Esan bezala, lanaren eremuko, hezkuntzako eta etxebizitzako estereotipoak azalduko dira, eta horien inguruko datuak emango dira. Horretaz gain, diskriminazioa neurtzeko inkesten barometro arrazisten inguruko atal bat ere jorratuko da, ijitoentzat gai sentibera edo delikatua baita.



Alor enpirikoari dagokionez, batetik, Violeta Perez Marzanori elkarrizketa egitea erabaki da, eta haren esperientziak, batez ere hezkuntza, etxebizitza, eta lan eremuan, aztertuko dira. Bestetik, Arartekoko teknikari batekin ere elkarrizketa bat landuko da estereotipoen eta haien zereginaren inguruan. Bi elkarrizketetan esku-hartzeko proposamenak ondorioztatu ahal izango dira. Violetari egindako elkarrizketan, gai delikatua berau, inkesten barometroen inguruan ere galdetuko zaio. Azkenik, elkarrizketak, webguneak eta liburuak erabiliz, ijitoen aurkako diskriminazioaren fenomenoaz aztertzeko proposamenak egingo dira; horrela, estereotipoak identifikatzeko eta diskriminazioari aurre egiteko aukerak irekiko dira.

Atal teorikoaren barnean, lehenik gaiarekin lotura zuzena duten kontzeptu garrantzitsu batzuk azaldu dira: asimilazioa, multikulturalitatea, interkulturalitatea, kultura, diskriminazioa, arrazismoa. Proposamenak egitean, **interkulturalitateak** irekiko dizkigu bide berriak, zeren sakon aztertuz gero, ijitoen kultura-nortasuna aitortu eta errespetatuko duten politika inklusiboagoak diseinatu ahal izango dira bide horretan, eta hori funtsezkoa da aurreiritziak betikotzeko bidea mozteko eta gizarte bidezkoagoa eta berdintsuagoa sustatzeko.

**Asimilazioaren** kontzeptua ere garrantzitsua da, arrazoi ezberdinagatik bada ere; asimilazioa da kultura minoritario batek kultura hegemoniko edo menderatzaile baten elementu guztiak edo asko hartzen dituenean gertatzen den prozesua, alde batera utzita elementu kultural propioak. Horren kontrako argudioak azaleratzen dira lanean, esku-hartzeko politikak diseinatzen direnean, akatsik egin ez dadin, batez ere.

**Kultura** eta **kultura-aniztasuna**, oinarriko kontzeptuak, baina lagungarria da horiek ondo definitzea gaur egungo gizarte plurala ulertzeko. Kultura da etengabe aldatzen ari den produktu sozial bat, komunitate bateko pertsonen arteko elkarrekintzak eta komunikazioak eragiten dituen (Rodrigo Alsina, 2000). Aldakorra baldin bada, estereotipoak ez lirateke aldatu behar? Estereotipoak kulturalki edo etnikoki desberdina denari egozten zaizkio antigitanismotik begiratuta; beraz, estereotipoak alda daitezkeela ondorioztatu daiteke baita ere.

Lanean beste hainbat kontzeptu ere lantzen dira, hala nola: integrazioa, diskriminazio etnikoa, arraza-diskriminazioa eta diskriminazio kulturala. Baina bereziki arrazismoa eta antigitanismoa ekarriko dira laburpen honetara.

**Arrazismoa eta antigitanismoa**, edo ijitoekiko diskriminazio espezifikoak, bezalako kontzeptuek gutxiengo horrek jasaten dituen gorroto-, arbuio- eta deshumanizazio-jarrerak aztertzea ahalbidetzen dute. Horretaz gain, balioko du erakusteko ijitoen kontrako ideiek bizirik dirautela gizartean, eta ijitoak diskriminatu egiten direla estereotipo edo zantzu batzuetan oinarrituta. Gizarte berdintsu baten, denok eskubide berberen jabe izan behar dugu bizitzako eremu guztietan; izan lan eremuan, izan hezkuntzan, etxebizitzan nahiz beste edozein eremutan.

EAEko herritarrek Euskadiko ijitoen diskriminazioari eta integrazio eskasari buruzko kontzientzia soziala duten arren, egiturazko antigitanismoak jarraitzen du, kulturarteko bizikidetzaz zailtzen duena. Lehen aldiz, euskal gizarteak ijitoekiko dituen pertzepzio eta jarrerei buruzko azterlan espezifiko bat egin zen, *Neurtu 2022. EAEko aniztasunari buruzko barometroa. Ijitoekiko pertzepzioak eta jarrerak* izenekoa.

Ijito-herriaren egoera konplexua eta alderdi askotarikoa da Euskal Herrian. Barometro horretatik abiatuta eta datuak ikertu ondoren, ijitoen diskriminazioari aurre egiteko hainbat plan eta estrategia sortu dira azken urteetan. Plan horiek ezagututa, jakin ahal izango da zein baliabide eskaintzen diren eta zein laguntza eska dezaketen.

Baina azterketa soziologikoetan, funtsezkoa da zalantzan jartzea gehiengo sozialari eskatzen zaionean diskriminatutako taldeei buruzko balio-judizioak emateko. Zeren ikuspegi horrek kultura hegemonikoan errotutako aurreiritzizko diskurtsoak indartu baititzake. Horregatik, lanaren puntu garrantzitsu bat gai horri dagokio, 2.4.3. atala hain zuzen ere. Egiaztatu ahal izan da inplizituki estereotipoak errotu egin daitezkeela galderaren formulazioaren arabera. Horretan, inkestak aztertuko dira eta Nazio Batuen *Giza eskubideetan oinarritutako datuen ikuspegiak* ematen dituen gomendioak aztertuko dira.

Batez ere estereotipoen gaia jorratzen da ikerketan; **lana, etxebizitza eta hezkuntza**ren eremuak zehatzago esanda. Izan ere, ikerketak aztertu ondoren, argudiatu

daiteke horiek direla kaltetuen dauden eremuak. “Ez dute lan egin nahi”, “txaboletan bizi dira” eta “hezkuntzari ez diote garrantzirik ematen “ dira jorratuko diren estereotipoak. Ondorengo ataletan estereotipo horiek bakoitzak bere eremuan duten eragina eta ondorioa aztertzen da.

**Lan eremuko estereotipoak**, alperrak izatearenak, zaildu egiten du haien integrazioa bizitza sozialeko hainbat esparrutan. Lana beharrezkoa da gizartean partehartu ahal izateko, zeren gabeziak diskriminazio gehiago dakar. Lanak bizitza modua definitzen du zentzu askotan, eta dirua da gizarteak baloratzen duen patrimonio garrantzitsuenetakoa; lanpostuak baldintzatuko du dena. Azterketa sakona egiten da lanen eta langabeziari buruz, eta horrek erakusten du bizitzako beste hainbat arlotan duela eragina. Ijitoen pobrezia bizirauten laguntzen du lanaren inguruko estereotipoak eta horrek hezkuntzan, etxebizitzan eta beste eremutan kalteak eragiten ditu.

**Etxebizitzaren eremuan**, ikusten da higiezin agentziek eta partikular batzuek oztopatu egiten dutela arraza-bereizkeria jasan dezaketen pertsonak etxebizitzan sartzea. Eta horretarako, engainuak eta aitzakiak erabiltzen dituzte. Atal honetan, ikerketa batzuetatik hartutako testigantzak eta datuak ekartzen dira lan honetara.

**Hezkuntzaren alorreko** estereotipoak eragin handia du umeengan eskola garaian, baina baita etorkizunera begira ere. Azterketetan oinarrituta esan daiteke ijito komunitatearen hezkuntza arrakasta baxua dela eta maila eskas horrek lan-merkatuan sartzeko oztopoak handitu egiten dituela. Eskolara joateko oztopo ugari dute ijito askok, kokaleku berezietan bizi direnentzat erronka da eskolara heltzea. Lanaren estereotipoarekin guztiz lotuta dago hezkuntzarena ere, batak bestean du eragina. Faktore askoren erruz ijitoek gazte uzten dute eskola, horien artean: baliabide ekonomikoen falta, hezkuntzan-sistemaren aniztasunaren gabezia, testu-liburuetan ijito-komunitatearen irudia negatiboa...

Estereotipoek eragin handia dute ijitoen bizitzetan. Del Olmo ikerlari antropologoaren adibidea aztertzen da lanean, estereotipoei buruzkoa, eguneroko interakzioei nola eragiten dieten azaltzen da bertan, lore-saltzaileren esperientzia azaltzen da bertan. Behin, bezero batek 50€-ko billete batekin ordaindu zuen, eta lore-saltzaileak bere benetakotasuna egiaztatzeko beharra sentitu zuen, iraganeko iruzur-esperientzien ondorioz. Esperientzia

horietako batek emakume ijito bat inplikatzan zuen. Lore-saltzaileak adierazi zuen etniak ez zuela iruzurrezko portaera zehazten, baina bere erreakzio inplizituak estereotipoa indartzen zuen. Hurrengoan, ordea, txundituta geratu zen ondo jantzitako gizon batek iruzurra egin zionean, gaizki jantzitako pertsonak bakarrik zintzoak zirelako estereotipoa desafiatur. Pasarte labur horretan, lanean ikertzen diren hainbat datu islatzen dira. Ikusi daiteke nola estereotipoak inferitutako ideiak diren eta nahiz eta esperientzia propioz jakin etniak eta estereotipoek ez dutela harremanik, hain daude errotuta ezen kasu egiten zaie estereotipoei eta aurreiritziei.

Azterketa horrek erakusten du estereotipoek eta aurreiritziek eragina dutela eguneroko pertzepzioetan eta erabakietan, eta horiek pertsonen portaera iragartzeko erabiltzea ez dela eraginkorra eta ez dela bidezkoa. Aurreiritzi horiek asmo txarrak dituzten pertsonak erabil ditzakete, eta horrek estereotipoak saihestearen garrantzia azpimarratzen du, gizarte bidezkoagoa eta ulerkorragoa sustatzeko.

Askotan, estereotipoak erabiltzen dituztenak ez dira horretaz jabetzen. Aipatu bezala, gizarte-irudikapen horiek errotuta dauden gizarteko kideek onartutako egia gisa agertu ohi dira; hirugarren batengandik hartutako ideiak dira, esperientzia pertsonalik gabekoak eta oinarri fidagarri gabekoak. Hala ere, estereotipoen gaitzespen kontzientea funtsezkoa da estereotipoak desnaturalizatzeko eta haien eraikuntza artifiziala salatzeke. Estereotipoak kontzienteki gaitzestearen inguruan ere azalpenak ematen dira lanean.

Atal enpirikoari dagokionez, aipatu bezala, bi elkarrizketa aurkezten dira. Violetaren elkarrizketan, hezkuntzaren arloko esperientziak kontatzen dira gehien bat. Izan ere Violeta EHU-n Zuzenbideko graduari graduatutako lehen emakume ijitoa izan baita. Horretaz gain ijitoen elkarrekin duten garrantziaren inguruan ere ikertzen da.

Arartekoarekin izandako elkarrizketan, aldiz, modu instituzionalagoan zentratzen da elkarrizketa. Haien zeregina eta ikuspegi juridikoagoa txertatzen da. Honetan, bi ikerketetako inkesta arrazisten inguruko hausnarketa egiten da.

Bukatzeko, ondorioztatzen da estereotipoek badutela espazioa diskriminazioari dagokionez; konstrukzio artifiziala izanik ere, oso eremu konplexua dela eta hainbat ikuspegitatik aztertu behar dela bertan esku-hartzeak proposatu ahal izateko.

## 1. Ikerketa gaiaren azalpena

### 1.1. Arazoa

Gaur egun oso gizarte askotarikoan bizi gara, eta gero eta gehiago gara gizarte berean hurbileko elkarbizitza mantentzen dugunok. Etnia nahas-mahas horretan, ijito herria izango da lan honen muina, nahiz eta gizartean beste hamaika arraza eta kolore gehiago ere baden.

Gehienetan, tendentzia edo joera nagusia izan da aztertzea eskusio egoeran dauden beste kultura batzuk; ez, ordea, ijito herria. Horregatik, ijito herriaren inguruan ikerketa egitea da lan honen pizgarria; izan ere, komunitate honek urte eta mende asko daramatza zapalkuntza pairatzen Espainian, eta baita Euskal Herrian ere, eta ez dago azterketa askorik komunitate horri buruz.

Aspalditik bizi dira euskal lurretan, eta gurean ez ezik, beste hainbat tokitan ere finkatu ziren ijitoak antzina. Nomada izan zen haien bizitzeko modua lehenago, eta, oraindik ere, horrela izaten jarraitzen du kasu batzuetan.

Espainian dago munduko ijito-biztanleriaren zati handi bat (650.000), eta ijito ez direnekin batera bizi dira XV. mendetik. Komunitate hori gutxiengo etnikotzat har daiteke; izan ere, pertsona-talde horrek balio kultural, idiomatiko eta arrazazko ezaugarri bereizleak dituelako ijito ez direnen gehiengoaren aldean. Benetan zaila da kolektibo hori definitzea, baina esan daiteke hiru ezaugarri nagusik bereizten dutela gizataldea. Alde batetik, badirudi jatorri komuna dutela, eta genotipoaren zenbait ezaugarritan oinarritzen dela; hala nola, larruazalean eta ile beltzaranean. Bestalde, ikus dezakegu *romaní* izeneko hizkuntza dutela eta horren hainbat dialekto; besteak beste, *kaloa*, Espainian hedatuen dagoena. Gainera, ijitoek beste etnia batzuetatik bereizten dituzten arau kultural, tradizio, ohitura eta zeregin jakin batzuk dituzte. Oro har, familiarekiko maitasuna, egitura patriarkala eta autogobernua dituzte ezaugarri. (Gamella, 1996) (Guzmán, 2005), (Moreno, 2020-2021).

Aipatu bezala, Euskal Herrian ere badira ijitoak, baina nolako egoeran bizi dira? Onartuak al dira? Hainbeste urtez gurean egonik ere, normaltasun eta berdintasunez tratatzen al dira? Galdera horiek guztiak erantzuteko asmoa du lan honek.

Hainbeste kultura eta etnia elkarren ondoan izanik, jakina da desorekak sortzen direla, eta, gehienetan, diskriminazioak zoritxarrez. Testuinguru horretan, ijito herria izan da gutxien onartua izan dena aspalditik, eta, ondorioz, diskriminazio gehien jasan izan duena. Horren harira, ijitoekin lotzen diren estereotipoak aztertuko dira sakonki.

Datu zehatz batzuk ematearren, Europar Batasuneko Batzordeak, informatzaile fidagarriekin lankidetzan, online gorroto ilegalaren diskurtsoari aurre egiteko Jokabide Kodearen aplikazioa ebaluatzeko egindako 2021eko monitoretza-zikloan, salatutako mezu guztietatik, antigitanismoa da hirugarren gorroto-arrazoi hedatuena (% 12,5), sexu-orientazioaren (% 18,2) eta xenofobiaren (% 18) ondoren. Argi ikus daiteke, Europar komisiok aipatzen duen legez, antigitanismoa dela gaur egun dagoen arazo sakon eta larri bat, eta ematen dela bai kalean, bai sareetan. (Reinders, D. 2021)

Egia da estereotipoak arrazoi jakinengatik sortzen direla askotan, eta ez dela biktimismoan erori behar; baina lan honetan estereotipoen jatorria aztertuko da historia gertatu zen moduan azalduz. Estereotipoek maiz diskriminazioa eragiten dute eta elkarbizitza baketsu eta berdintsu baterako bidea mozten dute.

Estereotipo horietako batzuk **identifikatu** egingo dira lehenik eta behin; ondoren, arketipo horien **arrazoia aztertu** egingo da; jarraitzeko, estereotipo horien etiketa faltsua edo **ez guztiz errealak ikertu** egingo da. Bukatzeko, estereotipo horiei aurre egiteko **proposamenak bilduko** dira lanean.

Gratu Amaierako Lan (GRAL) honetan ikertuko diren estereotipoak lanarekin, etxebizitzarekin eta hezkuntzarekin lotutakoak izango dira. Izan ere, horiek baitira gizartean dauden alor sozial nagusienak eta garrantzitsuenak, eta, gainera, ijitoek diskriminazio gehien jasaten dituzten eremuak ere badira. Hala erakusten du, "Fundación Secretariado Gitano" k minoriei buruz eginiko ikerketan honetan: Fundazio horrek, FSGk, argitaratutako *"Percepción de la discriminación por origen racial o étnico por parte de sus potenciales*

*víctimas en 2020*” lanaren laburpen exekutiboan, ijitoenganako diskriminazioari buruz hainbat datu agertzen ditu, eta, horiek ikertuta, argi dago etxebizitza eta lana direla ijitoak diskriminazio gehien jasaten dituzten esparruak (RED2RED, 2020).

Aipatutako hiru alor horietatik, etxebizitza, lana eta hezkuntza, sortzen da egunerokotasunean dugun bizitza soziala, bizi kalitate duina, etorkizuneko bizitza garatzeko aukerak... Hiru alor horietan gizartearen gehiegiak hartzen du parte, baina, benetan, oso-osoak parte hartu beharko luke. Horregatik da, hain zuzen ere, guztiz garrantzitsua eremuok aztertzea.

Hezkuntzan, lanean eta etxebizitzan ezbeharrak izanez gero, arazo larriak sortzen dira elkarbizitzan, eta ezin izango dugu izan gizarte osasuntsua sekula. Egoera horretatik diskriminazioak, tratu txarrak eta kriminalitatea eratorri liteke besteak beste.

Beraz, hori guztia ekiditeko ezinbestekoa da gizarteko hiru alor horiek ikertzea ijitoen estereotipoen begiradatik; horrela, estereotipoez ausnartu baitezakegu eta horiei aurre egin baitiezaiekegu. Kontuan izanda diskriminazioan hainbat faktorek eragiten dutela eta estereotipoak ez direla diskriminazioa eragiten duten bakarrak, baina lan honetan horiek ikertuko dira beren-beregi.

Estereotipo horiek hobeto ulertzeko eta, era berean, ikertzeko, Violeta Perez emakume ijitoarekin elkarrizketa bat mantendu da. Estereotipoetan sakontzera bideratu da elkarrizketa, gaztetatik hasi eta gaur egunera arteko esperientzietan oinarrituta. Gainera, ijito herriaren presentzia eta ahotsa barnebildu da lanean modu horretan; diskriminazioei aurre egiteko proposamenak aztertzean, haien ideiak kontuan izateko. Violetarekin izandako elkarrizketan hezkuntza, etxebizitza eta lanaren alorreko galderak landu dira. Aipatzekoa da Violeta Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbideko Graduan titulatu den lehen emakume ijitoa dela; beraz, horri lotuta hezkuntzaren alorrean sakondu da gehien bat.

Horretaz gain, Arartekoari ere elkarrizketa bat egin zaio, herriaren defendatzailea den aldetik, ijitoak harengana jotzen dutelako laguntza eta babes eske, eta ijitoen egoeraren datuak eta testigantzak ahalbidetu ahal izango dituelako.



## 1.2. Hipotesiak eta helburuak

Lan honen hipotesi nagusia izango da ijitoen kontrako estereotipoak asmatutako edo inferitutako ideiak besterik ez direla, eta ez dutela errealitatearekin konexio zuzenik edo ez daudela zientifikoki frogatuta. Azken batean, kriminologiak delituak eta krimenak aztertzeaz gain, gizarte justuago bat sortzeko helburua ere badu. Horretarako diskriminazioa ezabatuko du eta prebentziozko arauak sortuko ditu gizarte osasuntsu eta berdintasunean oinarritutakoa sortzeko. Beraz, nire helburua da ijitoen komunitatea hobeto aztertzea, badirelako gizartearen parte, eta, askotan, edo gehienetan gizartetik at uzten direlako. Ijitoak aztertuta, nire helburua da haien aurka dauden estereotipoak azalratzea, eta horien inguruan hausnarketa bat egitea; izan ere, estereotipo horiek, inongo oinarririk gabeko ideiak besterik ez dira.(Rothea, 2014: 13.or) Horregatik, estereotipoak aztertzean, haien jatorria ikertu eta ideia estereotipatu horiek desmuntatzea da nahia. Erakutsi behar da ijitoak ere gizartearen parte izan behar dutela. Ijitoak gainerako ez ijitoen moduko pertsonak dira, eta eskubide eta errespetu bera merezi dute. Horregaitk estereotipoei aurka eginez, diskriminazioaren alor bati aurre egin ahal izango zaio, eta, ondorioz, ijitoen neurrira eta testuingurura egokitutako politikak sortu. Beti ere kontuan izanda gaia oso konplexua dela eta estereotipoekin batera badirela beste gai garrantzitsu batzuk: pobrezia, esklusioa, marginalizazioa, diskriminazio estrukturala... zeinek diskriminazioa dakartzaten. Lan honetan beraz, estereotipoen gaia jorratuko da diskriminazioari aurre egin ahal izateko atal gisa.

Epe luzerako helburua gizarte-inklusioa lortzea izango litzateke, nahiz eta gaur egun erronka handia izan daitekeen. Beharrezkoa izango da horretarako gizartean gailentzen diren eremu sozial eta ekonomikoen azterketa, eta berregituraketa bat egitea ondoren. Horrela, hezkuntza-sistema, lan arloa eta etxebizitzaren eremua dira gizartean garrantzi handien duten eremuak sozialki onartua izateko eta kohesioa lortzeko. Hipotesien baitan estereotipo nagusiak dira lana, etxebizitza eta hezkuntza. Eremu horietan estereotipoak egoteak eragin larriak eragin ditzake ijito herriarentzat, zeren horiek baitira gizarte inklusioa, zein bizitza duina ahalbidetzen duten eremu nagusiak.

Lan-eremuan, lana gizarte batean parte izateko beharrezkoa den eginkizun soziala da. Enplegua funtsezkoa da gizarteratzeko eta, zoritxarrez, ijito askok zailtasun handiak dituzte besteren konturako lana aurkitzeko gaur egun.

*“La brecha laboral de la población gitana, con especial atención a la realidad específica de las mujeres gitanas”* lanean Arantza Fernández y Carolina Fernándezek diote ijito-biztanleriaren egoera, enpleguari dagokionez, oso desberdina dela biztanleria orokorraren egoerarekin alderatuta. Zehazki, ijitoek egiten duten lanaren zati handi bat familia-ingurunean gertatzen da, eta "ordaindu gabeko familia-laguntza" gisa sailkatu ohi da eta horrek ez du ia garrantzirik biztanleria orokorrari dagokionez. Txosten horrek, hala ere, familia-testuingurutik kanpo egindako lanean jartzen du arreta. Datuei dagokionez, ijitoen enplegu-tasa % 30ekoa da, biztanleria osoa baino % 20 txikiagoa. Langabezia-tasa % 52koa da, biztanleria orokorrarena ( % 14,5) baino hiru aldiz handiagoa. (Fernandez, A. & Fernández, C. 2024)

Ijitoei egozten zaizkien aurreiritziak eta estereotipoak lan-merkatuan sartzea eragozten dieten oztopo gisa funtzionatzen dute.

Espainiako ijito-komunitatea milioi erdi pertsona baino gehiagok osatzen du, eta askotarikoa eta konplexua da, hainbat arrazoi historiko eta kulturalengatik Conejok (2003) azaltzen duenez, eta, gaur egun, eraldaketa- eta aldaketa-prozesuan dago. Enpleguarekin duen harremanaz hitz egiteak orokortzeak eta estereotipoak eragin ditzake. Hala ere, argi dago ijito askok distantzia handia dutela lanbide-heziketarako eta enplegurako sarbide normalarekiko, eta horrek lagundu egiten die gizarte-bazterketari eta jasaten dituzten aurreiritzi ekonomikoari.

Egoera hori aldatzeko, garrantzitsua da ijito-komunitatearen barruko aniztasuna eta barne-aldaketak kontuan hartzea, ijitoen bizi-baldintzak eta kultura-patrioiak. Era berean, aztertu beharko litzateke da zergatik ez diren eraginkorrak Espainiako ijitoentzat Lanbide Heziketako eta Enpleguko politikak. (Conejo, 2003)

Etxebizitza da gaur egun dagoen arazo larrienetako bat; ijito, zein ijito ez direnen artean. Esan beharra dago, gainera, ijitoen kasuan are larriagoa dela egoera, eta horregatik behar duela azterketa sakonagoa. Bizileku egokia izatea funtsezkoa da edozein pertsonaren bizi-garapenerako, prestakuntzan, lan-trebakuntzan eta, ondorioz, enplegu batean sartzeko eta bizitza ekonomikoan parte hartzeko aukera ematen baitu, zeren, azken batean, gizarteratzea ahalbidetzen edo errazten du. Lege-aurreikuspenak eta etxebizitzaren arloan dauden baliabideak gorabehera, alokairuko sustapen publikoko etxebizitza bat eskuratzea oso zaila da oraindik, eta eskaera ugari eragiten dizkie udaleko gizarte-zerbitzuei eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzari (Arartekoa, 2011).

Bada, eremu bi hauek aztertzeko, etxebizitza eta lana, atal enpirikoan Arartekoarekin datuak kontrastatzea eta informazioa zehaztea da helburua. Emandako iritzi eta informazio zehaztuarekin, politika berrietarako proposamenak sortu ahal izango dira, ijitoak lan mundura sar daitezen eta etxebizitza duina lortu dezaten.

Hezkuntzari dagokionez, oinarrizko eskubidea da, eta gakoa da gizarte bidezkoagoa eraikitzeko. Maila globalean, hezkuntza ekoizpen-faktoretzat hartzen da, nazio baten arazo ekonomiko askorekin errotik amaitzeko aukera ematen baitu eta desberdintasun sozialak erregulatzeko tresna gisa jarduten baitu. Funtzio nagusi hauek ditu CETYS unibertsitatearen arabera “Importancia de la educación: el camino para una nueva sociedad” artikuluan azaltzen denez:

- Herrialdean enplegarritasun-mailak hobetzea.
- Gizarteen balioak eta kultura-nortasuna berrestea.
- Garapen-eremuak dibertsifikatzea gazteentzat.
- Demokrazia eta zuzenbide-estatua indartzea.
- Berrikuntza zientifikoa eta teknologikoa sustatzea (CETYS, d.g.).

Argi dago hezkuntzak etorkizuna irudikatzen laguntzen duela eta ondorio asko dituela gazteen etorkizunean hezkuntza sistemarekin izan duten harremanak. Beraz, etorkizunean eraiki nahi dugun herriaren oinarriak finkatzerako orduan oso garrantzitsua da

hezkuntza. Horregaitik eta etorkizuneko gizartea osatzen duelako, egoera hau hobetzeko asmoz neurriak hartu beharko lirateke.

Hezkuntza esparruan multikulturalitateari, kultura aniztasunari, gizarte kohesioari eta dibertsitateari ematen zaion trataera kontuan izateko puntu garrantzitsuak izango dira etorkizuneko gizartearen eraikuntzan. Kriminologiak arlo horretan badu zer egin; izan ere badaki, gizarte batean, arraza-segregazioa, komunitate banaketa, bazterketa eta esklusioari ez bazaio aurre egiten, gizarte kohesioan gora beherak emango direla, eta eremu horietan diskriminazio, jarduera antisozial eta delituen biktima nahiz biktimario izan daitezkeen pertsonak sor daitezkeela.

Beraz, adierazitako guztiagatik da garrantzitsua hiru eremu horiek aztertzea ijitoen testuinguruan, zeren horrek, beste faktore batzuen artean, ahalbideratu ditzake gizarte kohesio handiagoa eta etorkizun justuagoa.

Aspalditik datozen ideiak dira, gizartean errotu diren ideiak eta transmisioa izan dutenak inongo oinarririk ziurtatu gabe.

Ikerketa honekin lortu nahi da:

- Ijitoen inguruan dauden estereotipoak identifikatzea, eta azaltzea oinarri zientifikorik ez dutela ez baitira inongo ikerketatan egiaztatu. Horrela aurre egin ahal izango zaio diskriminazioari.

Behin hori ikertuta, bigarren helburua lortuko da:

- Ijitoen testuingurura egokitutako politika berriak sortzeko proposamenak ematea.

Bi helburu horiek lortzeko ezinbestekoa da ijitoen testuingurua aztertzea lehenik eta, baita ere, estereotipoen inguruko teoria zientifikoagoak ikertzea.

Laburbiltzeko, lan honek erakutsi nahi du ijitoei buruzko estereotipoek, oinarri historikoa izan dezaketela, belaunaldiz belaunaldi igarotako ideiak direla, baina ez ikerketa zientifikoetan oinarrituta eta, beste faktore batzuen artean, diskriminazioari aurre egiteko balio duela estereotipoak deseraikitzeak. Kriminologiak, delituak aztertzeaz gain, gizarte bidezkoagoa

sustatu nahi du, eta diskriminazioa ezabatu. Funtsezkoa da ijito-komunitatearen barruko aniztasuna eta aldaketak ulertzea, baztertu egiten baitira sarritan.

Ijito askok enplegua eta etxebizitza lortzeko zailtasunak dituzte aurreiritzien erruz. Ijitoak gizarteratuko badira, hezkuntzaren, enpleguaren eta etxebizitzaren funtsezko arloak aztertzea eta hobetzea nahitaezkoa da. Azterlan honen helburua da estereotipoak identifikatzea eta desmuntatzea, eta ijito-komunitatearen beharretara egokitutako politikak garatzea, ijitoen integrazioa eta gizarte-ekitatea sustatuz.

### **1.3. Kriminologian duen garrantzia ijitoenganako estereotipoak desmuntatzeak**

Lehenik, interesgarria da kriminologiaren definizioa ematea ikus dadin lan honetan jorratu den gaiarekin baduela loturarik. Kriminologia, bere izaeragatik, zientzia kausal-esplikatiboa, enpirikoa eta diziplinartekoa da, eta bertan hainbat zientziek hartzen dute parte, horien artean antropologia, psikologia eta soziologia. Kriminologia delitua, delitugilea, biktima eta kontrol soziala bezalako fenomenoaren errealitate egiaztagarri eta neurgarrian zentratzen da. Haren ikuspegia iritzietan baino gertakari eta oharretan oinarritzen da. Gainera, diziplinartekoa dela ikusi da, hainbat diziplina zientifikok krimena beren metodo eta ikuspegietatik aztertzen baitute, elkar osatuz eta berrelikadura-sistema bat sortuz. Laburbilduz, kriminologiak krimenaren errealitatea ezagutu eta azaldu nahi du, gertaera enpirikoetan oinarritutako balorazio eta orientazioen bidez, hainbat diziplina integratuz fenomeno kriminalaren azterketa osoa egiteko. (Medina, Almada, Duarte eta Avalos, 2018)

David Buil Gilek *¿Qué es la criminología? Una aproximación a su ontología, función y desarrollo* lanean honela definitzen du kriminologia:

“Ciencia que estudia el comportamiento delictivo y antisocial en sus dimensiones real y percibida, y los mecanismos de control social formal e informal empleados para la prevención, control y tratamiento de la criminalidad,

el infractor y la víctima, con el fin último de velar por el bienestar personal y social del conjunto de la ciudadanía.”

Definizioa aztertuta eta ijitoenganako estereotipoen arlora ekarriz, esan daiteke diskriminazioa badela portaera deliktiboa, eta hori kriminologiak esparru erreal zein gizarteak atzemandakoan aztertzen dela; gainera, prebentzioa, kontrola eta tratamentua aipatzen dira; estereotipoen ikerketarekin aipatu dugun bezala, estereotipoak aldatu daitezkeela argudiatu nahi da diskriminazioaren alor bati aurre egiteko, horrela lortu ahal izango da ongizate soziala zein ijitoena modu pertsonalean.

Ijitoen estereotipoen inguruan ikertzea oso garrantzikoa da kriminologiarentzat. Izan ere, estereotipoen ikerketarekin gerora politika berriak sor daitezkeelako horiei aurre egiteko. Horretaz gain, estereotipoak aurreiritziekin lotuta daude, eta horrek, aldi berean, diskriminazioa bultzatu eta elikatzen du. Hainbat faktorek dute paper garrantzitsua diskriminazioan, baina oraingoan estereotipoetan zentratuko da lana; faktore mugatu hori ikertuko baita, nahiz eta argi egon beste batzuek ere eragiten dutela. Diskriminazio horrek eragin negatiboak ditu, eta gizartean tirabirak sortzen dira, gizarteko jendarte jakin bat epaitu eta kriminalizatu egiten baita. Beraz, oso eremu garrantzitsua eta mamitsua da kriminologiarentzat. Estereotipoen alor guztietan eman daiteke kriminologiarekin lotura; azken finean, ez dugu nahi gizarte bateko inor kriminaltatera eraman, eta hori prebenitu egin nahi da. Horregatik, kriminologiaren ikuspegia behar-beharrezkoa da horrelako gaiak aztertzeko.

Horretaz gain, kriminologiak berebiziko garrantzia du gaur egun ijitoei buruzko estereotipoei aurre egiteko. Iraun egin dute estereotipo horiek historian zehar, eta komunitate horren diskriminazio eta kriminalizazio bidegabea iraunarazten jarraitzen du gizarteak.

Gehiago sakonduta eta hobeto ikertuta, kriminologiaren bidez delituetan esku-hartzeak egin daitezke, eta horiek saihestu. Izan ere, lehen aipatu bezala, estereotipoek aurreiritzietara garamatzate, eta, aldi berean, diskriminaziora, faktore bakarra ez den arren. Diskriminazio horrek kriminalitatea areagotu dezake, ijitoak eremu “marginalizatueta”

bizitzera behartuak direlako, eta ez dituztelako ijito ez direnen aukera berdinak haien bizitza garatzeko. Horrek baliabideak beste bide batzuetatik lortzera eraman ditzake. Ijitoen aldetiko delituez gain, diskriminazioak ijitoenganako delituak sortarazten ditu: tratu ezberdintasunak, irainak, mespretxuak... sarritan emaitza larrietan bukatu daitezkeenak.

Kriminologiarentzat garrantzitsua da pertsonen arteko berdintasuna eta guztiek aukera berdinak izatea; eta, nola ez, justiziaren eremuan funtsezkoa da hori bermatzea. Estereotipoek ondorio asko ekar ditzakete, esaterako: poliziaren tratu ezberdintasuna, oinarrizko zerbitzuetan tratu ezberdintasuna, erakunde ofizialen partetik tratu ezberdintasuna, sententzien injustizia, perfilazio etnikoa... Ondorio kaltegarri horiei aurre egiteko oso garrantzitsua da jakitea nola funtzionatzen duten estereotipoek.

Kontuan izateko beste puntu bat da ijitoek erakundeekiko duten konfiantza. Aurreko puntuarekin zuzenean lotuta dator; izan ere, poliziarengandik, adibidez, tratu ezberdintasunak jasotzen dituzte, eta instituzioengan duten konfiantza txikitu egiten da nabarmen. Beharbada polizien figuran mesfidantza garatzea erraz ulertzen den adibideetako bat da; hau da, kanpotik erraz ikusten da tratu ezberdintasuna, eta erraz ulertzen da ijitoek garatu dezaketen mesfidantza. Baina horretaz gain, hezkuntza sistema ere bada erakunde bat, eta horrengan ere mesfidantza garatzen dute ijitoek. Autoritateenganako eta erakundeenganako mesfidantza edo deskonfiantza garatu egiten da horrelakoekin.

Ijitoek duten mesfidantza hezkuntza-sistemaren erakundearekiko hainbat faktorek eragiten dute. Horietako bat da eskola-bazterketa; arazo kronikoa da ijitoen artean bazterketa mota hau: askok ez dute hezkuntzarako sarbiderik, baliabide faltagatik, diskriminazioagatik eta estigmatizazioagatik (Abajo, J.E., 2022; Gutierrez, P., 2022; Alós, C., 2012). Horretaz gain, Espainiako hezkuntzan desberdintasunak lekuko izaten jarraitzen du, eta ijitoek oztopo gehigarriak dituzte kalitatezko hezkuntza lortzeko. Horrek sistemaren injustizia eta mesfidantza sentipena eragin dezake (Alós, C. 2012; Ftah, K., 2023). Gainera, ijito-komunitateak ordezkartza txikia du hezkuntza-erakundeetan, eta partaidetza mugatua

bere hezkuntzari eragiten dioten erabakietan, eta horrek interesik ezaren eta mesfidantzaren sententzia eragin dezake (Alós, C. 2012; Ftah, K., 2023).

Etxebizitzaren eta lanaren eremuak ere, erakunde desberdinek kontrolatzen dituzte eta horiengan ere sortzen da aipatutako mesfidantza hori. Mesfidantza hori sortzen duten faktoreak hezkuntza sistemarenak sortzen dituenaren antzekoak dira, errepresentazioari dagokionez, diskriminazioari dagokionez eta baita arazo estruktural eta kulturei dagokienez.

Ijito-komunitateak historikoki aurre egin dio diskriminazioari eta bazterkeriari hainbat eremutan, lana eta etxebizitza eskuratzea barne, eta horrek mesfidantza sortu du aukera-berdintasuna bermatu beharko luketen erakundeengan; horrelaxe batu da Espainiako gobernuaren eta Kamira elkartearen artean egindako informean (Borrás eta Macias, 2023). Oztopo gehigarriak izaten dituzte enplegu duinak eta etxebizitza egokiak lortzeko, eta horrek ere mesfidantza sor dezake desberdintasun horiek iraunarazten dituzten erakundeengan; FSGk bere urteko informean bildu zuenaren arabera *La imagen La imagen social de la social de la comunidad gitana (II)* (FSG, 2005). Historikoki ez ezik, gaur egun ere lan- eta egoitza-eremuko etnia- eta arraza-diskriminazioa errealitatea da ijito-komunitatearentzat, eta horrek tratu- eta aukera-berdintasunik ezaren pertzepzioa eragin dezake (Oses, M., 2022).

Horregaitik da garrantzitsua konfiantza eta bizikidetzaren lantzea erakunde eta ijito herriaren artean.

Datuak eta analisiak desitxuratu ditzakete estereotipoek kriminologiaren esparruan. Delituaren zergatia eta dinamika ulertu ahal izateko, oinarritzakoa da ikerketa objektiboa eta aurreiritzi gabea. Estereotipoak baztertuko balira, datu zehatzagoak eta analisi fidagarriagoak lortuko lirateke.

Estereotipoaren gaia jorratzeak gizarte askotarikoago eta inklusiboago baterako bidea zabaldu dezake: beti ere, gai oso konplexua dela jakinda eta beste hainbat faktore ere badela. Gizarteratzea edo inklusioa sustatzen duten eta diskriminazioari aurre egiten dieten politika berriak egoteak gizarte kohesioa hobetu dezake; baita talde etniko ezberdinen



arteko tentsioa ahuldu ere (Amuradi, d.g.; Macías, F. & Borràs, M. 2023; Tur, F., 2019). Amuradi elkarteak dioenez, hori funtsezkoa da ijito-komunitateak jasaten duen arrazakeria normalizatuari aurre egiteko.

Esan daiteke estereotipoen eta diskriminazioaren kontrako borroka giza eskubide eta justizia sozialarekin lotuta dagoela, bata bestearen eskutik baitator. Ezinbestekoa da norbanako guztiak errespetuz eta duintasunez tratatzea, jatorri etnikoa edozein dela ere. Estereotipoei eta haien ondorioei buruzko ikerketak sustatzeak gai horiei buruzko kontzientziazio eta hezkuntza handiagoa ekar dezake, bai kriminologiaren barruan, bai gizartean oro har. Horrek epe luzerako pertzepzioak eta jarrerak aldatzen lagun dezake.

Laburbilduz, ijitoen estereotipoei buruz ikertzea eta estereotipo horiei aurre egiteko politikak garatzea funtsezkoa da, ez bakarrik kriminologiarentzat, baita gizarte bidezkoagoa eta ekitatiboagoa sustatzeko ere. Horrek krimena murrizten laguntzen du, justizia-administrazio bidezkoagoa bermatzen du, erakundeekiko konfiantza indartzen du eta giza eskubideak eta justizia soziala sustatzen ditu.

Aipatu bezala, ijitoak kriminalitatearekin lotzen dituzten estereotipoak aztertzea garrantzizkoa da, horiei aurre egitean, kriminologiak pertzepzio horietan oinarri enpirikorik, edo norbanakoen esperientzietan oinarrituta ez dagoela adieraz dezake, eta ijitoak berez delitugileak direnaren ideia desegin (Rothea, 2014). Izan ere, historian zehar kriminologiak momentu batzuetan ijitoen berezko maltzurtasuna defendatzen zuen hainbat adituk idatzitako teorien arabera. Beraz, garrantzitsua da kriminologiatik ikuspegi kritiko bat garatzea estereotipoak lantzerako orduan, horiei aurre egiteko. Jarraian horren inguruko datuak azalduko dira.

Ijitoek kriminologian dituzten estereotipoak komunitate horren diskriminazioa eta kriminalizazio bidegabea iraunarazteko erabili dira (Rothéa, 2014). Luis Hoyos de Sainz (Madril, 1868-1951) antropologoa Espainiako antropologiaren sortzaileetako bat izan zen. Neurri fisikoetan oinarrituta, espainiarrak hainbat arraza-taldetan banatu zituen, eta ijitoak

kanpoko arraza-talde gisa aurkeztu zituen (Hoyos de Sainz, 1951). Ijitoen aurkezpen hori eskuarki bere ondorengoek onartzen zuten eta txosten instituzionalek hedatzen zuten.

Instituzionalki estereotipoak erabiltzen ziren ijitoak kriminalizat hartzeko, eta hori da gaur egun kriminologiak ikertu behar duena eta aurre egin. Aldi berean, historian zehar Cesare Lombrosoren (Verona, 1835 - Turin, 1909) kriminologia positibista berrerabili izan da ijitoen kriminalizazioa justifikatzeko. *Criminal Man* (Lombroso, C., 1911) saiakera ospetsuan, kriminologo italiarrak Ijitoei buruz idatzi zuen "berezko lapurren" arraza gisa, eta horien artean kriminalitatea heredatu egiten dela. Espainian, Rafael Salillas y Panzanok (Angüés, 1854 - Madrid, 1923) garatu zuen kriminologia positibista, eta ijitoak kriminalen arrazatzat hartzen zituen, odolagatik ez ezik, haien bizimoduari eta nomadismoari dagokienez ere. Hau da, estereotipoetan oinarritutako arrazoiengatik autore honek ere.

Kriminologo frankistengan eragin handia izan zuen Salillasek. Bere artikuluetan, ijitoak herentziazko eta arrazazko izaki kriminogenikotzat hartzen dira. Horrek ijito-komunitatearen kriminalizazio bidegabea ekarri zuen eta delinkuentziaren biologizazioa gizarte-arazoak ezkutatzeko modu gisa hartu Rothéak (2014) adierazi zuenez. Beste eragin batzuk ere aurki daitezke haren idazkietan. Kriminologia frankistak ere ijitoak etnia maltzur gisa irudikatzen zituen. Badirudi frankismoa antzinako kontua dela eta garai hartako ideiak aldatu egin direla gaur egun, baina estereotipoen ideia horiek oso errotuta zeuden, izan ere aipatu den bezala instituzionalki ere ideia horiek erabiltzen zituzten jasartzeko. Beraz, estereotipoetan ez jausteko teoria berriak eta ikerketa berriak bultzatu egin behar dira eta horrela kontra egin aurreiritzi eta diskriminaziarri. 40ko hamarkadaren hasieran, kriminal biologia eta arraza-higienismo nazia kriminologia frankistan agertu ziren (Rothea, 2007). Francisco Javier de Echalecu y Canino (1897-1957) doktorea izan zen esparru honetako autoritate bihurtu zenetako bat. 1943an parte hartu zuen Polizia Kriminalaren Nazioarteko Batzordeak antolatutako bidaia batean, kriminologiaren metodo alemanak aztertzen. Echalecu y Caninok (1945) "asozialen" tratamenduari buruzko txosten sutua egin zuen.(Rothéa, 2014) Kriminologia positibistak, kriminologia biologikoak, Espainiako

kriminologia klasikoak eta ijitoak "lapur" natural gisa irudikatzeko antzinako tradizio literarioak bat egiten dute "berez" kriminala den ijito baten irudiarekin, bere "arrazaren" ondorioz.

Nahiz eta aurreko esaldi eta paragrafoetan ikusi den nola frankismo garaian berezko kriminalak existitzen zirela adierazi zuten, ez da inoiz frogatu ijitoak gainerako biztanleak baino kriminalagoak direnik. Aldi horretan ez zen ikerketa serio eta zorrotzik egin ijitoen ustezko kriminalitateari buruz, baina hori kriminologiako tratatu eta artikulua guztietan baieztatzen da.

Funtsezkoa da Turren arabera (2019) kriminologiak ijitoak kriminalitatearekin modu bidegabean lotzen dituzten estereotipoak ikertzea eta horiei aurre egitea, pertzepzio horietan oinarri enpirikorik ez dagoela agerian uzteko (Tur, F., 2019; Rothea, 2014). Ez da inoiz frogatu ijitoak beste talde batzuk baino kriminalagoak direnik. "Nunca se ha demostrado que los Gitanos sean más criminales que el resto de la población" (Rothea, 2014: 13.or)

Pertsona batzuek oker uste dute ijitoek genetikoki delituak egiteko joera dutela, XIX. mendetik aurrera Cesare Lombroso kriminologoak betikotu duen aurreiritzi arrazista da. Estereotipo hori pertzepzio arrazistan oinarritzen da, eta ez du kontuan hartzen jatorri etnikoa ez dela garrantzitsua delituak egiteko; izan ere, ijitoa ez den norbaitek delitu bat egiten duenean, haren jatorri etnikoa ez da aipatzen.

"Ijitoen delinkuentziaren" estereotipoaren sustrai historikoak Erdi Arokoak dira, ijitoen bizimodu nomada zigortu zenean. Ekialdeko Europan komunismoa erori zenean, estereotipo hori handitu egin zen, eta estatu batzuek beren aurreiritziak justifikatzeko erabili zuten, askotan ijitoen biktimei babes egokirik eskaini gabe. Gehiegizko polizia-operazioek eta ijitoen aurkako basakeriak poliziarekiko eta gobernu-erakundeekiko mesfidantza areagotu egin dute eta ijitoen eta ijitoak ez direnen arteko aldea handitu egin da.

Laburbilduz, "ijitoen delinkuentziaren" estereotipoa betikotzea aurreiritzi arrazisten adierazpen bat da, eta ijito-komunitatearen eta estatuko erakundearen arteko mesfidantza handitu egin du, eta gutxiengo etniko horren bazterketa eta diskriminazioa areagotu. (FSG, 2013)

Eta zergatik jazarpen hori Espainian? Mendebaldeko Europako gainerako herrialdeetako beste kriminalizazio mota batzuekin alderatuta, jarrera frankista gogorragoa da, eta gogoeta arrazistetan oinarritzen da. Horregatik oinarritzkoa da ijitoen inguruko estereotipoak aztertzea kriminologiarentzat gaur egun; izan ere, berezko kriminalitate hori ezeztatzeko oinarri zientifiko eta argi serioekin. Frantzian edo Ingalaterran, adibidez, ijitoen aurkako etsaitasuna populazioan zein polizian agertzen zen, baina Bigarren Mundu Gerraren ondoren, ez da inoiz baieztapen instituzional baten parte izan, tratamenduaren errealitatea edozein izanda ere. Horrek erakusten du ijito-herriaren egungo errealitateari buruzko ezjakintasun sakona, eta Konstituzioaren aurreko garaietatik datozen mito eta estereotipo negatiboen iraunkortasuna (Imagen social de la comunidad gitana, 2005).

Badirudi erregimen frankistak gehiago onartzen eta berresten zuela etsaitasuna, erregimen demokratikoei baino. "Ijitoen kriminalitatea" Espainiako botereak helburu sozial eta politiko batekin erabili zuela pentsa daiteke. Kontuan izan behar dugu Espainiak 40ko eta 50eko hamarkadetan izan zuen egoera historiko berezia. Estatuak gerra zibilak eta antagonismo politikoak zatitzen zuten. Ehunka mila biktimarekin amaitu zen errepresio izugarri baten ondoren, erregimen berriak Espainiako herria bateratu behar zuen printzipio komunen inguruan. Ijitoen aurkako etsaitasuna, herrialdeko kriminal handitzat aurkeztua, antzinako etsai politikoaren ordean etsai sozial eta "arrazazko" berriak eraikitzeke erabiltzen den moduetako bat da. Frankistek monarkiarekiko eta elizarekiko XVI. mendetik garatutako etsaitasun tradizionala zuten, baina baita ideia arrazista "berriak" ere. Kriminalak bezala, ijitoak gizartearen kanpoaldean kokatu ziren etsai antisozialen eredu perfektua eskainiz. Delinkuentziaren biologizazioa Estatuak arazoak konpontzeko duen ezintasuna ezkutatzeko modu bat izan zen; bai gizarte-arazoak, baita pobrezia ere.

Gaur egun, oraindik ere badago frankismoko ideien zantsua, gizartean badago ijitoen berezko kriminal izatearen ideia. Ijitoei buruz dugun pertzepzioa ez dator bat errealitatearekin; komunikabideetatik eta zeharkako informazioetatik transmititutako iruditik datorkigu estereotipoen pertzepzioa, ez dator ijitoekin izandako esperientzia edo harreman zuzenetatik inolaz ere (FSG, 2005). Ijito-herriarekiko diskriminazioa gaur egunera arte

arrastatzen da; komunikabideetan, telebistan eta zineman sustatzen da arrazakeria normalizatu hori(FSG, 2013). Ideia estereotipatu horiek apurtzeko, beraz, ezinbestekoa da ikerketa berriak egitea kriminologiaren alorretik, ijitoak pairatzen dituzten diskriminazioekin bukatzeko.

Laburbilduz, ijitoek kriminologian dituzten estereotipoak komunitate horren diskriminazioa eta kriminalizazio bidegabea iraunarazteko erabili dira, ebidentzia enpirikoak gezurtatu dituen teoria arrazista eta biologizatzaileetan oinarrituta. Kriminologiak ijitoei buruzko estereotipoei aurre egiteko erantzukizuna du, eta kriminalizazioa desmitifikatu, berdintasuna sustatu eta kontzientzia sortu. Horrek eskatzen du iraganeko teoria arrazistak zalantzan jartzea eta azterketa ebidentzia enpiriko zorrotzean oinarritzea, ijito-herriaren irudi bidezkoagoa eta errealistagoa lortzen laguntzeko. Funtsezkoa da aurreiritzi horiei aurre egitea eta ijito-herriaren irudi bidezkoagoa eta errealistagoa sustatzea.

#### **1.4. Metodologia eta edukiaren egitura**

Egitura aldetik, lehenik eta behin estereotipo eta ijitoen gaira hurbilketa bat egingo da. Horretarako ikerketa hau ulertzeko ezinbestekoak diren hitz eta kontzeptu batzuk azalduko dira eta horiek lana aurrera doala sakonago ikertuko dira. Kontzeptuak azaltzeaz gain, ijitoen hurbilketa historiko bat ere egingo da hasieran: ijitoen egoera kokatu ahal izango dugu, gerora azalduko diren estereotipoen inguruko teoriak haien testuingurura kokatu ahal izateko. Garrantzitsua da jakitea zein testuinguru eta gizabanakoren inguruan jardungo dugun; horren harira edo hori kontua izanda, sortuko baitira amaieran azalduko diren eskuartzeko neurriak.

Estereotipoak izango dira lanaren ardatza. Eta estereotipoen eta ijitoen historiari buruzko hurbilketa egin ostean, modu zehatzago edo sakonago batean estereotipoetan murgilduko da lana.

Kriminologiako gradu amaierako lan batek eskatzen dituen arazoari buruzko lanketa teoriko zein enpirikoa txertatuko dira. Behin problematika bere testuinguruan kokatuta, oinarri

teorikoa lantzeari ekingo zaio. Estereotipoen ikerketa sareko datu basean dauden beste ikerketa eta lan batzuekin osatuko da. Lan honetan jorratuko diren gaien informazioa bilatu, aztertu eta kontrastatu egingo da estereotipoak ulertzeko eta desmuntatzeko. Beraz, azterketa bibliografiko batean oinarrituko da atal hau.

Horretaz gain, gaur egun ijito herriaren mugimendua indartzen ari da, eta hainbat elkarte ari da lanean. Horien azterketatik ere lortu da informazioa lan honetarako. Elkarte horiek ijitoek bultzatzen dituzte; beraz, haien ahotsa kontuan izateko, ezinbestekoa da irakurtzea sarera igortzen dituzten albisteak edo artikulak. Argitalpen horietatik abiatuta, lanerako hainbat ideia eta azpiatal eratorri dira, geroago sareko datu basean ikertu eta kontrastatu direnak.

Atal teorikoari dagokionez, kontzeptu hauen azalpena eta hurbilketa egingo da: ijitoen estereotipoak, diskriminazioa, eta kulturartekotasuna. Euskadiko diskriminazioaren eta "antigitanismoaren" inguruko datuak aztertuko dira egoera kokatzeko eta arazoaren zabalera ohartarazteko.

Ondoren, gaiaren erroan sakonduta, estereotipoei buruzko ikerketa egingo da. Kontzeptua definituko egingo da, eta horren inguruko hainbat teoria azalduko dira diskriminazioa eta kulturartekotasunarekin harremanean. Estereotipoak identifikatzeko, ijitoek hainbat alorretan jasandako diskriminazioei buruzko Espainiako hainbat estadistika eta datu konparatu dira. Behin ikerketarekin zeintzuk diren aztertu dugunean, ijitoen estereotipo nagusiak azalduko dira, hauek baitira ikerketari esker identifikatutakoak: lanaren esparruan, etxebizitzan eta hezkuntzan.

Egitura aldetik, lana hainbat azpiataletan banatuta dagoen arren, baten baino gehiagotan lantzen dira estereotipo nagusiak; atal guztietan daude letra berberarekin izendatuta: a) lana, b) etxebizitza eta c) hezkuntza.

Estereotipo bakoitzaren inguruan, lehenik eta behin eta nahiz eta oinarri zientifikorik ez izan, estereotipoaren jatorria azaltzeko ahalegina egingo da: nondik datorren jakinez gero, errazago ulertu ahal izango estereotipoa, eta baita politika zuzenagoak sortu ere.

Behin jatorria azalduta, estereotipo horiek ijitoen bizitzetan dituzten eraginak aztertuko dira, zeren estereotipo horiek ez baitie uzten bizitza duin eta osoa aurrera eramaten. Hori horrela, estereotipoak zein diren eta zein eragin duten ijitoengan jakinda, aurre egiteko aukera edo proposamenak iradokiko dira; azken batean, ikerketa egiteak politika egokiagoak sortzeko aukerara baikaramatza.

Atal enpirikoari dagokionez, eta ikerketa borobiltzeko, Violeta Perez Marzanorekin (Derio, 2001) elkarrizketa bat mantendu da. Violetari, bera komunitate ijitoko partaidea den aldetik, eperientziengatik galdetu zaio. Jatorriaren eta testuinguruaren kokapen bat egiteko eskatu zaio; aktibismo eta militantzian dabilenez, bera murgilduta dagoen elkarteen inguruan ere galdetu zaio laburki. Baina ikerketaren mamian zentratuta, lehenik, modu orokorrean jasandako diskriminazioaren inguruan hitz egingo da, eta, ondoren, hezkuntzan, etxebizitzan eta lanaren eremuan sakondu da elkarrizketan. Hiru eremu izanik ere, hezkuntzaren eremua izan da gehien sakondu dena; izan ere, Violeta EHUn zuzenbidean graduatutako lehen emakume ijitoa da, eta hezkuntza sisteman izandako esperientziei buruz galdetu zaio batez ere. Horrez gain, inkesten barometroen inguruan ere galdetu zaio, modu orokorrean ea estereotipoen inguruko inkestei buruz zer iritzi duen, eta, ondoren, barometro arrazistak erabiltzearen inguruko iritzia emateko eskatu zaio. Gainera, diskriminazioaz duen pertzepzioaz galdetu zaio eta, nola ez, bere kasu bereziari buruz, EHUn lehen emakume ijitoa izatea zuzenbidean graduatzen.

Eremu enpirikoari jarraipena emateko, bigarren elkarrizketa bat ere txertatu da lan honetan. Bigarren elkarrizketa hau Arartekoaren bulegoko legelari bati egin zaio. Legelariari haren eginkizunaz galdetzen zaio ijitoen esparruari dagokionez. Horretaz gain, herriaren defendatzailea denez, jasotzen dituen kexen inguruan ere galdetu zaio. Egin zaizkion galderak ikerketaren norabideari jarraituta egin zaizkio egin ere: lanaren, etxebizitzaren eta hezkuntzaren alorrekoak izan dira galderok.

Elkarrizketak egitea hautatu da, azken batean metodo honek erantzun zabal eta askeak ahalbidetzen dituelako. Estereotipoez ikertzen denean, gai korapilatsua askotan, garrantzitsua da askatasun osoa ematea elkarrizketatuari, inongo inkestarik egin gabe,

zeren inoiz inkestek izaten dituzte berezko joera arrazistak inplizituki, nahiz eta estereotipoei buruz ikertzen den. Beraz, elkarrizketa erabiltzea da egokiena.

Bukatzeko, elkarrizketetatik, webguneetatik eta liburuetatik ateratako ondorioetan oinarritutako proposamenak egin dira ijitoen aurkako diskriminazioaren fenomenoaren lantzeko.



## 2. Atal teorikoa

### 2.1. Kontzeptuen azterketa

Ikerketa edo lan hau hobeto ulertzeko asmoarekin, garrantzitsua da hitz batzuen definizioa argi izatea; horrela, ondo ulertuko dira kontzeptuak, eta gehiago sakondu ahal izango da ikerketa galderan.

Hurrengo kontzeptuak ulertzea, ijitoen jasaten duten diskriminazio, estereotipatze eta jazarpenen gaia aztertzeke eta jorrazteke oinarri-oinarrizkoak izango dira. Horregatik, azalpen laburrak emango dira ijitoen gizarteratzearekin loturik dauden kontzeptuetan.

Garrantzizkoa da azaltzea ijitoei buruzko aurreiritziak eta estereotipoak ikertzeke; azken batean, ijitoen diskriminazioaren katea eten nahi delako, eta helburua delako ijitoek bizitza duin eta berdintasunezkoa izatea; eta, horretarako, funtsezkoa da politika berriak egitea. Kontuan izan behar dira kontzeptuak ijitoen testuingurua ulertzeko eta egokien zaizkien politikak martxan jartzeko. Bizi dugun askotariko gizarte honetan, garrantzitsua da denon eskubideak babestea inor zapaldu gabe, ezta kultura txikiena ere.

Hortaz, lehenik eta behin, kontzeptuen aukeraketa azalduko da eta kontzeptuak zergaitik aukeratu diren azalduko da. Ostean, definizioetan sakonduko da.

**Kultura** hitzaren inguruko azalpen bat egitea garrantzitsua da ; izan ere, kultura hitza dute erro gisa lan honetan zehar erabiliko diren kontzeptu gehienek. Testuak kulturaren kontzeptua ulertzeko beharra dakar, kultura-aniztasuna eta kulturartekotasuna bezalako gaiak lantzean. **Kultura** eta **kultura-aniztasuna** aztertzea lagungarria da ijito-kulturaren eta kultura nagusiaren arteko desberdintasunak eta antzekotasunak alderatzeko. Ikuspegi interakzionista batetik, kultura da etengabe aldatzen ari den produktu sozial bat, komunitate bateko pertsonen arteko elkarrekintzak eta komunikazioak eragiten duena (Rodrigo Alsina, 2000). Etengabe aldatzen ari dela aipatu da; hortaz, ijitoenganako estereotipoak finkoak ez direla ondorioztatu daiteke. Izan ere, estereotipoak kulturalki eta etnikoki desberdina denari

ezartzen zaizkio antigitanismoan; beraz, estereotipoak alda daitezkeela ondorioztatu daiteke baita ere. **Ikuspegi interakzionista** deritzo: elkarrekiko ikuspegiaren abiapuntuari, pertsona eta ingurunea unitate bereizi gisa hartzea, haien arteko elkarrekintzekin. Kasu honetan, azterketa-unitatea "pertsona eta ingurunea" izango litzateke, eta haren helburua aldagaien arteko kausa-efektu harremanak bilatzea da, fenomeno bat aztertzeko, aurrekariak eta ondorioak dituen sistema asoziatibo baten bidez, jokabidea eta prozesu psikologikoak iragartzera eta kontrolatzera bideratua (Valera, S. d.g.). Beraz, esan dezakegu kultura inguruneaz eta pertsonaz osatuta dagoela, eta bien arteko interakziotik eta harremanetik sortzen dela kultura.

Nabarmentzekoa da gizabanako bakoitzak mundua ikusteko modua eransten diola komunitateari; baina era berean, komunitate batean jaiotzeak eta garatzeak, gizabanako hori modu jakin batean hazten eta eratzen lagunduko diola. Pertsonak kultura hori osatzen dugun elementuak gara, eta transmisioan eta kontserbazioan laguntzen dugu. Komunikazioak erabateko garrantzia dauka kulturaren existentzian eta transmisioan, komunikazio-trukearen bidez adierazten eta "betikotzen" baita kultura bera. Kontraesankorra izan daiteke, baina kultura dinamikoa eta aldakorra da. Hori dela eta, haren adierazpen batzuk beste batzuk aldatu egiten dira, eta beste batzuk desagertu. Baztertu egin behar da kultura estatiko eta giza ekintzatik kanpoko baten ideia. Izaera dinamikoa du eta etengabe eboluzionatzen ari da, hizkuntza denboran zehar eraldatzean den bezala.

Kultura guztien berdintasuna defendatuko balitz, goi-mailako edo beheagoko kulturen nozioa baztertuko egingo litzateke. Kultura bakoitzak bere pentsatzeko, sentitzeko eta jarduteko moduak ditu, eta funtsezkoa da bere testuinguru eta irizpide kulturaletatik interpretatzea, joera kulturala saihesteko. Kultura-jardunbideen konplexutasuna aitortzen bada, eta hasierako iritzi kritikoa moderatzen bada, kultura-aniztasuna ulertzeko eta kulturen arteko komunikazioa sustatuko da. Ohartaraztekoa da ahalegin hori ez egiteak gaizki-ulertuak sor ditzakeela eta kultura desberdinen arteko komunikazioa oztopa dezakeela eta diskriminazioa sortuko da ziurrenik.

Garrantzitsua da kontuan hartzea nola erabakitzen dugun eta noiz gauden kultura desberdina duen komunitate baten aurrean. Hainbat irizpide planteatzen dira; hala nola, hizkuntza, erlijioa, generoa eta adina. Hala ere, irizpide horietan soilik oinarritutako kultura bat esleitzeak ikuspegi estatiko eta esentzialista batera eraman gaitzake. Adibidez, gazteak, beren adina dela eta, kultura propioa duen taldeetat hartzen baditugu, ez dugu kontuan hartzen talde horren ikuspegi-aniztasuna, ezta gizabanako batek aldi berean hainbat kulturatan parte hartzeko aukera ere.

Gizarte modernoetan, kultura-aniztasunak zaildu egiten du kulturak bereizteko muga argiak edo irizpide zehatzak ezartzea. Kulturaren postulatu fundamentalistek kulturak homogeen, garbi eta kanpoko eraginik gabekotzat aurkezteko joera dute, eta horrek baztertu egiten ditu "jatorrizko" kulturaren zatitzat hartzen ez diren kultura-adierazpenak. Horrek esan nahi du bereizi egin behar direla kultura baten berezkitzat jotzen direnak eta besterentzat jotzen direnak.

**Asimilazio kulturalak** eta **akulturazioak** eragina dute ijitoek haien nortasun kulturala mantentzen, egokitzen edo eraldatzen duten moduan, kultura nagusiarekiko elkarrekintzari erantzunez. Kontzeptu horiek aukera ematen dute asimilazio-prozesuetan kultura nagusien eta mendekoen artean ezartzen den botere-erlazio desberdina aztertzeko, eta horrek diskriminazioa eta aurreiritziak ekar ditzake (Fernández, A.M., 2023). Horrek estereotipo jakin batzuen sustraiak ulertzen laguntzen du, baita identitate-pertzepzioarekin nola erlazionatzen diren ulertzen ere. Estereotipoak izanik lanaren oinarri, nahitaezkoa da kontzeptuok argitzea. Horretaz gain, kontzeptu hau aztertzea ezinbestekoa da, aurreko atalean aipatu dugunez, historian zehar asimilazio prozesu bat onartu behar izan dutelako ijitoek onartuak izateko, eta diskriminazioari aurre egin ahal izateko. Horrela, ikertu behar da diskriminazioari aurre egiteko era egokia denentz. **Asimilazio kulturala** aztertzea lagungarria da ulertzeko nola kolonizazio-prozesu historikoek kultura menderatzailea inposatu duten, eta egokitzen ez zirenak jazarri eta zigortu, gaur egun arte irauten duten ondorioekin. Horrela **asimilazio** eta **akulturazio** kontzeptuek ijitoek haien kultura utzi eta

onartuak izateko behar duten ikuspegi sinplistari aurre egiten laguntzen dute. Aitzitik, **integrazioaren** ikuspegi konplexuagoa eta aberasgarriagoa susta daiteke, non kultura anitzen koexistentzia balio gisa ikusten den.

Ijitoak erakunde sozial, ekonomiko eta politikoetan nola integratzen diren, edo ez, aztertzean —**egiturazko asimilazioa**—, aurreiritziak eta estereotipoak betiketzen dituzten egiturazko ezaugarriak identifika daitezke. Adibidez, hezkuntzarako eta enplegurako sarbiderik ezak estereotipo negatiboak indartu ditzake. Horretarako integrazioa, kultura, eta gizarte mutlikulturala zer diren jakitea egokiena da. Jakin ahal izango dugulako nola erlazionatzen diren erakundeekin eta zein izan daitekeen haiekin harremanak izateko metodorik egokiena eta estereotipo eta diskriminazioak saihestu.

Gizakiok tendentzia dugu taldeetan banatzeko edo sailkatzeko: talde baten parte izan edo ez izan. Sailkaketa horren ondorioz, gure taldekoak berdintzat hartzen ditugu eta beste taldekoak, ordea, kanpokoak izaten dira, desberdinak. Azken batean, kanpoko taldearen kontrako ideiak sortzen ditu estereotipoak, diskriminazioa, prejuizioak eta arrazakeria. Jazarpen forma horiek ekiditeko helburuarekin hainbat prozesu bereganatu dezake gizakiak, eta horietako bat asimilazioa izan daiteke besteak beste.

**Asimilazioa** esamoldearen arabera, kanpoko zeinuak desegiteko prozesua da Robert Erza Parkerentzat (1864-1944), eta azaleko homogeneousasuna eragiten du gainera. Adibidez: modetan edo moduetan. Irizpide- eta jarrera-desberdintasun sakonekin guztiz bateragarria dena. (Park, 1923/1950, apud, Terrén, 2001)

Rogers Brubakerrek (Illinois, 1956) asimilazioari buruz ikertu du, bere *“The return of assimilation? Changing perspectives on immigration and its sequels in France, Germany, and the United States”* lanean, 2001ekoan, hiru asimilazio mota bereizten ditu: segmentatua, estrukturala eta espaziala. Asimilazio segmentatuak agerian uzten du bigarren belaunaldiko etorkinek arrakasta sozioekonomikoa izan dutela gutxiengo etnikoek osatutako auzoetan, beren inguruko gazteen asimilazioari aurre egiten diotelako eta, aldi berean, ingurune nagusian asimilazioa dutelako. Bestalde, asimilazio estrukturalak kontuan hartzen du etorkinen partaidetza soziala gizarte zentralako talde edo erakundeetan, lehen mailako

taldearen mailan. Asimilazio espazialak, berriz, auzo etnikoen urbanizazio falta edo suburbanizazioa eta murrizketa hartzen ditu kontuan. (Brubaker, 2001).

Brubakerrek, horretaz gain, beste bi definizio mota azaltzen ditu: alde batetik, *general* eta *abstraktua*; eta, bestetik, *organikoa* eta *espezifikoa*. (Brubaker, 2001) Corpasek (2021) azaltzen duena bere *Procesos de incorporación sociocultural de la población inmigrante: asimilación y multiculturalidad* lanean (Corpas Nogales, 2021).

*Asimilazio generala* izango litzateke berdintasunera daraman prozesuarekiko asimilazioa. Organikoa eta espezifikoa, aldiz, asimilatzeko azken emaitzan zentratzen da gehiago; hau da, esanahi iragankor batean oinarritzen da. Asimilatzeko bihurtu egin behar dela dio; horrela, asimilazioa kategoria mailakatu batetik bereizten da.

***Asimilazio orokorra eta abstraktua:*** Kontzeptu horrek asimilazio zabala eta teorikoa aipatzen du, talde etniko edo kulturalen arteko desberdintasunak murrizteko prozesu gisa. (Corpas Nogales, 2021) Horrek ez du esan nahi talde minoritarioak kultura nagusia erabat bereganatu behar duenik.

***Asimilazio espezifikoa eta organikoa:*** Kontzeptu horrek asimilazio zehatzagoa eta praktikoagoa adierazten du. Talde etniko edo kultural bat komunitate handiago batean integratzen den prozesua, kultura menderatzaileko elementuak hartzen ditu. (Corpas Nogales, 2021) Horrek aldaketa sakonagoak dakartza talde minoritarioaren nortasunean eta praktika kulturaletan.

Asimilazioaren ikuspegi tradizionala prozesu natural eta saihestezin gisa kritikatzeko du Brubakerrek, eta fenomeno konplexuago eta norabide askotariko gisa ulertzea proposatzen du (Terren, 2001; Zunino, 2011). Bai talde minoritarioak, bai nagusiak, bi norabideko truke batean, bestearen kultura-elementuak har ditzakete (Terren, 2001)

Bi norabideko truke horrek, beharbada, asimilazioaren alde negatiboa ezkutatzen du. Trukaketa hori ikus daiteke lehenago aipatu denean euskal kulturak ijitoen hizkera edo tradizioak bereganatu dituela adibidez; baina hori euskal kulturak berez egin du, ez da behartua izan ijitoen kasuan ez bezala. Asimilazio behartuak eragin nabarmena izan zuen ijito-komunitatean. Ijitoek bizimodu tradizionala utzi eta gehiengoaren ohitura eta balioetara

“egokitu” behar izan zuten. Horrek nortasun kulturala eta soziala galtzea ekarri zuen, eta ijito askok beren tradizioak eta ohiturak utzi behar izan zituzten jazarpena saihesteko (González, I. 2017; Intef, d.g)

Asimilazioaren bi norabidetako ezaugarri honi lotuta, **akulturazioa** dugu, asimilazioaren oso antzeko terminoa da. Akulturazioa da iritsi berriek harrera-gizartetik datozen alderdi soziokulturalak hartzea. Ikus dezakegunez, definizio hori asimilazio kontzeptuaren oso antzekoa da. Baina, akulturazioa borondatez egiten da, eta asimilazioa, berriz, taldearen borondatea deuseztatzen duten mekanismoen bidez (Corpas Nogales, 2021). Beraz, esan daiteke euskal kulturak akulturazioa jasan zuela baina oso modu arin edo txikian.

Laburbilduz, Espainiako ijitoen asimilazio behartua prozesu konplexua eta eztabaidagarria izan zen, eta eragin nabarmena izan zuen ijitoen komunitatean. Integrazio legal, sozial eta okupazionala lortu nahi bazen ere, ezarritako neurriak krudelak eta diskriminatzaileak izan ziren, eta eragin negatiboa izan zuten ijitoen nortasun kultural eta sozialean. Garrantzitsua da kontzeptu hau ulertzea beraz, hurrengo puntuan ijitoen historia ulertu ahal izateko.

Beraz, Brubakerrek desberdintasunen murrizketa gisa asimilazioaren nozio orokorra, eta gutxiengoaren kultura menderatzailearen adopzio gisako nozio espezifiko bat bereizten ditu. Baina bi kasuetan, zalantzan jartzen du norabide bakarreko prozesu natural baten ideia, eta kultura-trukeen konplexutasuna nabarmentzen du.

**Asimilazio kulturean hainbat kategoria** daude eta modu askotan ema daiteke. Garrantzitsua da horiek ulertzea eta jakitea zeintzuk diren, asimilazioa ematen den unean esku-hartzea errazagoa izateko, nahiz eta asimilazioaren eredu txiki eta ikusezin bat eman, eta horrela diskriminazioari aurre egin ahal izateko; azken batean, kategoria hauek hartzen dituztelako ijitoek estereotipo eta diskriminazioa ez jasateko.

- Egitura-asimilazioa: Talde minoritarioa gizarteko funtsezko erakundeetan sartzeaz ari da; hala nola, lan-merkatuan, hezkuntza-sisteman eta egitura politiko eta ekonomikoetan.(Fernández, 2023)

- Ezkontza-asimilazioa: Talde minoritarioko eta talde nagusiko kideen arteko ezkontzak areagotzea dakar, eta hori asimilazio-adierazle aurreratua da (Fernández, 2023).
- Identifikazio-asimilazioa: Talde minoritarioko kideak gizarte maioritarioarekiko kidesuna eta identifikazioa sentitzen hasten direnean gertatzen da, haien kultura-nortasuna bereganatuz (Fernández, 2023; Asimilación cultural, d.g.).
- Jarrerazko asimilazioa: Talde minoritarioak talde nagusiaren balioak, arauak eta sinesmenak onartzea eta babestea da (Fernández, 2023; Asimilación cultural, d.g.).
- Beheranzko asimilazioa: Talde minoritarioko kideen posizio soziala gurasoena baino txikiagoa denean gertatzen da, klase baxuenetan integratuz eta pobrezia eta bazterkeriari aurre eginez (Terren, 2001).
- Asimilazio segmentatua: Talde minoritarioko kideak maila desberdinetan asimilatu daitezkeela esan nahi du, kultura-elementu jakin batzuk hartuko ditu jatorrizko kultura-nortasunari eusten dioten bitartean (Fernández, 2023; Asimilación cultural, d.g.).

Kategoria horiek kultura-asimilazioaren hainbat alderdi islatzen dituzte: kultura-praktikak hartzea, gizarte-erakundeetan integratzea eta kultura nagusiarekin identifikatzea.

Behin kontzeptua definitu dela, orain bere eraginkortasunaren inguruan emango da azalpen bat. Ijitoak integratzeko eta haien diskriminazioarekin amaitzeko, metodo gisa asimilazio bidez egitea, gai konplexua eta eztabaidatua da. Aurkako hainbat argudio azaldu daitezke. Kontrako lehen argudioa: nortasuna galtzea dakar; asimilazioak ijitoen nortasun kulturala eta soziala galtzea ekar dezake. Beren ohiturak eta balioak alde batera uztean, ijitoek iraganarekiko eta kulturarekiko lotura gal dezakete (Caminos, A, 2014; Franco T., 2021) Jarrartzeko, Caminosek (2014) azaltzen duenez, kontrako beste argudio bat: asimilazioa egokitzapen behartua izan daiteke eta ijitoen beharrak eta lehentasunak ez ditu

kontuan hartzen; ijitoak gehiengoaren ohiturak eta balioak hartzera behartzean, egiazko ez izanaren eta atsekabe sentimenduak sor daitezke (Caminos, A, 2014; Franco T., 2021).

Horretaz gain, asimilazioak ez die diskriminazioaren arazoaren sustraiei heltzen, pertzepzio lerratuan eta ijitoen kulturarekiko arbuioan oinarritzen baita. Sustrai horiei heltzen ez zaienez, asimilazioa ez da eraginkorra izango epe luzera; horrela bildu da Francok (2021) idatzitako artikuluan.

Modu laburrean azalduz, eta Parkeren (Park,1923/1950, apud, Terrén, 2001, 99-100 or) definizioarekin loturik lan honetan erabiliko den definizioa hurrengoa da: asimilazioa da kultura minoritario batek kultura hegemoniko edo menderatzaile baten elementu guztiak edo asko hartzen dituenean gertatzen den prozesua, alde batera utzita elementu kultural propioak, modu marjinallean baina esanguratsuan. Beraz, honela defini daitezke asimilazioa kulturala: akulturazioaren muturreko prozesua, kultura nagusirako erabateko irekitasuna eta horren ondoriozko adopzioa (Fernández, 2023; Ikusmira, d.g.).

Behin **asimilazio kulturalaren** kontzeptuaren aukeraketaren zergatia azalduta, kontzeptua bera azalduta eta bere kategoria eta eraginkortasun mailaren azalpena eginda, multikulturalismoaren kontzeptuari helduko zaio; lehenik, kontzeptuaren aukeraketa argudiatu egingo da, eta, ondoren, kontzeptua azaldu egingo da.

**Multikulturalitate** eta **multikulturalismo** nozioak funtsezkoak dira kultura-aniztasunaren aberastasuna baloratzeko eta herri ijitoa bezalako gutxiengoen errespetua eta inklusioa sustatzeko (M. Barabas, 2014). Aukera ematen du, halaber, ezjakintasunean oinarritutako estereotipoak desagiteko, eta kultura-aniztasunaren alderdi positiboak nabarmentzeko.

**Multikulturalismoaren** kontzeptuak aukera ematen du ebaluatzeko kultura-aniztasuna aitortzen eta baloratzen duten politikek eta praktikek nola indargabetu ditzaketen estereotipoak. Multikulturalismoa ulertzea funtsezkoa da inklusioa eta ijitoekiko errespetua sustatzen duten politikak proposatzeko.

Kontzeptu horiek sakon aztertuz gero, ijitoen kultura-nortasuna aitortu eta errespetatuko duten politika inklusiboagoak diseinatu ahal izango dira. Hori funtsezkoa da



aurreiritziak betikotzeko bidea mozteko eta gizarte bidezkoagoa eta berdintsuagoa sustatzeko.

Laburbilduz, kontzeptuok esparru teoriko eta praktiko bat eskaintzen dute ijitoen aurkako aurreiritziak eta estereotipoak aztertzeko eta jorratzeko, gizarte inklusiboagoa eta kultura-aniztasuna errespetatzen duena sustatuz.

Gizartean hainbat kultura bizitzeko prozesuen artean multikulturalitatea dago. **Multikulturalitatea** emango litzateke kultura ezberdinak espazio geografiko, fisiko edo sozial berean batera gertatzen direnean. Multikulturalitatea aitortzea da estatu nazional berean talde kultural desberdinak batera daudela (M. Barabas, 2014).

Beste aditu batzuen esanetan multikulturalitatea kontzeptu soziologikoa edo antropologia kulturalakoa da. Esan nahi du hainbat kultura daudela espazio geografiko eta sozial berean. Hala ere, kultura horiek elkarrekin bizi dira, baina eragin txikia dute elkarrengan, eta ez dira besteekiko iragazkorrak izaten. Ghettoetan mantentzen dira eta bizitza paraleloak bizi dituzte. Harrera-gizartea hegemonikoa izan ohi da, eta lege- eta gizarte-hierarkiak ezarri ohi ditu, beste taldeak baldintza-gutxiagotan kokatzeko. Horren ondorioz, gatazka, gutxiespena, estereotipoak eta aurreiritziak sortzen dira, eta gizarte-bizikidetzaz zailtzen da, betiere talde ahulenen kaltetan. Ekitatea eta elkarrekiko errespetua dagoen kasuetan, "multikulturalitate" "multikulturalismo" igaro daiteke (M. Argibay, 2003).

Askotan, multikulturalitatearen kontzeptua nahastu egin daiteke **multikulturalismo** edo interkulturalitatearekin. **Multikulturalismoa**, hasiera batean, kultura desberdinak dituzten pertsonen arteko harremanetarako modu gisa planteatzen da, eta topaketa horretatik abiatuta, kultura-aniztasuna kudeatzeko beharra sortzen da (Redondo, 2011). Alde batetik, asimilazioak erantzuna ematen dio kudeaketa horri, eta, horren ondorioz, harrera-gizartearen kulturak xurgatzen du gizarte igorlearen kultura. Multikulturalismoak, berriz, kulturen arteko harreman berdintsuago baten alde egiten du, bi alderdi horiek elkarrekiko zenbait alderdi eta harreman soziokultural emanaz eta elkar aberastuz (Corpas Nogales, 2021).

**Interkulturalitate** kontzeptua, berriz, hauxe dugu Miquel Rodrigo-Alsinarentzat (Bartzelona, 1955): “La interculturalidad es en realidad comunicación intercultural; es decir, la existencia de la interacción como fenómeno implica inmediatamente situarse en un fenómeno comunicacional porque describe una relación entre culturas, que, buena o mala, se están comunicando por necesidad de una o de ambas partes. La comunicación intercultural es el grado de comunidad de vida compartido por agentes de comunidades distintas, pero que por una u otra razón se encuentran comunicándose en un momento dado” (Rodrigo Alsina, 2000).

Rodrigo-Alsinak bi kontzeptuak desberdintzen ditu: “entiendo por multiculturalismo la coexistencia de distintas culturas en un mismo espacio real, mediático o virtual; mientras que la interculturalidad sería las relaciones que se dan entre las mismas.” Hau da,, multikulturalismoak estatua markatuko luke, gizarte plural baten egoera, nortasun bereziak dituzten kultura-komunitateen ikuspegitik. Kulturartekotasuna, berriz, kultura-komunitate horien arteko dinamikari dagokio (Rodrigo Alsina, 1997).

Beraz, kultura-aniztasuna eta kultura-aniztasunaren nozioa funtsezkoak dira aberastasun mota hori balorean jartzeko eta ijito-komunitatea bezalako gutxiengoen errespetua eta inklusioa sustatzeko. Kontzeptu horiei esker, ezjakintasunean oinarritutako estereotipoak desagin eta kultura-aniztasunaren alderdi positiboak nabarmendu daitezke. Multikulturalismoak oinarri bat ematen du ebaluatzeko kultura-aniztasuna aitortzen eta baloratzen duten politikek eta praktikek nola ezaba ditzaketen estereotipoak. Multikulturalismoa ulertzea funtsezkoa da ijitoekiko politika inklusiboak eta errespetuzkoak proposatzeko; eta, era berean, aurreiritziak geldiarazteko eta gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa sustatzeko. Gainera, ikus daiteke asimilazioaren terminoa behin aztertuta, kulturartekotasuna dela integrazioarako bide eraginkorrena inongo etniaren zapalkuntzaren aurka egiten duelako.

Hau da, kontzeptu horiek esparru teoriko eta praktikoa eskaintzen dute ijitoen aurkako aurreiritzi eta estereotipoen aurre egiteko, eta gizarte inklusiboagoa eta kultura-aniztasuna errespetatzen duena sustatu. Multikulturalitatea espazio berean kultura

bat baino gehiago batera egoteari dagokio; multikulturalismoa, berriz, harreman bidezkoagoa dakar kultura horien artean, eta elkar aberastea ahalbidetzen du. Kulturartekotasunak, Rodrigo Alsina (2000) arabera, kultura desberdinen arteko komunikazioa eta harremanak eskatzen ditu.

Ildo horretan, **integrazioaren** kontzeptua azaldu behar da jarraian. Horretarako, Erresuma Batuko Ralph David Grillo, gizarte zientzietako ikerlariari, egin behar zaio erreferentzia: migratzaileak erakunde nagusietan, gizarte-harremanetan eta iraupen luzeko gizarte hartzailearen estatuetan sartzeko eta onartzeko prozesuetan hartzen du integrazioa. Bere lanaren arabera, integrazioa prozesu konplexua izan daiteke, hainbat faktore inplikatzeko dituen; hala nola, hezkuntza, enplegua eta etxebizitza. Grillok nabarmendu du integrazioak ez dakarrela soilik ijitoak gizarte maioritarioan asimilatzea, baizik eta haien kultura eta nortasuna onartzea eta errespetatzea ere bai. Horrela, ez du ulertzen asimilazioa berdintzeko prozesu gisa, baizik eta aukera-berdintasun gisa, kultura-aniztasunarekin batera, elkarrekiko tolerantzia giro batean. Bere lanean, ijitoen integrazioa eragozten duten hainbat oztopo identifikatu ditu Grillok, hala nola diskriminazioa, marjinazioa eta ekonomia- eta hezkuntza-aukeren gabezia. Gainera, adierazi du integrazioa ez dela prozesu lineal bat, eta ijitoek integrazio-maila desberdinak izan ditzaketela beren testuinguru sozial eta kulturalaren arabera, Martinezek aipatua (2009).

Integrazioa eman behar da beraz diskriminazioari aurre egiteko, eta hori multikulturalitatearekin lortu daiteke, esaten baita integrazioaren definizioan ijitoen kultura errespetatu behar dela eta ez dela asimilazio huts bat. Multikulturalitateak badu alde on bat; azken batean, espazio jakin batean kultura desberdinak bizikidetzan jarduten dutelako, eta haien artean aberastu daitezkeelako. Horrek, arazoak ere ekar litzake aldi berean; izan ere, diskriminazioa eratorri litekeelako bizikidetzan horretatik. Desberdinak diren pertsonak onartzen ez dituenik ere badago gizartean, eta haserrearazten dituenak kultura desberdinekin kontaktuan egoteak. **Diskriminazio** hori, kasu honetan, **arrazakeria** hitzarekin identifikatu dezakegu. Horregatik da garrantzitsua azken kontzeptu hauek definitzea.

**Diskriminazioa** oso kontzeptu zabala da, eta gizakiaren hainbat ezaugarri hartu ditzake: etnia- eta arraza-bereizkeria; atzerritarren aurkako diskriminazioa edo xenofobia; lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexualen aurkako diskriminazioa edo genero-diskriminazioa; kastagatiko diskriminazioa; desgaitasunagatiko diskriminazioa...

Ildo horretan, Amnistia internazionala erakundearen arabera diskriminatzea da norbaiten eskubideak kaltetzea: norbera izateagatik edo sinesten duenarengan sinesteagatik. Diskriminazioa kaltegarria da oso, eta desberdintasuna betikotu egiten du (Amnistia Internacional, d.g.).

Lan honetan, gaiarekin lotuta dagoen heinean eta ijitoak kontuan izanda, **diskriminazio etnikoa eta diskriminazio kulturala** definituko dira.

Lehenik eta behin, kontzeptu horiek aukera ematen dute ulertzeko nola gertatzen diren talde nagusien eta gutxiengo etnikoen arteko trukeak eta gatazkak, eta nola horrek aurreiritziak eta diskriminazioa sor ditzakeen (Cortes, M. 2021; FSG, 2023).

**Etnia- eta arraza-diskriminazioa** aztertzea lagungarria da ikusarazteko ijito-komunitatearekiko gaitzespena agertzeko dauden moduak, tratu desberdinetik indarkeriaraino (FSG, 2023; Gaya, F. d.g.). Behin tratu horiek identifikatuta, jakin ahal izango dugu bizitzako zein eremutan dauden estereotipo gehien eta zenetan landu behar diren politika berriak.

**Arraza- edo etnia-bereizkeria** kontzeptuak arraza edo jatorri etnikoagatiko bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehentasun orori egiten dio erreferentzia; politika, ekonomia, gizarte, kultura edo bizitza publikoaren beste edozein esparrutan giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen aintzatespena, gozamina edo egikaritza baliogabetzen edo kaltetzen duenean, berdintasun-baldintzetan (Solanes Corella, 2019, 35-67).

Arrazakeria dago oraindik ere, arraza hitzak errealitate biologikorik identifikatzen ez duen arren, eta arraza-nagusitasunaren doktrinak zientifikoki faltsuak, moralki gaitzesgarriak, sozialki bidegabeak eta arriskutsuak direla dioten ebidentzia zientifikoak dauden arren. Hau da, oinarri biologo eta esentzialista duen arrazismoa gainditutzat jo badaiteke ere, arrazismoa, arraza-bereizkeria, xenofobia eta horiekin lotuta dauden

intolerantzia moduen biktimak daude oraindik ere, horien forma eta adierazpen garaikideak barne, edo, gauza bera dena, ez dago arrazarik, baina bai arrazistak (Solanes Corella, 2019, 35-67).

Diskriminazio etnikoak, Angeles Solanes Corellarentzat (Tavernes de la Valdigna, 1972), arraza edo jatorri etnikoagatiko bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehentasun orori egiten dio erreferentzia. Politika, ekonomia, gizarte, kultura edo bizitza publikoaren beste edozein esparrutan, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen aintzatespena, gozamina edo egikaritza baliogabetzen edo kaltetzen denean berdintasun-baldintzetan (Solanes Corella, 2019).

Beraz, Ibram Xolani Kendik (New York, Estatu Batuak, 1982) dioen bezala, arrazista ez izatea ez da nahikoa, termino horrek neutrala ez den espazioa baitakar. Beharrezkoa da berdintasunean oinarritutako arrazakeriaren aurkako ikuspegia sustatzea, gizarte-bidegabekeriei aurre egiteko politikak bultzatuko dituenak (Kendi, I. X. 2019). Horrek esan nahi du, ikusiko dugun bezala, arrazakeria berez dela instituzionala, egiturazkoa eta sistematikoa. Gaur egungo gizarte demokratikoetan, ideia arrazistak naturalizat hartzeko moduan errotuta daude, eta horiek hutsalak ere dirudite. Beraz, zaila izan daiteke ulertzea eta, batez ere, arrazakeriaren aurkako neurriak ezartzea berdintasuna lortzeko. Berdina gertatzen da arrazakeriaren inguruko ikerketak irakurtzean eta ikustean, egindako galdetegiak sorreratik bertatik dira arrazistak; prejuizioen barometroak arrazistak dira. Gizartean errotuta dago eta ez dugu erreparatzen. Lan honen 2.4.3. atalean sakonduko da gehiago gai horri buruz.

**Diskriminazio kulturala** aldiz, sortzen da gizartearen zati batek tradizio, sinesmen, ohitura edo ohitura jakin batzuk besteen azpitik daudela ikusten duenean, eta, horren ondorioz, ezaugarri desberdin horiek dituzten pertsonak edo taldeak gaizki tratatzen direnean. Hori hainbat faktoreri egotz dakioke; hala nola, herrialde baten egoera ekonomiko eta sozialari, eskualde bateko ideologia eta ohituren aniztasunari, beste gizabanako batzuen jokabidean eta ekintzen eraginean dagoen desberdintasunaren beldurrari.

Hainbat kultura-diskriminazio mota daude: erlijiosoa, ohituretan oinarritutakoa, ideologikoa eta sexu-orientazioarekin lotutakoa. Ondorioak psikologikoak izan daitezke, gizarte-bazterketa jasateko arrisku handia dutenak; baina baita fisikoak ere, eraso-kasu bortizetan amaitu daitezkeenak. Gainera, gizarte osoak kultura-aberastasuna gal dezake bazterketa-ekintza horien ondorioz (Acción contra el hambre, d.g.).

**Integrazioa, diskriminazio etnikoa, arraza-diskriminazioa eta diskriminazio kulturala** bezalako kontzeptuak aztertu dira orain ijito-komunitatearekiko aurreiritzi eta estereotipoei buruz ikertzeko.

Gordon Willard Allport (Indiana, Estatu Batuak, 1897) Harvardeko Unibertsitateko psikologoak **aurreiritziaren** definizio klasikoa eman zuen bere *Aurreiritziaren izaera* lan eraginkorrean. Pertsona batekiko mesfidantza- edo etsaitasun-jarrera gisa deskribatu zuen, talde jakin bateko kide izateagatik soilik. Definizio horretan, pertsona horrek bere taldeari esleitutako ezaugarri negatibo berak dituela uste da. Definizio horrek mugarri bat ezarri zuen aurreiritziaren azterketan, eta eztabaida nabarmena sortu zuen Theodor Ludwig Wiesengrund Adornorekin (Frankfurt, 1903) aurreiritziak nortasunaren parte ote ziren erabakitzeke (Allport, G. 1954).

**Estereotipoa** aurreiritziaren antzeko kontzeptua da, eta hori bezala, baliagarria da giza komunikazioan (Allport, G. 1979). Horregatik, estereotipoak eskuratzen, sortzen, mantentzen eta transmititzen ahalegintzen gara. "Estereotipotzeak" esan nahi du sinplifikatu egin behar dela, eskuarki beste batzuetatik (kasu horretan aurreiritziez ari gara) eskuratutako oinarritzko ideia-multzo bat normalean gizakiena den kategoria bati lotuz. Aurreiritziak ez bezala, estereotipoak pertsona-taldee esleitzen zaizkien ideia-multzoak dira. Ez dira zertan negatiboak izan, neutroak edo positiboak ere izan daitezke. Hala ere, estereotipoak aurreiritziak baino konplexuagoak dira, bi arrazoi nagusirengatik: lehenik eta behin, pertsonen portaeraren irudi sinplifikatua ematen dute kategoria jakin batean; eta, bigarrenik, besteen portaeraren ideia bat osatzeko erabiltzen direnez, norberak bere burua edo bere taldea hautemateko moduarekin lotuta daude, eta horien arteko desberdintasunak nabarmentzen dira.

## 2.2. Ijito herriarenganako hurbilketa historikoa

Euskal Herriko ijito-komunitateak historia konplexua eta askotarikoa izan du. Ijitoen historia ezagutzea eta ulertzea oso garrantzitsua da haien pobrezia eta segregazio egoera ezagutzeko. Izan ere, European Union Agency for Fundamental Rights erakundeak, FRAk, egindako *Roma in 10 European Countries - Main results* (Roma Survey, 2021) lanean aipatzen da, batez beste, inkestatutako herrialdeetako ijitoen % 80 pobrezia arriskuan zeudela 2021ean. Txosten horrek, 2021ean Kroazia, Txetxenia, Grezia, Hungaria, Italia, Portugal, Errumania eta Espainiako ijitoei buruz egindako inkestaren ondorioak aurkezten ditu, baita Ipar Mazedoniakoak eta Serbiakoak ere. Inkestan 8.400 ijito baino gehiagori egindako elkarrizketak daude eta beren etxeetan bizi diren 20.000 pertsona baino gehiagori buruzko informazioa biltzen ditu. Ijitoengan zentratuz, inkestak datu eta informazio bereziak ematen ditu: bazterketaren, gabeziaren, diskriminazioaren eta arrazakeriaren irudi ilun baina ezagunak aurkezten ditu (Roma Survey, 2021).

Pobrezian bizi den ijitoen ehuneko handia da gaur egun, eta horrela izan da historikoki ere. Pobrezia egoera eta segregazioa zergatik bizi izan duten ezagutzeak estereotipoak ulertzeko norabidea emango digu; azken batean, estereotipoak nahiz eta errealak ez izan, badute errealitatearekin loturaren bat, eta historia ulertzea garrantzitsua da lotura hori ikertzeko. Jarraian, eskualdean duten presentziari eta egoerari buruzko funtsezko puntu batzuk aurkezten dira.

David Martín Sanchezen (Erreterria, 1980) esanetan, ijito herriak urteak daramatza euskal herrian, XV. mendean iritsi zirela dio, eta ez direla joan geroztik, bertan jarraitu dute gaur eguneraino (Martín Sánchez, D., 2018). Uste da ijitoak atzeritarrak direla, eta urte gutxi daramatzatela euskal herrian, baina hori ez da horrela. Izan ere, euskal kultura eta folklorea aztertuta ikusi daiteke haien presentzia aspaldikoa dela; inauterietan, maskaradetan, pastoraletan... Euskalduntzat hartu dira ohitura eta kultura adierazpen asko, oinarrian ijitoen kulturatik eratorriak diren arren; ikusezin bihurtu egin dira nolabait, "inbisibilizatu" egin dira (Martín Sánchez, D., 2018).

Euskal lurretan bizi ziren ijitoak, eta espainiar lurretan bizi zirenak desberdinak ziren. Asimilazio prozesu baten murgildu ziren euskal lurretan bizi izan ziren ijitoak, eta euskal kultura barneratu. Baina, bestalde, ekarpen handia egin zioten euskal kulturari, gaur egun bizirik dirauena. Asimilazioan jausi nahi ez zuten ijitoak, ordea, diskriminazioan bizitzera behartuak izan ziren (Salinas, J., d.g.).

Ez dago ijitoen inguruko ikerketa askorik, eta hutsune horrek eragin handia du gaur eguneko egoeran, ijitoek diskriminazioa pairatzen jarraitzearen egoeran, hain zuzen. Asko sufritu du ijito herriak historian, eta jazarpenera jaso izan dute mendeetan zehar. Kartzelaldi orokor bat izan zuten, baita sarekada handi bat 1749. urtean, *Gran Redada de 1749*, eta holokausto bat ere pairatu behar izan zuten. 1749ko Sarekada Handian 10.000 ijito baino gehiago atxilotu eta espetxeratu zituzten Espainian. Sarekada, 1749an hasi eta 1765era arte iraun zuen ijito-herriaren sarraski-proiektu baten parte izan zen. Aldi horretan, Espainiako agintariek ijitoak diskriminatu eta jazarri zituzten, eta haien kultura eta bizimodua desagerrarazten saiatu ziren (FSG, 2016; Martinez, d.g.; La Poderio, 2020).

Ijitoak familietatik eta komunitatetik bereizteko kartzelatze orokorra erabili zen, eta horrek ijitoen gizarte eta kultur egitura desagitea ekarri zuen Martinezek aditzera ematen duenez (d.g.).

**Gertakariok ulertzea eta ezagutzea garrantzitsua da estereotipoak nondik datozen ulertzeko.** Sarekada Handiak eta Espainiako ijitoen kartzelatze orokorrak eragin nabarmena izan dute ijitoek Espainiako gizartean eta gizarte globalean dituzten estereotipoetan eta pertzepzioetan. Gertakari horiek gutxiengo etniko horrekiko diskriminazioa eta bazterketa iraunarazi dute, eta ijitoei buruzko estereotipo negatiboak sortu eta indartu dituzte; hala nola, arraza txikiagoa, arriskutsua eta erlijiorik gabea izatea (Asturias laica, 2023; La Poderio, 2020). Horretaz gain, ijitoen —gizonen eta emakumeen, haurren eta zaharren— banaketa behartuak eta baldintza gogorretan itxialdiak nortasun kulturala eta soziala galtzea ekarri du. Horrek komunitate desantolatua eta egiturarik gabea izatearen estereotipoa sortzen lagundu du (Asturias laica, 2023). Sarekada Handiak eta ijitoen kartzelatze orokorrak xenofobia eta gutxiengo etniko horren aurkako gaitzespena



sustatu dute. Gertaera horiek ijitoekiko beldur eta mesfidantza giroa sortu dute, eta horrek diskriminazio eta marjinazio handiagoa ekarri du (Asturias Laica, 2023). Ekitaldi horiek diskriminazio- eta marjinazio-ondarea sortu dute, eta gaur egun ere ijitoei eragiten die. Garrantzitsua da gertakari horiek gogoratzea, errepika ez daitezen eta gizarte inklusiboago eta kultura-aniztasunarekiko errespetuzkoago baten alde lan egiteko (Asturias laica, 2023; La Poderio, 2020).

Gertakari historiko horiek ez dira inongo historia liburuetan aipatzen eta, beraz, hezkuntzan ez da horrelakorik inon aipatzen. Hori kontuan izatea garrantzitsua da geroago aipatuko den hezkuntzaren inguruko estereotipoa ikertzeko, eta hezkuntza uzte-goiztiarraren kontrako porposamenak aztertzeko.

Horrez gain, aro modernoan ijitoen kontrako hainbat lege idatzi ziren: “*Leyes anti-gitanas*” deitzen zitzairen.

Ijitoek beren burua atzeritartzat zuten arren, pixkanaka asimilatu egin ziren euskal gizartean. Ijitoen kultura euskal kulturaren ikusezin bihurtu zen edo bereganatu egin zen; hala ere, haren arrastoa ikus daiteke inauterietako eta folkloreko adierazpenetan, lehenago ere ikusi den bezala. Espainiako beste eskualde batzuetan, ordea, Andaluzian adibidez, ijitoen kultura ikusgarriagoa da eta tokiko gizartearekin estuki lotuta dago.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko ijito-komunitatea gehienbat gaztea da eta hazten ari da, jaiotza-tasa altuarekin. Datu ofizialik ez badago ere, eskualdean 15.000 eta 20.000 ijito artean daudela uste da. Eusko Jaurlaritzak ijitoek pairatzen duten desberdintasun- eta diskriminazio-egoerari aurre egiteko estrategia bat abiarazi du, eta hezkuntzak eta enpleguak beren egoera hobetzeko duten garrantzia nabarmendu du.

Historian zehar, ijitoek diskriminazioari eta arbuioari egin izan diote aurre. XIX. mendean, gatazkak izan ziren ijitoen eta eskualdeko biztanleen artean, eta haiek kanporatzea edo deuseztatzea eskatzen zuten ahotsak ere izan ziren; baina ijito izaera eta auzokoekin elkarbizitza baketsua aitortu zuten pertsonak ere egon ziren gatazka horietan.

Espainian ijitoen asimilazio behartua prozesu konplexua eta eztabaidagarria izan da. Jarraian, ijitoen asimilazio behartuari buruzko funtsezko puntu batzuk aurkezten dira:

Nahitaezko asimilazio-aldi (1633-1783) bat pairatu zuten. Aldi honetan, Espainiako Koroak ijitoen asimilazioa behartzeko hainbat neurri ezarri zituen. Neurri horien artean, beren hizkuntzan hitz egitea, jantzi tradizionalak janztea eta ohiturekin jarraitzea debekatu egin zen. Gainera, beren bizimodu nomada utzi eta leku finkoetan asentatzeko agindu zieten. Arau horietara egokitzen edo makurtzen ez ziren ijitoak gorputz-zigorrekin zigor zitezkeen, burdina goriarekin edo esklabotasunarekin esaterako (González, I. 2017; Intef, d.g).

Ijitoei aplikatutako legediak ez zuen proposatzen kanporatzea alternatiba gisa aldi honetan, baizik eta nahitaezko integrazio legal, sozial eta okupazionala, edozein preziotan. Ijitoak ehizatzeke agintzen zuten pragmatikak argitaratu ziren, eta tenpluen santutasuna bera ere bortxatua izan zitezkeen haien jazarpenean. Horretaz gain, haur jaioberriak gurasoengandik bereiztea iradoki zen ijitoen hizkuntza eta ohiturak ikastea eta transmititzea eragozteko (González, I. 2017; Intef, d.g)

Modu laburrean azalduz, ijitoen bizimodua estereotipatua izan da eta legeen eta konbentzioen aurkako erronka izan da. Historian zehar, ijitoek diskriminazioari eta arbuioari egin diote aurre mendeetan, gatazkak izan ziren ijitoen eta eskualdeko biztanleen artean, eta haiek kanporatzea edo deuseztatzea eskatzen zuten ahotsak egon ziren. Hala ere, ijito izaera eta auzokoekin elkarbizitza baketsua aitortu zuten pertsonak ere egon ziren (Martín Sánchez, D., 2018).

Batzuek ijitoei buruz izan duten ikuspegi erromantikoa gorabehera, ijitoen irudia estereotipatuta egon da Espainia flamenko irudi baten azpian edo Andaluzia parrandazale eta alfer baten itxurapean. Horrek, 1978an demokrazia iritsi arte iraun zuen eta bazterketa eta diskriminazio legal eta kulturala ekarri zuen (Martinez, 2011).

Gaur egun ere, lehen aipatu bezala, Espainiako ijitoen % 80k pobreziari edo gizarte-bazterkeriari aurre egiten dio hala moduz, eta diskriminazioak eta gizarte-bazterketak arazo izaten jarraitzen dute, eta komunikabideek ere akats inkontzienteak egin ditzakete (Roma Survey, 2021)

Diskriminazio instituzionala onartua izan bada ere, ijitoek gaur egun jasaten duten diskriminazioa ikusezin bihurtzeak beren bazterketa- eta bazterketa-egoeren erantzukizuna

egoztear ekar dezake, eta hori arriskutsua da, eta ijitoek beren historia kontatzeko eta neurri sozial eraginkorrak eraikitzeo duten gaitasuna murrizten du (Martinez, 2011).

Ijitoen historia berreskuratzea funtsezkoa da haien memoria duintzeko eta, gutxiengo hori, benetan sartzearen aldeko politika integratzaileak ezartzeko. Ijitoek ahotsa eta erabakitzeo gaitasuna behar dute beren historia kontatzeko eta onuragarri zaizkien neurri sozialak eraikitzeo (Martín Sánchez, D., 2018).

Laburbiltzeko, ijito-komunitateak diskriminazio- eta bazterkeria-historia luzea jasan du Espainian, Europara iritsi zenetik gaur egun arte. Gutxiengoak babesteko legeak aldarrikatu badira ere, pobreziak eta gizarte-bazterketak arazo izaten jarraitzen dute, eta beharrezkoa da arrazakeria instituzional eta sozial hori aitortzea eta horri heltzea, inklusio eraginkorra lortzeko.

## **2.3. Diskriminazioa, “antigitanismoa”**

### **2.3.1. “Antigitanismoaren” datuak edo Euskadiko egoera**

**Arrazismoa eta antigitanismoa** (ijitoekiko diskriminazio espezifikoa) bezalako kontzeptuek gutxiengo horrek jasaten dituen gorroto-, arbuio- eta deshumanizazio-jarrerak aztertzea ahalbidetzen dute, eta, horren ondorioz, akabatzea eska daiteke. Horretaz gain, balioko du erakusteko ijitoen kontrako ideiak existitzen direla gizartean, eta ijitoak diskriminatu egiten direla estereotipo edo zantzu batzuetan soilik oinarrituta.

Ijito-komunitatearen integrazioarako oztopoak aztertzeak agerian uzten du aurreiritziek eta diskriminazioak haien gizarte-bazterketa iraunarazten dutela eta eskubideak eta aukerak eskuratzea zaildu. Gizarte berdintsu bat nahi badugu, denok eskubide berberak izan behar ditugu bizitzako eremu guztietan; izan lan ermeua, hezkuntza, etxebizitza edo beste edozein eremu.

EAEko herritarrek Euskadiko ijitoen diskriminazioari eta integrazio eskasari buruzko kontzientzia soziala duten arren, egiturazko antigitanismoak jarraitzen du, kulturarteko

bizikidetza zailtzen duena. Ikuspegik egindako *Neurtu 2022* inkestak agerian uzten ditu ijitoekiko pertzepzio eta jarrera horiek.

Lehen aldiz, euskal gizarteak ijitoekiko dituen pertzepzio eta jarrerei buruzko azterlan espezifiko bat egin da, *Neurtu 2022. EAEko aniztasunari buruzko barometroa. Ijitoekiko pertzepzioak eta jarrerak* izenekoak. Gizarteak ijitoekiko diskriminazioa aitortzen eta salatzen du gehienbat, baina jarrera anbibalenteak ditu eta erosotasun txikiagoa adierazten du gertuko harremanetan.

Bizitegi-eremuan, % 40k baino gutxiagok onartuko luke ijito askoren auzo edo bloke berean bizitzea; aldiz, % 40,9 hori saihesten saiatuko litzateke, eta % 15,3k uko egingo lioke. Gainera, hamarretik lauk baino gehiagok etxebizitza ijito bati alokatzea edo ez alokatzea saihestuko lukete. Lan-eremuan, hamar pertsonatik ia hiruk ijitoa kontratatzea saihestuko lukete, baita prestakuntza- eta esperientzia-berdintasunean ere.

Gehienek lan eta hezkuntza testuinguruetan ijitoekin harremanak izateko arazorik ez duten arren, onarpenak nabarmen egiten du behera beren seme-alabentzat ijito ikasle asko dituen ikastetxe bat aukeratu behar denean, eta aukera hori ia hamarretik lauk saihestu edo baztertu egingo lukete.

Zeharkako diskriminazioari dagokionez, herritarren % 40 baino gehiago ijitoei buruzko komentario negatiboen lekuko izan dira, % 34k baino gehiagok isekak ikusi dituzte eta % 21,1ek irainak ikusi dituzte, % 12,5ek mehatxuak eta % 10,7k eraso fisikoak.

Azkenik, ijitoekiko sinpatiak hamarretik 5,79ko batez besteko puntuazioa du, aitortutako tolerantzia pertsonala hamarretik 6,65ekoa da, eta gizarteak hautemandako tolerantzia 5,3 puntukoa da, Julia Shershnevaren arabera.

Ijito-herriaren egoera konplexua eta alderdi askotarikoa da Euskal Herrian. Hemen, datu eta egoera garrantzitsu batzuk aipatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoan dauden ijitoen ingurukoak, horrela hobeto ulertu ahal izango da zein den haien egoera. Euskal Autonomia Erkidegoko ijito-biztanleria, gutxi gorabehera, 14.000 pertsonakoa da (Eusko Jaurlaritza, euskadi.eus). Gainera, Euskal Herriko ijito herriak berezko hizkuntza bat garatu du, romanía, euskararekin eta gaztelaniarekin nahastu dena, erromintxela (Eusko jaurlaritza,

2022) izeneko mintzaira bereizia sortuz. Gizarte-antolaketa dagokionez, Euskadiko ijito-komunitateak berezko gizarte-egitura du, familian eta elkarrekiko laguntzan oinarritua. Familia-unitatea eta familiako laguntza balio komunak dira ijitoen artean.

Ijitoen diskriminazioari aurre egiteko hainbat plan eta estrategia sortu dira azken urteetan. Horiek aipatzea ere garrantzistua da jakiteko zein baliabide dituzten edo zein laguntza eskatu dezaketen:

2003an Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko ijitoen egoera hobetzeaz arduratzen dena (Martín Sánchez, D., 2018). Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluak 2004az geroztiko urteko jardueren memoriak argitaratu ditu, eta bertan zehazten ditu Euskal Autonomia Erkidegoko ijitoen egoera hobetzeko egindako ekintzak. (Martín Sánchez, D., 2018).

2004an *Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako lehen Euskal Plana* onartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko ijitoen egoera hobetzeko helburuarekin. Plan hori hiru urteko aldiari buruzkoa izan zen, eta ijito-komunitatetik eta euskal administrazio publikoetatik sortzen diren erakundeekin lankidetzan garatu zen (Martín Sánchez, D., 2018).

2018an Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia onartu zen 2018-2020 aldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko ijitoen egoera hobetzeko. Estrategia hori hiru urteko aldiari buruzkoa izan zen, eta ijito-komunitatetik eta euskal administrazio publikoetatik sortzen diren erakundeekin lankidetzan garatu zen (Martín Sánchez, D., 2018).

2022an onartu zen azken Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia, eta gaur egun oraindik aktibo dago, 2022-2026 aldirako. Estrategia horrek, ijitoen kolektiboak jasaten duen diskriminazio historiko eta estrukturala gainditzea du helburu.

Euskal Autonomia Erkidegoko ijito-herriaren egoerari buruzko azterketa soziologikoak ere garatu egin dira; hala nola, "Análisis de la situación del Pueblo Gitano en la Comunidad

Autónoma del País Vasco”; horretan, Euskadiko ijitoen egoera eta ijitoen egoera hobetzeko egindako ekintzak zehazten dira (Eusko jaurlaritz, 2022).

#### **2.4. Estereotipoak eta aurreiritziak: Zer dira? Nola barneratzen ditugu?**

Ijitoengan dauden estereotipoetan sartu aurretik, modu argian azalduko da kontzeptua; eta baita, estereotipo kontzeptuarekin nahastu daitezkeen beste hitz batzuk ere. Oso garrantzitsua da termino bakoitza ondo eta zehaztasunez desberdintzea. Kasu honetan estereotipoa, aurreiritzia eta diskriminazioa zer diren azalduko da; izan ere, oso ohikoa baita estereotipo eta aurreiritzi hitzak sinonimotzat erabiltzea.

Estereotipoa pertsona, talde edo kolektibo batek beste bati buruz dituen alde aurretik pentsatutako ideia positibo edo negatiboetarako dagokie. Estereotipoa emozio edo zirrara biziz beteta dagoenean, emozio positiboak edo negatiboak izan, aurreiritzia eragin ohi du, hau da, "bestekiko" sentimenduz betetako jarrera. Diskriminazioak zenbait talderi eskubideak eta aukerak ukatzen edo murrizten dizkieten praktikak dakartza, beste batzuei ematen zaizkien bitartean. Beraz, tratu berezia diskriminazioaren kontzeptuaren funtsezko alderdi bat da. (Santos, 2014)

Aurreiritzia hitza RAEk, *Diccionario de la lengua española*, honela definitzen du hitza; “La acción y el efecto de prejuizar”, “prejuizar”, “juizar de las cosas antes del tiempo oportuno o sin tener de ellas cabal conocimiento” (RAE, 2024). Beste alde batetik, Allportek honela definitzen du: “una actitud suspicaz u hostil hacia una persona que pertenece a un grupo, por el simple hecho de pertenecer a dicho grupo, y a la que, a partir de esta pertenencia, se le presumen las mismas cualidades negativas que se adscriben a todo el grupo” (Allport, 1954).

Aurreiritziak bereziki arriskutsuak izan daitezke komunikabideen bidez (egunkariak, telebista, irratia edo sare sozialak) zabaltzen direnean. Talde bati buruzko alderdi negatiboak etengabe, kontrapisurik gabe, errepikatzen badira, iritzi publikoan eragina izan dezakete eta diskriminazioa eragin.

Diskriminazio horrek tirabirak sor ditzake taldeen artean, eta zenbait talderi eskubideak eta aukerak ere kendu diezaizkioke baita ere, jatorri etnikoa, larruazalaren kolorea edo erlijioa direla eta. Talde minoritario bateko kideak etengabe estigmatizatzen direnean, haien buruaren irudi negatiboa garatu eta gizartetik baztertuta senti daitezke. Historiak aurreiritzien arriskuak erakutsi dizkigu, politikariek edo gobernuek onura politikoak lortzeko edo neurri diskriminatzaileak hartzeko erabiltzen dituztenean, eta horrek zenbait talde baztertzea eta jazartzea ekar dezake. Horrela, aurreiritziak arriskutsuak dira gehinetan, zabaldu egiten baitira berez (Anne Frank House, d.g.).

Margarita del Olmo Pintado antropologoaren ikuspegitik, "prejuicio" kontzeptuak badu definizio propioa hitzean bertan gordea, eta erabat ados nago bere ikuspuntu horrekin. Aurreiritzia, iritzi bat sortu aurretiko ideia da, juizio bat egin aurretik sortutako ideia. Horrek, abantaila zein desabantailak ditu bere ustez. Ideia bat judizioaren aurretik eratzen denean, "hartutako" ideia izaten da. Testuinguru horretan, "hartutako ideia" izateak esan nahi du beste pertsona batzuegandik jasotzen dela, garrantzitsuena hautatuz esperientzia pertsonaletatik abiatuta eraiki beharrean. Galdera, beraz, izango da ea noiz eta zergatik hartzen ditugun ideia horiek. Horren inguruan sakondu eta zehaztuko da hurrengo puntuetan.

Etengabe gaude jendearekin harremanetan, eta, askotan, inguruko iritziak ere eragina dute gure ideietan. Horrela, beste pertsona batzuen ideia bat hartzen dugu eta geure egin dezakegu askotan. Haiengan konfiantza dugulako edo gai jakin bati buruz duten iritziagatik, autoritatearen edo sinesgarritasunaren oniritzia ematen diegu, eta horrek haien ideiak onartzera garamatza, aldeztu aurretik espererentziekin esperimendu beharrik gabe. Giza komunikazioa ideien transferentzia mota horren adibidez beteta dago.

Aurreiritziek hiru alderdi biltzen dituztela dio Ana Barajasek bere lanean, Ashmore, R.D. eta Del Boca, F.K.-ri erreferentzia eginez: (Ashmore, R. D., & Del Boca, F. K. , 1981)

- Kognitiboa, pertsona edo objektu bati buruz izaten diren sinesmenei buruzkoa.
- Afektiboa, pertsona edo objektu horrek eragiten dizkigun sentimenduei buruzkoa.

- Portaerazkoa, pertsona edo objektu horri egiten dizkiogun ekintzei buruzkoa.

Beraz, estereotipoak aurreiritzien osagai kognitibotzat har litezke; izan ere, pertsona edo talde baten ezaugarriei buruzko eraikuntza kognitiboak dira, normalean nortasunaren ezaugarriei buruzkoak, nahiz eta kategoria horretakoak bakarrik ez izan (Diaz-Aguado eta Baraja, 1988).

Aurreiritziak lortzea soilik ezkorra dela ezin da zehaztu. Margarita Del Olmoren ideietariko batek dio horiei esker besteen esperientzia metatu, eta geure egin dezakegula, eta horrek aukera ematen digula zabaltzeko esponentzialki dugun ulermena inguruneaz, pertsonaz eta haiekin ezartzen ditugun harremanez. Baieztapen hori hobeto ulertzeko Del Olmok honako adibide sinplea azaltzen du:

“Txikitan, amak asunak saihesten irakatsi zidan, eragin ziezadaketen kalteaz ohartaraziz. Botanika ikasi ez, eta asun bat nahita ukitu ez badut ere, kontu hori semeari helarazi diot. Prozesu horrek erakusten du ideiak belaunaldiz belaunaldi igaro daitezkeela, aldaketa esanguratsurik gabe.” (Del Olmo, 2005)

Adibide hori negatibotzat jo daitekeen arren, benetan kaltegarria al da ideia hori hartu izana? Asunekin dugun harremanaren arabera da. Horiek saihestea erabilgarria izan daiteke oso gutxitan aurkitzen baditugu, baina ez da nahikoa egunero haien eraginpean bagaude edo haiekin lan egiten badugu.

Aurreiritziak eskuratzeko prozesuak berarekin dakar objektuak edo pertsonak kategoria mentaletan identifikatzeko eta sailkatzeko ezaugarri esanguratsuak behin eta berriz behatzea. Sailkapen honen azken helburua portaera aurreikustea eta gure jokabidea horren arabera bideratzea da.

Laburbilduz, aurreiritziak besteengandik lortzen ditugun ideiak dira, eta gure portaera iragartzen eta bideratzen laguntzen diguten kategoria mentalak eraikitzeke erabiltzen ditugu. Aurreiritziak gizarte baten kultura nagusian erroto ohi dira, talde minoritarioekiko edo haien kideekiko bazterketa- eta sinplifikazio-pertzepzioak sendotuz. Egoera horrek tentsio eta



gatazka sozialak sor ditzake, aurreiritziak praktika baztertzailer bihurtzen badira eremu sozial, politiko edo kulturaletan.

Ijitoek lanaren, etxebizitzaren eta hezkuntzaren eremu horietan jasaten duten diskriminazioa oso lotuta dago ijitoei buruz dituzten aurreiritzi eta estereotipo negatiboekin (RTVE, 2022; La Vanguardia, 2016). Aurreiritziak aztertzea lagungarria da diskriminazio horren jatorria ulertzeko. Aurreiritziek gainera mesfidantza eta arbuioa sortzen dute ijito-komunitatearekiko, eta horrek zaildu egiten du ijitoen erabateko gizarteratzea. Beraz, hori kontuan izanda aurreiritziei heltzea funtsezkoa da benetako aukera-berdintasuna lortzeko.

Laburbilduz, aurreiritziak zer diren eta nola funtzionatzen duten ulertzeak aukera ematen du hobeto ulertzeko ijitoek jasaten dituzten estereotipoen eta diskriminazioaren sorrera funtsezko esparruetan, hala nola hezkuntzan, enpleguan eta etxebizitzan. Aurreiritziak gainditzea lehenengo urratsa da diskriminazio-lagin oro desagerrarazteko\*\* eta aniztasunarekiko tolerantzia eta errespetua sustatzeko (La Vanguardia, 2016). Kontzeptu hori aztertzea funtsezkoa da gizarte bidezkoago eta inklusiboago baterantz aurrera egiteko.

Dagokigun ikerketaren gaia zein den kontuan izanda, eta helburura itzulita; oinarrizkoa da aurreiritzien kontzeptua ondo azaltzea. Izan ere, aurreiritziek nola funtzionatzen duten aztertzeak ijitoekiko estereotipoak eta diskriminazioa nola sortzen diren hobeto ulertzea ahalbidetzen du. Horrela, testuingurua ezagututa, eta politikak eman beharreko pausoak ikusita, politika aurrerakoiagoak egin ahal izango dira diskriminazioaren alorrean.

Aurreiritzien faseak ikusita, (kognitiboa, afektiboa eta portaerazkoa) ijitoenganako aurreiritzi eta estereotipoak hiru kategoria horiekin batera aztertzen badira; gerora, esku-hartzea efikazagoa izango da. RTVEk (2022) idatzitako artikuluan jasotzen dira ondoren esandakoak:

Aurreiritziaren hiru eremuak —kognitiboa, afektiboa eta jokabidezkoa— elkarri lotuta daude eta elkarri eragiten diote. Kognizioak estereotipoak sor ditzake, eta horiek emozio negatiboak eta jokabide diskriminatzaileak sor ditzakete (Carmona, 2022).

Fase kognitiboa funtsezkoa da estereotipoak nola sortzen diren ulertzeko. Gizabanakoek aurreiritzia sortzen dute bizitako egoeren bidez, nahiz eta oinarririk gabe orokortu eta kasuak nahikoak ez izan. "Pertsonak oroitzapen pertsonal gutxi batzuk aukeratzeko, zurrumurruekin nahasten ditu eta gehiegi orokortzen ditu" (Allport, 1954, 21. or.; Carmona, 2022). Fase afektiboa funtsezkoa da ijitoekiko emozio negatiboak nola sortzen eta mantentzen diren ulertzeko (Carmona, 2022). Ekintza-fasea funtsezkoa da aurreiritziak jokabide diskriminatzaileetan nola islatzen diren ulertzeko. Gizabanakoak prest egon daitezke exotaldeko kideekiko modu jakin batzuetan jokatzeko, hau da, diskriminazioa (Carmona, 2022). Aurreiritziaren hiru faseak aztertzeak horien konplexutasuna eta elkar nola erlazionatzen diren ulertzea ahalbidetzen du. Hori funtsezkoa da ijitoekiko aurreiritziei eta diskriminazioari aurre egiteko estrategia eraginkorrak diseinatzeko.

Aurreiritzi mota asko daude, Gomezen *Prejuicios. Enciclopedia de ejemplos* (Gómez, M.I, 2016) argitalpean horietako batzuk: jatorria, generoa, arraza, sexua, politika, klasea, itxura, adina, etnia, erlijioa, hezkuntza, hizkuntza... kontuan duten prejuizioak izan daitezke. Lan honi dagokionez, ijitoekin zerikusia dutenak aztertuko ditugu, eta ez dira bakarrik arraza edo etniaren ingurukoak izango. Izan ere, klasea, hezkuntza, lana, hizkuntza... arloetan ere aurreiritziak eta diskriminazioak jasaten dituzte ijitoek.

#### **2.4.1. Estereotipoa**

Estereotipoek, aurreiritziek bezala, zeregin garrantzitsua betetzen dute giza komunikazioan, eta, beraz, horiek eskuratzen, sortzen, mantentzen eta transmititzen ahalegintzen gara. Estereotipatzeak berarekin dakar ideiak oro har sinplifikatzea eta beste batzuegandik lortutako kategoria batekin lotzea, eta aurreiritziak ere izan ditzake. Estereotipo horiek, nahiz eta beti negatiboak ez izan, pertsona-taldeei egotzi ohi zaizkie, eta kategoria horretakoen portaeraren irudi sinplifikatua ematen dute (Del Olmo, 2005).

Aurreiritziek ez bezala, estereotipoek ez dute zertan karga emozional negatiboa izan, eta balorazio neutroak edo positiboak izan ditzakete. Hala ere, konplexuagoak dira,

kategoria jakin batean pertsonen portaera ezaugarritu nahi dutelako eta, askotan, talde horrekin dugun harremana islatzen dutelako.

Lagun arteko elkarrizketa arrunt batean ere, bakoitzak dituen estereotipoak nahigabe azaleratzen ditugu, konturatu gabe. Adibidez, lagun batek besteari bere auzoko ijitoak alperrak direla aipatzean, entzuten dagoenak barneratu egingo du. Elkartruke horrek estereotipoak nola transmititzen diren erakusten du; izan ere, partekatzen dituztenen autoritateaz edo esperientziaz fidatzen gara. Gainera, estereotipoak gizartean partekatzen dira, eta talde horrekin esperientzia pertsonalik ez duten pertsonak har ditzakete.

Garrantzitsua da ulertzea estereotipoek ez dutela soilik talde bateko kideei buruzko informazioa ematen, baita gurearekin duten portaerari buruzkoa ere. Del Olmo adibide bat ematen du. Lagunarteko elkarrizketa batean batak besteari esaten dio "hotzak" direla ingelesak, harreman pertsonalak hastea zaila egiten zaiela eta kontaktu fisikoa saihesten dutela. Aldiz, norvegiarrek britainiarrek "berotzat" jotzen dituztela aipatu zuen, eta harremanak izateko eta komunikatzeko erraztasuna nabarmentzen zuen. Kasu honetan, lagunak Eskozian egokitzeko zituen zailtasunez hitz egiten zuen, Madrilgo bizitzarekin alderatuz, eta horrek bere esperientzia pertsonala islatzen zuen, baina norvegiarrei buruzko estereotipoekin ere baliozkotzen zuen (Del Olmo, 2005).

Estereotipo horiek onartuko balira, pertzepzioan eta portaeran eragina izan lezake, adibide berdina jarraituz, entzuten zegoen lagunak Ingalaterrara egin zuen lehen bidaiari, harremanak ezartzeko zailtasunak herrialde horretako pertsonen ustezko "izaera" bati egotziz. Pertsonen arteko harremanak hainbat faktoreren arabera izan daitezkeen arren, estereotipoek azalpen sinplifikatua ematen dute, eta horrek eragina izan dezake gure pertzepzioan eta portaeran.

Estereotipoek, pertsona-taldeen irudikapen sinplifikatuak eta orokortuak direnez, gizartearen eta bizitzaren edozein arlotan agertzen dira. Ezaugarri horietako bat zuzeneko egiaztapenik eza da; izan ere, bigarren edo hirugarren eskuko adierazpenak izan ohi dira, talde edo herrialde bakoitzaren iruditeria sozialean eta eredu kulturaletan errotoak. Egiaztapen-falta hori are larriagoa da sinplista delako, eta batzuetan ez delako zuzena; eta

horrek eragina du "bestearekiko" eta, oro har, munduarekiko dugun harremanean (Fernández-Montesinos, 2016).

Estereotipoak automatikoki errepikatu eta elkartu ohi dira, eta gizarte-egoera jakin batzuetan pentsamendu ia derrigorrezkoa bihurtzen da. Ideien elkarketa automatiko horrek esan nahi du ideien erabilera ia automatiko eta beharrezko bihurtzen dela, eta horrek zaildu egiten du ideiei uko egitea, eta ahalegin kontzientea eskatzen du haien eragina eragozteko (Fernández-Montesinos, 2016).

Askotan, estereotipoak erabiltzen dituztenak ez dira horretaz jabetzen. Aipatu bezala, gizarte-irudikapen horiek errotuta dauden gizarteko kideek onartutako egia gisa agertu ohi dira. Hirugarren batengandik hartutako ideiak dira, esperientzia pertsonalik gabekoak eta oinarri fidagarri gabekoak. Hala ere, estereotipoen gaitzespen kontzientea funtsezkoa da estereotipoak desnaturalizatzeko eta haien eraikuntza artifiziale salatzeko.

Estereotipoak kontzienteki errefusatzeko eta eraikuntza artifiziale salatzean, desnaturalizatu egiten dira eta erakusten dute ez direla egia objektiboak, baizik eta zalantzan jarri eta alda daitezkeen eraikuntza sozial eta kulturalak (UVa, 2024; Moreno 20-21). Horregatik, estereotipoak nola funtzionatzen duten ikertuz eta ondorioak gizarteratuz lor daiteke estereotipoak desnaturalizatzea eta apurtzea. Horretaz gain, gaitzespen kontzientea gizarteratuz, inklusioa eta aniztasunarekiko errespetua sustatuko lirateke, ez baitira orokortzeak onartzen eta ijito bakoitzaren indibidualtasuna aitortzen baita (UVa, 2024).

Gainera, estereotipoak kritikatu edo ikerketak eginez, konstrukzio artifiziale bat direla baieztatu ahal izango da, eta hezkuntza kritiko eta gogoetatsua sustatu. Estereotipoak kritikatu, gainera, kritika, hausnarketa, enpatia eta ulermena garatzen dira, orokortzeak onartzen ez direlako, eta pertsona bakoitzaren indibidualtasuna aitortzen delako (Moreno, 20-21).

Hori horrela, jitoei buruzko estereotipoak kontzienteki baztertzea funtsezkoa da ideia okerrak desnaturalizatzeko eta izaera artifiziale salatzeko; horri esker, uler daiteke ez direla errealitate objektiboa, baizik eta eralda daitezkeen gizarte-eraikuntza bat. Horrek inklusioa, aniztasunarekiko errespetua eta ijito-komunitatearekiko begirada kritiko eta enpatikoa

sustatzen ditu. Gerora sortuko diren politiketan ere eragina izango du, estereotipoak apurtzea ekar dezaketelako.

Garrantzitsua da azpimarratzea estereotipoen salaketa oso gutxitan etortzen dela gizatalde handietatik, estereotipo horiek identitate kolektiboan errotuta egon ohi baitira. Gainera, estereotipoek masa bera irudikatzen dute, eta horrek zaildu egiten du barrutik zalantzan jartzea. Dinamika horrek egoera anbigua sortzen du, eta estereotipoak eraikuntza sozialak izan arren, gizabanako isolatuek salatu ohi dituzte (Fernández-Montesinos, 2016).

Beraz, estereotipoak gizarte-eraikuntza gisa aztertzeak agerian uzten du gizartean onartutako arau eta balioetan errotuta daudela. Ikuspegi horri esker, hobeto uler daiteke estereotipoek nola eragiten duten gizarte-elkarreraginetan, eta nola desafiatu eta alda daitezkeen, giza aniztasunaren ikuspegi bidezkoagoa eta bidezkoagoa sustatzeko.

#### **2.4.2. Nola eragiten diote ijito herriari estereotipoek eta aurreiritziek**

Talde etniko minoritario batek **arrazakeria** jasan dezake, eta honela definitzen du Espainiako Errege Akademiaren hiztegiak: “Creencia que sostiene la superioridad de un grupo étnico sobre los demás, lo que conduce a la discriminación o persecución social” (RAE, 2024).

Lehenago, ordea, hau zen arrazakeriaren definizioan aurkitzen zena: “Exacerbación del sentido racial de un grupo étnico que suele motivar la discriminación o persecución de otro u otros con los que convive”. Horixe izango litzateke Espainiako ijitoen kasua; izan ere, herritar gehienek gogoan dauden aurreiritzien eta estereotipoen arabera sailkatzen dira ijitoak, ijito ez direnek sortutako ideien arabera (Moreno, 2020-2021).

Emandako RAEko arrazakeriaren definizioak hainbat kritika jaso izan ditu. Batez ere, definizioak ez dituelako diskriminazioaren hainbat alor kontuan hartzen.

Del Olmok (2005) bere lanean estereotipoak hobeto ulertzeko bere egunerokotasuneko esperientzia bat azaltzen du:

Behin, elkarrizketa berezi bat izan zuen auzoko lore-saltzailearekin, harekin harreman informal eta atseginak izaten baitzituen. Elkarrizketa bere dendan gertatutako gertakari baten ingurukoa izan zen. Bezero batek 50 euroko billete batekin ordaindu zuen, eta errotuladore berezi bat erabiliz billetearen benetakotasuna egiaztatzeko beharra sentitu zuen. Normalean ez zuen neurri hori hartzen konfiantzazko pertsonekin. Iraganean birritan iruzur egin ziotela azaldu zuen, horietako bat emakume ijito batek, baina argitu zuen ez zuela uste haren etnia izan zenik jokabidearen arrazoia, baizik eta "persona txarra" zela. Bigarren aldian, ondo jantzitako gizon batek engainatu zuen. Nagusiaren lagun gisa aurkeztu zen, eta dirua eskatu ondoren desagertu egin zen. Gertaera hark harridura eragin zion, lapurrak gaizki jantzitako pertsonekin lotzen zituen estereotipoa hautsi baitzuen.

Elkarrizketa horretan, lore-saltzailea Del Olmorekin, ohiko bezeroarekin, konfiantza berreskuratzen saiatu zen, eta aurreko bezeroarekin ez fidatzeko arrazoiak azaldu zizkion. Hala ere, saltzailearen diskurtsoak agerian utzi zuen aurreiritzi eta estereotipoetara jotzeko joera besteen portaera ulertzeko eta iragartzeko. Saltzaileak bereziki, bi talde bereizi aipatu zituen: ijitoak eta ondo jantzitako pertsonak.

Lehenik eta behin, iruzurraren eta ijito-etniaren arteko elkarketa aipatzean, inkontzienteki indartu egin zuen estereotipoa. Iruzurra egin zuen pertsonaren etnia aipatzeak, nahiz eta ondoren estereotipoa esplizituki ukatu, haren baliozkotze inplizitua iradokitzen du.

Bigarrenik, lapurren ideia gaizki jantzitako pertsonekin lotzean, eta gero ongi jantzitako norbaitek iruzur egiteagatik harritzean, aurreiritzi errotua agertu zuen. Lotura horrek itxura fisikoaren eta zintzotasunaren artean erabakiko luke, lehen, estereotipo eta aurreiritziaren definizioetan aipatu bezala, errealitatearen sinplifikazio bidegabea islatzen baitu eta judizio okerrak ekar ditzake.

Eguneroko gertakari baten azterketa honek gure gizarte-interakzioak gidatzeko estereotipoetan eta aurreiritzietan konfiantza izateak dituen arriskuak argitzen ditu. Edozein gizatalderen ezegonkortasuna edo aldatzeko gaitasuna hain da zabala, ezen portaera indibiduala aurreikusteko estereotipoak aplikatzea ez baita eraginkorra eta bidegabea.

Gainera, estereotipoak erraz manipula ditzakete gure usteak ustiatu nahi dituzten pertsona maltzurrek. Laburbilduz, funtsezkoa da estereotipoak eta aurreiritziak ez erabiltzea, gizarte bidezkoagoa eta ulerkorragoa sustatzeko elkarreraginean.

#### **2.4.3. Bestelako eraginak: aurreiritziei buruzko barometroen inkesten berezko arrazismoa**

Orain arte azaldu bezala estereotipoak eta aurreiritziak gizartean errotuta daude. Aurreko atalean azaldutako eguneroko esperientzietan ez ezik, elkarrizketetan, komentarioetan..., estereotipoak momentu oro, eta egoera serioagoetan ere agertzen dira. Ez da harrizkoa, beraz, estereotipoak azaldu eta argitu nahi dituen lan batean, gainditu nahi diren hartutako ideia horietan jaustea. Ez da harrizkoa gizartean errotuta daudelako; baina horregatik ikerketa gehiago egin behar da aurreiritziez eta estereotipoez, eta gehiago zehaztu lan horietan. Ez da bidezkoa kolektibo minorizatu bati eragiten dioten ideia negatibo batzuk gainditu nahi dituen lan batean ere estereotipo errotuak inplizituki agertzea.

Hori da, adibidez, Immigrazioaren Euskal Behatokiak ijitoekiko pertzepzioaren gaineko *Neurtu 2022* txostenean (Ikuspegi, 2023) egindako akatsa eta jasotako kritika, Amuge elkarteko lehendakariak, Tamara Clavería Jimenezek, azaldu zuenez.(Jimenez, 2024) Amuge elkarte atal enpirikoan landuko da zehatzago; izan ere, elkarrizketatua, Violeta Perez, bertako kidea da. Baina era orokor batean zehazteko, Euskadiko emakume ijitoak bultzatzeko eta ahalduntzeko kulturarteko elkarte da. 2023ko otsailean sortutako emakume ijitoen elkarte aitzindaria izan zen Bizkaian. Ijitoen komunitatearen eskubideak eta garapen integrala babestea da elkartearen misio orokorra, eta, zehazki, EAEko emakume ijitoen sustapena eta ahalduntzea bilatzen dute, betiere haien berezitasun etnikoak eta kulturalak galdu gabe (Amuge,d.g.).

Azterketa soziologikoen testuinguruan, funtsezkoa da zalantzan jartzea gehiengo sozialei historikoki diskriminatutako taldeei buruzko balio-judizioak emateko eskatzea. Ikuspegi horrek kultura hegemonikoan errotutako aurreiritzizko diskurtsoak indartu ditzake. Inkestetan egiten diren galderen orientazioak eragina izan dezake emaitzetan eta

estereotipoak iraunarazi. Implizituki estereotipoak errotu egin daitezke galderaren formulazioaren arabera.

Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak urtero egiten du atzerritarrekiko pertzepzio eta jarrerari buruzko barometroa, eta, 2023ko urtarrilean, ijito-herriari buruzko lehen azterlana aurkeztu zuen. Aniztasuna ulertzeko eta diskriminazioak deslegitimatzeko urrats positiboa bada ere, ijitoekiko pertzepzioei eta jarrerari buruzko *Neurtu 2022* txostenaren azterketak kritikak jaso ditu metodologiagatik eta ikuspegiagatik. Aipatutako Amuge elkarteak ez ezik, Jokin Aspiazu Carballok, EHUko soziologoak, *Zabaldur* *“Dimensiones desde la desigualdad”* monografikoan kritikatu du berdin pasatzen zela *Neurtu 2021 EAEko aniztasunari buruzko barometroa Sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak* argitalpenean (Shershneva, 2023).

*Neurtu 2022* txostenaren galdetegiak ijitoen kulturari eta ohiturei buruzko balio-irritziak ematera gonbidatzen ditu herritarrak, nahiz eta inkestatu gehienek ijitoekin harreman gutxi edo batere ez izan, eta horrek estereotipo negatiboak indartzen eta komunitate horren pertzepzioa desitxuratzen lagun dezake. Askotan, zerbaiten inguruko iritzia eskatzen diogu gaiaren inguruan inferentziak besterik ez dituen herritar bati, galdeketa horren emaitzak ez dira errealak izango. Gehiengo sozialei boterea ematen baitielako, baztertutako gizarte-taldeak epaitzeko. Talde subalternizatuekiko sinpatia edo tolerantzia neurtzeko joera egoten da horrelako ikerketetan, aurrez aurre dauden egiturazko indarkeriei heldu beharrean (Jimenez, 2024). Hau da, azpiratuta edo zapalduta dauden taldeenganako gizarteak dugun tolerantzia neurtzen da; adibidez, “nola erreakzionatuko zenuke zure auzokidea ijitoa dela jakinarazten badizute?”, edo “eskala batean zenbateko garrantzia edo inportantzia emango zenioke zure auzokidea ijitoa izateari?” Galdera horiek ijito ez direnak gainetik ezartzen ditu eta ijitoenganako aprobazioa edo duten “errespetu” maila neurtzen da. Etnia subalternizatuen edo gutxituen inguruko lan edo ikerketak egin direnetan kritikatzeko da aurreiritzi hedatuak desmuntatzeko elementurik eza, hala nola antigitanismoa desmuntatzeko, eta planteatzen da beharrezkoa dela pertsona arrazializatuen ikuspegia ikerketetan sartzea.



Azaldutako guztiagatik, Ikuspegik, inmigrazioaren euskal behatokiak, ez du kontuan hartzen Nazio Batuek *Giza Eskubideetan oinarritutako Datuen Ikuspegia* txostenean egiten duten oharra: biztanleria espezializatuaren inkestek "ez dute diskriminaziorik, aurreiritzirik edo estereotiporik sortu behar, biztanleria-talde jakin batzuen kaltetan, ez eta lehendik daudenak indartu ere" (Clavería, T. 2024).

Hobeto ulertzeko, Nazio Batuen *Giza eskubideetan oinarritutako datuen ikuspegiak (2018)* giza eskubideen babes eta sustapena hobetzeko datuak biltzea eta aztertzea du ardatz. (Ikuspegi behatokia Nazio Batuen Estatistika Ofizialen Oinarrizko Printzipioetan eta GIHetarako (Garapen iraunkorrerako helburuak) Giza Eskubideen Gidan oinarritutako datuen ikuspegiak dio: datuak biltzeaz arduratzen diren pertsonak erabiltzaileek egindako edozein analisi okerren aurka egiteko askatasuna izan behar dute. Hori bat dator Nazio Batuen Estatistika Ofizialen Oinarrizko Printzipioen 4. printzipioarekin (Naciones Unidas Derechos humanos, 2018). "Principio 4: Prevención del mal uso. Los organismos de estadística tienen derecho a formular observaciones sobre interpretaciones erróneas y la utilización indebida de las estadísticas" (Naciones Unidas, d.g.). Horrek esan nahi du datuak bildu dituen erakundeak zuzendu ditzakeela modu okerrean erabilitako datuak edo ikerketak; beraz, zuzendu ditzake datuak gaizki interpretatzea ekar dezaketen ikerketak. Ondorioz, Ikuspegik egindako lana zuzendu ahal izango luke, eta zuzenduta argitaratu txostena.

Era berean, Giza eskubideetan oinarritutako datuen ikuspegia aipatzen du txostenak; datuen pribatutasuna eta segurtasuna errespetatzeko ezaugarri pertsonalei buruzko datuak, datu horiek aipatzen dituzten pertsona edo elkarrizketatuengandik etorri behar direla. Datu-bilketa giza eskubideen printzipioari "kalterik ez eragiteko" moduan egokituta egin behar da (Naciones Unidas Derechos humanos, 2018). Hau da, ijitoen inguruko ikerketetan ijitoen ahotsa ere txertatu behar da. Ikuspegi behatokiaren ikerketan ez dago ijitoen presentziarik, eta, Amugek salatu bezela, ikertzaile gizon zurien parte hartzea baino ez da egon:

“Tal vez se habrían tenido en cuenta estos elementos si Ikuspegi hubiera sumado a su equipo colaborador a investigadoras gitanas como Patricia Caro Maya, Pastora Filigrana, Nicolás Jiménez, Helios F. Garcés, Araceli Cañada Ortega, entre otras. Sin embargo, eligió a dos hombres académicos blancos, reforzando así el prejuicio de que no hay personas racializadas con cualificación para asesorar investigaciones académicas.” (Jimenez, 2024)

Gainera, azaltzen da Nazio Batuen txostenean, parte-hartzea *Giza eskubideetan oinarritutako datuen ikuspegiaren* elementu nagusia dela. Identitate pertsonalen datuak, hala nola sexu-orientazioa, identitate etnikoa eta genero-identitatea, interesdunen —kasu honetan ijitoen— berariazko baimenarekin tratatu behar direla (The Danish Institute for Human Rights, 2017).

Antigitanismoari eraginkortasunez heltzeko, ijitoen jakintza eta erresistentziekiko ikaskuntza-jarrera hartzea iradokitzen da, ezjakintasuna eta aurreiritziak indartu beharrean. Horretarako, azterketa soziologikoen oinarri metodologikoak eta epistemologikoak berrikusi beharko lirateke, eta ikuspegi kritiko eta parte-hartzaileak txertatu, justizia soziala eta giza aniztasunaren onarpena sustatzeko (Jimenez, 2024).

Aurreiritziak indartzen direla aipatzen da, askotan inkesta instituzionaletan; adibidez, honelako galderak egiten dizkizutelako: "Zure ustez, zuriak besteak baino gatazkatsuagoak, zintzoagoak edo langileagoak dira, edo gutxiago dira?" Horregatik, ikerketa soziologikoetan errotutako praktika bat zalantzan jartzen dute aditu batzuek: gehiengo sozialei historikoki diskriminatutako taldeei buruzko balio-judizioak eman ditzatela eskatzea (Clavería, 2024).

Galdera horretan ikus dezakegu azpiratutako etnien kontrako estereotipoa dagoela erroan; izan ere, zuzenean esaten da galderan beste etnia batzuei negatiboki aipatzen zaizkien ezaugarriak, langilea (kasu honetan, ijitoak alfertzat hartzen dira gizartean) edo zintzoa (ijitoak maltzur eta delitugileen estereotipoa dute).

Hauek dira *Neurtu 2022* txostenean agertzen diren galderetariko batzuk:

- “P24. Piense Ud. en una escala de tolerancia hacia las personas gitanas, ¿dónde se ubicaría Ud., donde 0 es “totalmente intolerante” y 10 “muy tolerante”?” (Ikuspegi, 2023).
- “P19. En una escala de 0 a 10, ¿cuál es su impresión del grado de integración de las personas gitanas? Teniendo en cuenta que 0 significa nada integradas y 10 totalmente integradas” (Ikuspegi, 2023).

Orain arte aipatu bezala, ikus dezakegu galdera horietan adierazten den ijitoenganako estereotipoa eta diskriminazioa. Hasteko, ijitoak ez diren pertsoneri egiten zaie galdera, eta, gainera, haienganako tolerantziaren edo integrazioaren gaiaz galdetzen zaie.

Modu beretsuan, hamahirugarren galderak honela dio:

- “P13. ¿Cree que las personas gitanas son discriminadas en estos ámbitos?” (Ikuspegi, 2023).

Diskriminazioari buruz galdetzen zaie payoei; bada, zer erantzungo du politikoki egokia dena jarraitzen duen gizarte bateko pertsona zuri batek azpiratutako etnia bati buruz? Argi dago inkestatuek ez dutelako egia borobila esanez erantzungo, ez diskriminatzaile gisa agertu nahi ez badute behintzat. Gainera, beharbada, diskriminazioa agerian egonagatik ere, ez dira ikusteko gai. Ijitoak ez badira, ez dute diskriminazio mota hori jasan, eta ez du zentzurik haiei galdetzea horri buruz. Argi ikusten da nola ez diren errespetatzen Nazio Batuek aipatutako helburu edo neurriak, eta nola ikerketek, askotan, ez duten ijitoen presentzia sustatzen.

Azaldutako horregatik guztiagatik, nola ez, lan honetan ijitoen ikuspegia eta ahotsa txertatzea erabaki da aurrerago ikusiko dugun bezala. Ikuspegi horretan, inkesten barometro arrazisten gaia jorratuko da berriro ere, Violeta Perez emakume ijitoari horri buruz galdetuko zaio.

## 2.5. Estereotipo nagusiak

Behin estereotipo eta aurreiritziak zer diren azalduta, ijito herriari egozten zaizkion estereotipo nagusien ikerketa edo azalpen bat emango da jarraian. Estereotipo hauek dira ijitoekin eralzionatzen direnak gehienetan.

“Fundación Secretariado Gitano”k baditu hainbat ikerketa eta barometro minorien inguruan. Fundazio horrek, FSGk, argitaratutako “Discriminación por origen racial o étnico por parte de sus potenciales víctimas en 2020” lanaren laburpen exekutiboan, ijitoenganako diskriminazioari buruz hainbat datu agertzen ditu, eta, horiek ikertuta, argi dago etxebizitza eta lana direla ijitoak diskriminazio gehien jasaten dituzten esparruak.

Arraza edo Etnia Diskriminazioa Ezabatzeko Kontseiluak (CEDRE) 2020an egindako arraza- edo etnia-jatorriagatiko diskriminazioari buruzko ikerketa berrienak agerian uzten du inkestatutako talde guztien artean ijito-biztanleriak duela diskriminazio-maila handienetakoa (Red2red, 2020). Ikerketaren arabera, inkestatuen % 43k dio diskriminazioren bat jasan izan duela azken 12 hilabeteetan. Horrek barne hartzen ditu bereizkeria interseksionaleko moduak, bereziki emakume ijitoei eragiten dietenak. Arlo espezifikoetarako dagokienez, emaitzek erakusten dute ijitoak direla kaltetuenak etxebizitza eskuratzeko (% 31), bizilagunen gaitzespenean (% 8), establezimendu edo espazio publikoetarako sarbidean, ondasun eta zerbitzuertarako sarbidean (% 31) eta enplegu-aukeretan (% 30). Gainera, azterlanaren arabera, ijito-komunitatearen barruko diskriminazio-kasuen azpigerregistro tasak oso altuak dira: azken 12 hilabeteetan diskriminatuak izan zirela adierazi zuten ijitoen % 11,5ek soilik adierazi zuten kexa, erreklamazio edo salaketa bat aurkeztu zutela, inkestatutako talde guztien % 18,2ren aldean.

### 2.5.1. Ez dute lan egin nahi

Espainiako ijitoen lanari, okupazioari eta enpleguari buruzko kezka nagusiez gain —kualifikazio eta prestakuntza txikia, esaterako—, garrantzitsua da kontuan hartzea Espainiako ijito-biztanleria ijitoa ez dena baino gazteagoa dela. Ijitoen % 29,4k 16 eta 24

urte bitartean ditu; ordea, ijito ez direnen % 12,9 bakarrik dago adin-tarte horretan. Gainera, ijito aktiboen % 29,7k 25 urte baino gutxiago ditu, gainerako biztanleen % 11,1en aldean. Hala ere, nahiz eta 24 urtera arteko ijitoen jarduera-tasak konparatiboki altuagoak izan lan-merkatuan goiz sartzeagatik, jarduerarik eza edo jarduera “homologaturik” eza izugarri handitzen da adin horretatik aurrera (del Pozo, 2006).

Garrantzitsua da kontuan hartzea genero-alborapena emakumeak lan-merkatuan ez sartzean, baina datu horien fidagarritasuna ere zalantzan jar daiteke. Baliteke ijitoak aitortu gabeko ekonomia informalean lanean aritzea, ez-aktibo egon beharrean. Izan ere, oso ohikoa da ijitoek familien negozioetan sartzea eta horren berri ez ematea lan gisa. Oro har, ijitoen jarduera-tasa, 16-65 urteko taldea kontuan hartuta, Espainiako biztanleria osoarena baino zertxobait handiagoa da. Hala ere, itxurazko antzekotasun hori ijitoen artean dauden azpiokupazio-indize handiengatik distortsionatuta dago, familia-negozioetan laguntzen duten pertsonen kopuru esanguratsuagatik eta lanaldi osoan lan egiten duten pertsonen eskasiagatik.

Azpiokupazioak agerian uzten du ijito-komunitatea lan-merkatu arautuan eta baldintza berdinetan erabat integratzeko oraindik egin behar den aurrerapausoa. Bi populazio aktiboen arteko aldeak esanguratsuak dira: Espainiako biztanleria osoko langileen % 73,2 besteren kontura ari da lanean, baina ijitoen % 44 baino ez dago egoera horretan (del Pozo, 2006). Gainera, behin-behinekotasuna askoz ere handiagoa da ijitoen artean besteren konturako langileen artean. Bestalde, Espainiako biztanleria osoarekin alderatuta, ijito-biztanleriaren proportzio handi batek autonomo gisa edo familia-negozioetan lan egiten du.

Ijitoen artean ohikoenak merkataritza, kalez kaleko salmenta eta nekazaritza dira, eta horrek agerian uzten du jarduera horietan kualifikaziorik eta prestakuntzarik ez dagoela. Enpleguari buruzko adierazleek kezka adierazten badute ere, ez dugu ondorio sinplistik atera behar ijitoak ez diren biztanleekin alderatuz gero.

Lanaren eta enpleguaren kontzeptua dinamikoa da, eta denborarekin, espazioarekin eta etniarekin aldatzen da. Hortaz, esan daiteke lanaren inguruko estereotipoak ez direla

finkoak, eta badagoela estereotipo horiek kontzienteki desgaitzeko aukera bat eta erakusteko estereotipoak ez datozela bat errealitatearekin askotan. 50eko hamarkadaz geroztik, enpleguan izandako eraldaketek, hala nola ekoizpenaren malgutasunak, hirugarren sektoreratzeak eta emakumeen laneratzeak, ijitoei eragin diete, eta lan-merkatuaren ezaugarri berrietara egokitu behar izan dute. Lan-errealitate berriak asimilatzeko eta horietara egokitzeko erresistentziaren testuinguruan gertatu da hori; izan ere, lan-errealitate horiek bat egiten dute lanbide tradizionalen ezaugarrietako batzuekin, baina bestelako esanahia dute gaur egun.

Azalpen eta datu horiek ikusita, esan dezakegu ijitoek lan egiten dutela baina ez dituztela gainerako biztanleen baldintza eta egoera berdinak. Horrela, esan daiteke lan ez egitearen estereotipoa ez dela guztiz egiazkoa: nahiz eta lan kontratu luze eta espezializatuetan ez egon, bai jarduten dute lanean familiako negozioetan .

Ijito komunitateak hainbat diskriminazio praktika jasaten ditu, eta bereziki lan esparruan jasaten dituztenak hurrengo hauek dira: lan merkatuan sartzeko oztopoak, lanbide eta okupazio heziketan sartzeko oztopoak eta baita diskriminazioa lanaren garapenean eta lantokian (Cortés, 2014). Ijito-komunitateak lan-esparruan dituen diskriminazio-praktika nagusiek zenbait erronka esanguratsu hartzen dituzte beren baitan, lan-merkatuan eta garapen profesionalean erabat parte hartzea oztopatzen dutenak.

Oztopoak lan-merkatuan sartzeko: ijito-komunitateak oztopo nabarmenei egin behar die aurre lan-merkatuan sartzen saiatzean diskriminazioaren erruz, eta horrek zaildu egiten du enplegua modu zuzen eta bidezkoan aurkitzeko gaitasuna.

Lanbide-heziketan eta bertan sartzeko oztopoak ere jasaten dituzte. Lanbide-heziketako eta okupazio-heziketako aukerak ez eskuratzeak mugatu egiten ditu ijito-komunitateko kideentzako trebetasunak garatzeko eta hezteko aukerak, eta horrek, aldi berean, eragina du haien enpleguari eta lan-aurrerapenari buruzko ikuspegietan.

Lantokian ere, modu zuzenean jasaten dute diskriminazioa. Ijito-komunitateko kideek enplegua lortzen dutenean, askotan diskriminazioari aurre egin behar izaten diote lantokian,

tratu desberdina, sustapenerako aukerarik eza eta laneko jazarpena jasoz; horrek, lan-giro kaltegarria sortzen du.

Jardunbide diskriminatzaile horiek ijito-komunitateak lan-eremuan dituen desberdintasun eta aurreiritzi iraunkorrak islatzen dituzte, eta gai horiei premiaz heltzeko beharra dagoela ere erakusten dute, aukera-berdintasuna eta laneratzea sustatzeko.

Jardunbide horiek ez dira soilik lan eremura mugatzen, lana ez lortzeak eragin zabalagoak ditu ijitoek bizitza osotasunean eraman ahal izateko. Izan ere, lana da gaur egun kapital ekonomikoa zein soziala ematen duena eta lanik gabe bizitzea ia pentsaezina da.

Ijito-komunitateak enpresa-ingurunean duen ordezkartza faltak pertsona nagiak direla eta gizartean erabat integratu nahi ez dutelako ideia sendotzen laguntzen du. Pertzepzio horrek mugatu egiten ditu komunitateko beste kide batzuekin elkarrekintzan aritzeko aukerak, gizarte-harremanetarako eta kulturen arteko komunikaziorako espazio sozial esanguratsuenetako batean (Cortés, 2014).

Galarza, Kogan eta Yamadak (2012) bere egiten dute diskriminazio estatistikoaren teoria, zeinak iradokitzen duen gizabanako baten lan-produktibitateari buruzko informazio mugatuko testuinguruetan langileak beren taldearen batez besteko produktibitate-mailari buruz aurrez pentsatutako ideietan oinarrituko direla. Horrela, enplegatzaileak informazio behagarriko piezak erabiliko ditu (hala nola arraza, itxura fisikoa, jatorrizko abizena) talde jakin bateko gizabanakoaren produktibitate esperagarriari buruzko estatistika inferentzia bat egiteko. Hori oinarri hartuta, lanpostu jakin baterako kontratatze edo ez kontratatze erabakia hartuko da. Kasu honetan, argia da, ijito, alfer eta gaizkileei buruzko estereotipoa dagoela, baina datuetan ikusi dugunez, inferentzia hutsa dira; ezin da komunitate oso baten ezaugarritzat kontsideratu (Santos, M. 2014).

Bestalde, ijito askorentzat, lanaren kontzeptua bizimodua ateratzea da, familiako kide desberdinen artean egindako jardueren eta urteko hainbat garaitan egindako jardueren bidez, ijitoak ez direnen artean ohikoena den enplegu tradizionalaren ideiarekin kontrastean. Lanaren ikuspegi horretan hirugarren batentzako lana egitearen aurkako erresistentzia

tradizionalak eragina du, baita azkar aldatzen zailak diren tradizio eta ohituren eragina ere (Conejo, 2003).

Ohiko lan batean ordutegi finkoetara egokitzeak gertaera garrantzitsuak galtzea ekar dezake; hala nola, hiletak, ezkontzak edo gaixo dauden familiartekoentzako bisitak. Konpromiso horiek funtsezkoak dira ijitoen bizitza sozialean.

Inguruabar horiek agintariak ezarritako lanbide-heziketako eta enpleguko politika orokorrekin lotzen direnean, argi dago horietako askoren eraginkortasunik eza. Horren arrazoa da ez direla behar bezala egokitzen ijito-komunitatearen premia espezifikotara, eta ez direla banaka planifikatzen. Ondorioz, ijitoek ez dute beste herritar batzuek duten neurri berean eskura prestakuntza-programarik. Gainera, ijito-komunitateari berariaz zuzendutako ekimenek ez dute arrakasta handirik izan benetako integrazio profesionala lortzeko (Conejo, 2003).

Hori izan daiteke ijito komunitatea lan mundura ez txertatzeko beste arrazoi bat. Horrekin ulertu dezakegu askotan beste tradizio batzuk izanda, ezin dituztela haien bizitzak beste kultura bateko bizitzetara guztiz moldatu. Ijitoei buruzko estereotipoek hitz egitean edo sortzean, argi izan behar dugu zein den gizatalde horren testuingurua eta ondo ulertu.

### **2.5.2. Txaboletan bizi dira**

Oso errotuta dagoen beste estereotipo bat txabolismoaren gaia da. Gehienetan, ijitoen inguruan hitz egitean, jendeak uste du txaboletan bizi direla, baina errealiatea hortik urrun dago. Honela definitzen da gitanos.org-en txabolismoa eta azpietxebizitzaren terminoa:

“Se define como asentamiento chabolista y de infravivienda a aquellos asentamientos en mayor parte informales con aislamiento físico, funcional y/o social donde las condiciones objetivas relacionadas con la vivienda, la pobreza y otros derechos son significativamente peores que las del resto de la población.”



Izan ere, nahiz eta ijitoak txabolismoarekin eta segregazioarekin lotzen dituen topiko edo estereotipoak egon, ijitoen %92,88 etxebizitza normalizatueta bizi da (EAPN, 2016).

FSGk eta Daleph-ek 2015ean egindako “Estudio mapa sobre vivienda y poblacion gitana”, etxebizitzari eta ijito populazioari buruzko azterlan-mapa ikerketa horretan, txabolismoari buruzko datuak ikus ditzakegu, eta aipatzen du txabolismo kopuruak beherakada handia izan duela. Beraz, esan daiteke ijitoak txaboletan bizi direlako ideia estereotipo bat gehiago dela.

Azterlan hori burutzeko, Espainiako 5.000 biztanletik gorako udalerrri guztiak eta beste biztanle-gune/udalerrri txiki baina esanguratsu batzuk izan dira aztertuak, eta kontuan hartu dira ijito-biztanleriaren bolumena eta bizitegi-egoera.

2.273 bizileku aztertu ondoren, txabolismoa % 2,17 etxebizitzetan baino ez dute aurkitu. Nolanahi ere, ehuneko txikia dela ikus dezakegu.

Urteak aurrera joan ahala, ikerketan argudiatzen dute ijito gutxiago bizi dela txaboletan. Hemen dugun taulan ikus daiteke 1991tik 2015era murriztu egin dela txaboletan bizitzeko joera. Mota honetako etxebizitzak aztertzeaz gain, azpietxebizitza kontsideratzen direnak ere aztertu zituzten 2015eko ikerketa honetan; datuek diote, azpietxebizitza kontsideratzen direnetan bizitzeko joera ere murriztu egin dela. 2007. urtean ijitoen % 3,9 bizi ziren txaboletan, 2015ean, berriz, % 2,17a soilik. Datuen joera ikusita, esan daiteke urteak pasa ahala, familia gutxiago egongo direla txabolismo egoeran.

Guztira, txabolak eta azpietxebizitzak kontuan izanda beraz: 2007an, %11,7 bizi ziren egoera horretan; aldiz, 2015ean, % 8, 63.

Objetivos generales y específicos	Datos población total	Referencias previas población gitana	Datos más recientes población gitana	Objetivo 2015	Estudio 2015	¿Conseguido?
<b>OBJETIVO 1. Erradicación del chabolismo y la infravivienda.</b>						
Objetivo Específico 1.1 <i>Reducir el porcentaje de chabolismo entre los hogares de personas gitanas.</i>		10% (1991, PASS)	3,9% (2007, FSG)	2%	2,17%	~
Objetivo Específico 1.2 <i>Reducir el porcentaje de hogares de personas gitanas considerados como infraviviendas.</i>		21,4% (1991, PASS)	7,8% (2007, FSG)	6%	6,46%	~

Ildo beretik, Etxebizitzari eta ijito populazioari buruzko Azterlan-Mapak, 2015ekoak, etxebizitza-arloan ijito-komunitateak duen egoerari buruzko azterlan berrienetako eta sakonenetako batek, ondorio eta gomendio oso egokiak ematen ditu eremu horretan. Azterlanaren datuek ijitoak txabolismoarekin eta gune bereziekin lotzen dituen topikoa aldentzea ahalbidetzen dute, honela dute identifikatutako ijitoek etxebizitza: % 92,88 hiri-egituran, auzo periferikoetan % 35,55, hedapen-auzoetan % 27,18, udalerrian sakabanatuta eta integratuta dauden etxebizitzetan % 18,44 edo hirigune historikoan % 11,7 bizi dira. Bestalde, % 3 baino gutxiago ( % 2,78) asentamenduetan bizi dira bananduak. Azterketa horrek berak agerian uzten du ijito-biztanleriaren bizitegi-kontzentrazio bereizgarriko joera: ijitoen etxebizitzaren % 94,4 10 etxebizitzatik gorako kontzentrazioak dituzten auzoetan daude, eta identifikatutako etxebizitzaren % 90 inguru 15 urtetik gorako antzintasuna duten auzoetan daude (Borrás & Macías, 2023).

Datu horiek guztiak aztertuta, argi ikusten da txabolismoa estereotipo bat dela, gainerakoen biztanleen ideietatik inferitutakoa. Gertatzen dena da, ijitoak txaboletan bizi zirela duela urte asko, eta ijito etniakoa ez den jendearentzat ez dela ohikoa horrelako bizimodua. Beraz, zerbait desberdina denez eta kategoria edo maila baxukoagotzat jotzen denez, komunitate osoari ezarri zaio txabolismoaren estereotipoa.

Nahiz eta ikusi den txabolismoa gero eta murriztagoa dela, ezin dugu ahaztu oraindik ere familia ugari dagoela egoera penagarrian bizitzen. Askotan, ezin dutelako etxebizitza

duin edo hobetoago bat lortu jasaten duten diskriminazioaren erruz (Aurreraxeago landuko da berriz gaia).

Valentzian, 2023an, ijitoen etxebizitzaren gaineko beste ikerketa bat egin zuten, *Estudio-Mapa de la Vivienda de la Población Gitana en la Comunidad Valenciana* (FAGA, 2023) izenekoak. Hori aztertuko da jarraian, ikusteko nolako joera jarraitu duten txabolismoaren datuek. 2015eko ikerketan beherakada jasan zuela ikusi dugu dagoeneko; beraz, joera hori ziurtatzeko asmoarekin aztertuko da “Federación Autónoma de Asociaciones Gitanas de la Comunidad Valenciana”k (FAGA) publikatutako ikerketa.

Ikerketan aurki daitezkeen datuen taula da hau:

**¿En qué vivienda vive usted?**

<b>Tipología de viviendas</b>	<b>Valencia</b>	<b>Alicante</b>	<b>Castellón</b>	<b>Total general</b>
En una vivienda pública de alquiler o cedida por un organismo o institución pública	11,14%	24,82%	27,96%	19,94%
En una vivienda ocupada de forma irregular	20,79%	20,80%	8,60%	18,56%
En una vivienda con hipoteca de la que es propietario/a	6,19%	18,44%	22,04%	14,22%
En una vivienda sin hipoteca de la que es propietario/a	9,16%	14,18%	24,19%	14,02%
En una vivienda alquilada por un particular	18,81%	8,51%	6,45%	12,24%
En una vivienda alquilada por una entidad bancaria o similar	11,14%	2,36%	2,15%	5,82%
En la vivienda de sus padres o de alguno de ellos	2,23%	6,15%	2,69%	3,95%
En una infravivienda	7,92%	0,00%	0,54%	3,26%
Otra	6,68%	0,47%	2,15%	3,26%
En una vivienda cedida gratuitamente por un particular (amigo/a o familiar)	2,23%	1,65%	2,15%	1,97%
No sabe / No contesta	0,25%	1,42%	1,08%	0,89%
En la vivienda de otras personas (sin parentesco)	1,49%	0,00%	0,00%	0,59%
En la vivienda de su/s suegro/a/s	0,99%	0,47%	0,00%	0,59%
En una vivienda cedida gratuitamente por una empresa privada	0,00%	0,47%	0,00%	0,20%
En la vivienda de su/s hijo/a/s	0,50%	0,00%	0,00%	0,20%
En un piso compartido	0,50%	0,00%	0,00%	0,20%
En una vivienda cedida gratuitamente por una ONG	0,00%	0,24%	0,00%	0,10%

Taula horretako datu interesgarriak txabolismoaren ingurukoak izango dira. Azpietxebizitzan bizi diren ijitoen portzentaia, kasu honetan Valentzian 2023 urtean, %3,26koa da. Azpietxebizitzaren definizioan sartuko lirateke bai txabolak, bai gutxieneko bizigarritasun-estandarrak betetzen ez dituzten etxebizitzak. Aurreko ikerketarekin konparatuta, nahiz eta ez den esparru berdinetan hartu lagina, diferentzia argia da.

Txabolismoaren datuek behera egiten jarraitu dute: 2015ean, %8,63 izan da azpietxebizitetan bizi direnak Espainian, eta, 2023an, %3,26 Valentzian. Ikusten denez, beherako joera mantendu egin da.

Txabolismoaren estereotipoarekin batera badator etxebizitza ez zaintzearen ezaugarria. Izan ere, pertsona zikin gisa hartzen da txaboletan bizi den jendea. Beraz, txabolismoaren estereotipoak badu eragina etxebizitza duin bat lortzeko unean; izan ere, estereotipoa dela eta, zaildu egiten zaie ijitoei etxebizitza alokairuan hartzea, zein erostea. Etxebizitzaren erabilera okerra egingo dutelakoan, alokatzaileek ez diete alokatzen ijitotzat hartzen dituztenei.

### **2.5.3. Hezkuntzari ez diote garrantzirik ematen**

Hezkuntzaren estereotipoaren gaiari hasiera emateko, ijitoen eskolaratzeari bruzko datu batzuk aipatuko dira lehenik eta behin; ostean, estereotipoaren zergaitia ondorioak ulertu ahal izateko.

Ijitoen hezkuntza-maila Espainiako biztanleriaren batzbestekoaren oso azpitik dago: hezkuntza-arrakala handia dago ijitoen eta ijitoak ez direnen artean.

Espainiako ijitoak duela 30 urte eskas sartu ziren hezkuntza-sisteman. Hain denbora laburrerako, aurrerapena izugarria izan da, eta bazterkeriatik eskolaratzera igaro dira, aldeztatik zubi-eskolen bidez banatutako eskolatze batetik igaroz. Gaur egun, haur ijitoak Lehen Hezkuntzan eskolatuta daudela esan dezakegu, duela hamarkada batzuk ez bezala, orduan pentsaezina zen.

Baina *La Comunidad Gitana y la educación* (FSG, d.g) argitalpenean, Fundación Secretariado Gitanok hezkuntza-arrakala handia oso nabarmena dela dio ijito gazteek Bigarren Hezkuntzan sartzeko dituzten aukerei eta derrigorrezko ikasketak osatzeko aukerei dagokienez. Lehen Hezkuntzan irudikatzen edo nabaritzen hasten da arrakala, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu baino lehen, handitu egiten da: 16 eta 24 urte bitarteko ikasle ijitoen % 64k ez ditu derrigorrezko ikasketak amaitzen, ikasle guztien % 13ren aldean.

Beherakada handia izan da eskolatzean 15 eta 16 urte bitartekoen artean behera. 15 urterekin, ikasle ijitoen % 86,3 eskolatuta dago (biztanleria osoaren % 97,9ren aldean), eta 16 urterekin, berriz, kopuru hori % 55,5era jaisten da (ikasle guztien % 93,5en aldean). Kurtsoari dagokionez, DBHko 2. mailan uzten diote ikasteari ijito gehienek. Aldiz, adinari dagokionez 16 urterekin uzten dituzte ijito-ikasle gehienek ikasketak. Ijito-gazteen eskola-uzte goiztiarra % 63,7koa da, eta biztanleria osoarena % 13,3koa.

Ijito-gutxiengoaren hezkuntza-errealitatea zerk baldintzatzen duen ulertzeko, funtsezkoa da hainbat faktore kontuan hartzea. Komunitate horrek aurreiritziak, estereotipoak eta diskriminazioa jasaten ditu biztanleria orokorraren aldetik, eta pobrezia gorpil zoro batean harrapatuta dago. Horrela esan dezakegu estereotipo eta aurreiritziek hezkuntza errealitatea baldintzatu egiten dutela. Analfabetismoak lan marjinaletara eta gaizki ordaindutako lanetara mugatzen ditu lan-aukerak, eta horrek ez ditu oinarrizko beharrak betetzen eta familia- eta osasun-arazoak eragiten ditu. Bizi-baldintza horiek zaildu egiten dute adin txikikoen garapen egokia, eta lanera goiz sartzerak eta analfabetismoa betikotzera behartzen dituzte.

Hori gutxi balitz, etxeko eta eskolako balioen arteko disonantzia kulturala dago, eta horrek ondoez psikosoziala eragiten die ikasleei eta haien familiei. Gazteek bateraezintasuna sumatzen dute eskolaren eta lan- eta etxe-betebeharren artean, gizarte-presioari eta beren komunitatean hezkuntza-erreferente faltari aurre eginez, eta horrek egokitze-arazoak eta motibazio akademikorik eza dakartza. Familiek, bestalde, beren kulturaren aurkako mehatxu gisa ikus dezakete eskolatzea, eta beren seme-alaben segurtasun falta senti dezakete eskolan, bereziki institutuko alabentzat.

Pertzepzio negatibo horrek inplikazio txikia eragiten du gai akademikoetan, eta parte-hartze eskasa ikastetxean. Gainera, eragina du hezkuntza-erakundearekiko errezeloak, haren kultura ez ulertzeak eta ez aitortzeak, ijitoak ez diren familien gaitzespenak eta eskola-jazarpenera eraginkortasunik gabe kudeatzeak.

Badaude teoriak zeinek ijitoen eskolaratze tasa baxuak eta arrakasta baxua azaltzen saiatzen diren; nahiz eta hezkuntzaren eremuko estereotipoak izan: **Determinismoaren**

**teoria** erabiltzen da ikasle ijitoen “porrota” azaltzeko, ikasleak ahaleginik egin ez duelako arrazoitzen. Determinismoa gertaera guztiak alde aurretik existitzen diren kausengatik erabat determinatuta daudela defendatzen duen teoria da. Ikasle ijitoek beren ustezko nagikeria eta esfortzu faltagatik arrakasta akademikorik ez dutelako ustea da jarrera horren abiapuntua (INTEF, d.g.). Dagoeneko, hemen ikusi dezakegu nagien estereotipoa ezartzen zaiela eta horren inguruan sortzen dela teoria hau. Ikuspegi horri eusten dioten profesionalek uste dute ikasle ijitoek ez dutela ikasketekiko interesik, ez dituztela eskolako arauak errespetatzen eta ez dituztela etxerako lanak egiten, "ikasle txartzat" jo izan dituztelako.

Determinismoaren teoriari hainbat kritika egin zaizkio:

- Postulatu antigitanistak: Ikuspegi horrek arraza-aurreiritziak onartzen ditu, eta ijito gazteak asozial eta arduragabetzat hartzen ditu.
- Ikuspegi meritokratikoa: Alde batera uzten ditu desberdintasun sozioekonomikoak, eta ikasleen gain kargatzen du erantzukizun guztia, hezkuntza-sistema salbuetsiz.
- Baztertuen gaineko erantzukizun guztia kargatzen du eta, horrela, gainerako instantziak desegiten ditu. Horrek, analisi sistemiko eta erlazionalik eza ez ezik, eskola-erakundeak eta irakaskuntza-praktikak berak ikasleen eskola-ibilbideetan eta ibilbide sozialetan eragiteko dituzten aukerekiko mesfidantza ere badakar (Bretainia, 2015).
- Transmisio-ikuspegia: Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan faktore emozionalak eta autoestimukoak ahazten ditu.

Ikusi ahal izan denez, teoria honek arazoa ikusezin bihurtu nahi du. Arazoa ijitoei eragozten die, estereotipo eta aurreiritziak erabiliz. Horrela hezkuntzan dagoen arazoak irtenbiderik ez duela ikustarazten du, eta ezin dela politika berririk sortu ijitoen hezkuntza arrakasta hobetzeko.

Beste teoria bat **determinismo familiarra** eta arrazista edo etniaren errua da. Jarrera horrek ijito-familiei egozten die errua, hezkuntza baloratzen ez dutela eta automarginatzen direla argudiatuz.. (Intef, d.g.) Teoria hau laburbiltzen duen esaldia, hurengo hau litzateke: “Ei

problema está en las familias” (B. García Pastor, 2009). Honako aurreiritzi honetan oinarritzen da: ijito-familiei ez zaie interesatzen beren seme-alaben hezkuntza, edo ijito-komunitateak, oro har, ez du hezkuntzarekiko interesik [...]. Hezkuntza horrek Ijito Herria deskribatzen du gizarte-bazterkeriatik ateratzeko borrokatzen ez duen kolektibo pasibo gisa, nahiago baitu prestakuntza akademikorik gabe eta kalifikazio txikiko lanekin edo gizarte-laguntzak jasotzen bizi [...] bere burua baztertzen du, ijitoak ez diren erakundeak baztertzen ditu [...] eta komunitate hori gatazkarekin, inbibismoarekin eta matxismoarekin lotzen du (Macías, F., 2017) Aurreko teorian oinarrituta dago baina honek ijitoa erruduntzat hartu beharrean, haren familia bilakatzen du errudun.

Zentzuzkoa den bezala teoria honek ere kritikak jaso ditu, determinismoak jasotakoan antzekoak:

- Aurreiritziak eta estereotipoak: Ijito-kulturaren ikuspegi homogeen eta estatikoa hartzen du, integratzeko aukera eta identitate-aniztasuna ukatuz.
- Meritokrazia eta erantzukizun eskusiboa: Hezkuntza-aurrerapenik eza ijito-familien errua delako ideia indartzen du, egiturazko desberdintasunak eta eskola-segregazioko dinamikak kontuan hartu gabe.
- Baieztapen horiek ijito-komunitateari buruzko aurreiritzietan oinarritzen dira. Jarduera eraginkorrak inplementatzen direnean, ikasleen eta haien familien itxaropen handiak izaten dira, eta komunitateak erabakiak hartzean eta irakaskuntzan parte hartzen duenean, ijito-familiak beren etorkizuna eta seme-alaben etorkizuna kontrolatzen hasten dira. Hori ez da gertatzen lehen interesatuta ez zeudelako, baizik eta lehen ez zutelako uste posible zenik, eskola batzuek segregazio-praktikak edo ijito-herriaren gizarte- eta hezkuntza-bazterketa erreproduzitzen duten beste ekintza batzuk aplikatzen zituztelako. Praktika horien ondorioz, ijito-komunitateak konfiantza galtzen du eskolan, nahiz eta heziketa funtsezkoa dela uste duten haien bizi-baldintzak hobetzeko Maciasen ustetan (Intef, d.g.).



Gaur egun, **determinismo etniko-familiarra argudio kulturalistekin** batera doa. Ijitoek hezkuntza ez dutela ahalegintzen eta ez dutela baloratzen baieztatzen da, beren kultura estatikoa eta gehiengoaren kulturatik desberdina delako. Ideia horiek iradokitzen dutenez, ijito-komunitatea ez dator bat eskola-sistemeekin, segregazioa justifikatzen du eta errendimendu akademiko txikia bere kulturari egozten dio, artisautzat hartzen dena eta araurik ez duena.

Hezkuntza-azterlan eta -programa batzuek aurreiritzi horiek indartzen dituzte, eta ijito-familiak hezkuntza-aurrerapenik ezaren erantzule egiten dituzte, bazterkeria betikotzen duten gizarte- eta hezkuntza-politikak zalantzan jarri gabe. Ijito-familiei dei egiten zaie seme-alabei buruzko itxaropen handiak izan ditzaten, arrakastarik eza haien interesik ezaren ondorio dela iradokiz.

Hauxe aipatzen dute kritikek: Ikuspegi kulturalista horrek ijito-gutxiengoa errudun egiten du bere egoeragatik, alde batera utzita egiturazko desberdintasunak eta hezkuntza-politika segregazionisten eragina. Gainera, estereotipoak eta aurreiritziak betikotzen ditu, haur ijitoen eskola-errendimendu baxuaren kausen azterketa justu eta orekatua eragotziz.

**Gabezia akademiko eta linguistikoengatiko eta gabezia kulturalengatiko determinismoa.** Zenbait egilerentzat —B. Bernsteinen lorratzari jarraiki— langile-klaseko familiek gabezia edo gabezia kulturala pairatzen dute, beren gizarte- eta familia-inguruneko hizkuntza kultua edo idatzia gutxiago menderatzen dutelako, eta, horren ondorioz, seme-alabak desabantaila-egoeran daude mundu akademikoaren aurrean, hizkuntza kultu horretan adierazten denaren aurrean. Familia horiek kode linguistiko murriztua dute: hizkuntza arrunta soilik menperatzen dute, ez abstraktua, hiztegi eskasa dute, sintaxi eta fonetika okerrak, eta, beraz, seme-alabak ez daude ohituta liburuetan eta eskolan erabiltzen den hizkuntza kultu edo formalarekin. Haur ijitoei asko kostatzen zaie abstrakzio-mailara iristea. Gainerakoan, gainerako haurren antzera komunikatzen dira, baina familia-adierazpen motak eragin handia du; gertatzen da, halaber, haur horien hizkuntza-alterazioak "akatsak"

direla, bizi diren testuinguruan: leismoa, amaiera txarrak, konjugazio txarra. Oso prozesu luzea da hau, Kalotik datorrena (Bueno, J. J. 1993).

Teoria horri ere kritika egiten zaio: Kultura-defizitaren teoriak gure hezkuntza-sistemaren benetako akatsen arreta desbideratzen du, haurren ustezko akats batzuetara bideratuz (Labov, 1985). Gutxiengoetako haurren jatorrizko hizkuntza, kultura eta estilo kognitiboa talde sozial nagusiena bezain logikoa, gramatikala eta konplexua da, eta eskolak haur horiengan detektatzen dituen gabezia kultural asko haiekin izandako harreman-estiloaren eta haien ezagutzak neurtzeko erabiltzen diren tresnen ondorio baino ez dira (ib.). Gainera, gizarte- eta hezkuntza-prozesuak linealtzat eta norabide bakarrekotzat aurkezten dituzte, eta zatietako bati bakarrik egotz dakizkioke (Intef, d.g.).

Teoria horiek guztiak aztertu ondoren, ikus daiteke nola ijitoenganako estereotipoak eta aurreititziak erabiltzen diren ijitoen hezkuntza arrakasta eza justifikatzeko. Beraz, ijitoek hezkuntzan interesik ez duteneko estereotipoa, kritiketan azaldu den bezala, haien kulturarenganako estereotipoetan dute erroa. Kultura “ofizialetik/ofizialetatik” ezberdintzen den aldetik, beste beharrian batzuk dituzte hezkuntza sisteman, eta politika berriak sortu beharrean, arazoa izkutatu egiten da, eta ijitoei beraiei leporatzen zaie errua.

## **2.6. Estereotipoen eragina zenbait eremutan**

### **2.6.1. Lan eremuan**

Lan eremuan diskriminatuak izateaz gain, lanaren inguruan dauden bizitzako beste hainbat arlo ere mugatzen ditu. Gaur egun, norbanakoaren ezaugarrietako bat da lanpostua eta bizitza definitzen du zentzu askotan. Izan ere, beste gauza batzuen artean, lanak dakar dirua, eta dirua da gizarte honetan (zoritxarrez edo zorionez) gehien baloratzen den patrimonioetako bat. Beraz, etxe bat erosterakoan, hezkuntza sistema batera sartzerakoan... dirua behar denez, langabetuak ez dituzte behingoan onartuko adibidez. Ijitoek badute lanaren inguruko estereotipoa, alperrak direneko estereotipoa, eta horrek, beraz, zaildu egiten du haien integrazioa bizitza sozialeko hainbat esparrutan.

2022ko martxoan egindako ikerketan, *Discriminacion racial en el ámbito de la vivienda y los asentamientos informales*, ijitoek jasan behar dituzten diskriminazioez hitz egiten da etxebizitza ardatz hartuta.

Ekonomia-prekarietatearen presuntzioa dator, batez ere, gizatalde zehatz batzuetako pertsonak diskriminazio arraziala jasaten duten heinean, lan-baldintza txarragoak izango dituztelako edo etxebizitzaren karguak eta horiekin erlazionatutako gastuei aurre egin ahal izateko ezinbestekoak diren iraunkortasun edo diru iturri falta izango dutelako. Horrelako kasuak higiezin agentzietako langileen eskutik edo edozein etxeren ugazabaren eskutik agertzen dira. Eta pentsatzekoa da, batzuetan, mesfidantza hori nabarmenagoa dela partikularrak direnean. 2022ko martxoko ikerketa horretan hainbat testigantza agertzen dira, horien arteanartzelonako talde latino-amerikar zuriko emakume batena:

“Con agencias inmobiliarias no, he ido a ver pisos y notas la mirada, que te miran como a ver si tienes contrato fijo, tienes nóminas, cuáles son tus condiciones económicas, que te lo dicen con ese tono que tú notas que te lo dicen por tu etnia, que no eres de aquí, y puedes notar eso. Pero tan directo como el particular no” (Álvarez, García, Moreno, Parejo & Sánchez, 2022).

Horiek horrela, argi dago lanaren eremuan diskriminazioa jasateak, hedaduraz, beste hainbat esparrutan ere baduela eragina; etxebizitzan esaterako .

### **2.6.2. Etxebizitza**

Aurreko atalean aztertu bezala, ijitoak oso estereotipatutako komunitatea dira, eta, horren ondorioz, diskriminazio nabaria jasaten dutela. Diskriminazio hori etxebizitzaren alorrera ere zabaltzen da: txabolismoaren estereotipoa dutenez, eragina du etxebizitza alokatzera edo eroztera doazen momentuan.

Etxebizitza izateko eskubidea agiri ofizial ugaritan aitortzen da; esaterako, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 25. artikuluan, "persona orok du bizi-maila egokia izateko eskubidea, bere familiari, osasunari eta ongizateari, eta, bereziki, elikadurari, jantziei, etxebizitzari, mediku-laguntzari eta beharrezko gizarte-zerbitzuei dagokienez."

Halaber, Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua dionez, "espainiar guztiek dute etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea. Botere publikoek eskubide hori gauzatzeko beharrezkoak diren baldintzak sustatuko dituzte eta beharrezko arauak ezarriko dituzte, lurzoruaren erabilera interes orokorraren arabera arautuz. "

Hala ere, gure lan-ingurunea aztertzean, alde nabarmena ikusten dugu herritarren eskubideen eta bizi duten errealitatearen artean. *"La importancia de la vivienda y la construcción social de la ciudad en el proceso de desarrollo del pueblo gitano en Alicante"* (zitau) ikerketaren datuek zera adierazten dute: Alacanten, esaterako, alde nabarmena dagoela eroso bizi direnen eta eremu periferikoetan bizi direnen artean, eta, etxebizitzari dagokionez ere, gizarte-bazterketa agerikoa da.

J. M. Tortosak (1993) adierazi duenez:

"desberdintasuna ondasun jakin batzuen banaketari dagokio, batez ere diruari: batzuek gehiago dute eta besteek gutxiago, eta batzuen eta besteen arteko 'distantzia' da desberdintasuna. Pobreia izateak esan nahi du oinarritzko premiak ez direla asebetetzen etengabe eta nahi gabe, eta, beraz, ondasunen banaketan dagoen ekitate ezaren egiturazko indarkeriaren emaitza da " (Tortosa, J. M., 1993).

Esan bezala, txabolismoak behera egin du azken urteotan, baina badago ijito komunitatearen zati bat zeinek etxebizitzaren baldintza duinik ez duen oraindik ere.

Jakina da etxebizitzarako eskubidea badutela inolako diskriminaziorik jasan gabe, aipatu dugun Konstituzioan agertzen den moduan. Baina legeekin jarraituta, maiatzaren 24ko 12/2023 Legeak, etxebizitzarako eskubidearen aldekoak, etxebizitzarekin lotutako eskubideak gauzatzeko berdintasunerako oinarriak ezartzen ditu. Legearen xedea du ardatz 1. artikulua, eta berdintasuna bermatzen duten funtsezko baldintzak arautzen ditu, bereziki etxebizitza duina eta egokia eskuratzeari dagokionez, arrazoizko baldintzetan.

Arautze hutsetik harago, legedi honek etxebizitzaren jabetza-eskubidearen edukia arautzea ere bilatzen du, funtzio sozialaren ikuspegia txertatuz. Etxebizitza-politika publikoen helburuak, 2. artikuluan adierazitakoak, etxebizitza duin eta egoki bat lortzeko

aukera ziurtatetik etxebizitzaren erabilera eraginkorra sustatzeraino, haren bizigarritasuna bermatzeraino eta administrazioen arteko lankidetzak sustatzeraino iristen dira. Etxebizitzaren jabetzan eta erabileran egonkortasuna eta segurtasun juridikoa babestea, etxebizitza-parke publikoen garapena bultzatzea, lehendik dauden etxebizitzak birgaitzea eta hobekuntza erraztea, alokairua arrazoizko prezioetan sustatzea eta etxebizitza-parke sozialen existentzia babestea nabarmentzen dira, besteak beste.

8 Legearen 3. artikulua funtsezko definizioak ezartzen ditu: etxebizitza, etxebizitza txikia, etxebizitza duina eta egokia, baldintza eskuragarriak, etxebizitza babestua, etxebizitza soziala, prezio mugatuko etxebizitza eta etxebizitza eskuragarria. Jarraian, artikuluan jasotako definizio batzuk:

- Etxebizitza: eraikin pribatibo baten eraikina edo zati bat, pertsonen bizileku eta logela izateko. Legeak eskatzen dituen gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen ditu, eta eraikina kokatuta dagoen eraikineko espazio eta zerbitzu komunitararako sarbidea izan dezake, betiere aplikatu beharreko legeriarekin eta hirigintza- eta lurralde-antolamenduarekin bat etorritik.
- Etxebizitza gisa erabiltzen den eraikina edo haren zati bat, aplikatu beharreko legeriaren arabera eskatzen diren gutxieneko baldintzak betetzen ez dituenak. Nolanahi ere, baldintza horiek betetzen ez dituztela ulertuko da honako baldintza hauek betetzen ez dituzten etxebizitzak: pieza bizigarrien azalera, kopurua, dimentsioa eta ezaugarriak, oinarrizko zuzkiduretan eta instalazioetan gabezia larriak dituztenak eta eraikinari eska dakizkiokeen gutxieneko segurtasun-, irisgarritasun unibertsal- eta bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituztenak.
- Etxebizitza duina eta egokia: etxebizitza, bere tamaina, kokapena, bizigarritasun-baldintzak, irisgarritasun unibertsala, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera eta gainerako ezaugarriak direla-eta, eta oinarrizko hornidura-sareetarako sarbidea izanik, pertsona edo bizikidetzak unitatearen egoitza-premiei erantzuten diena, finantza-ahaleginaren arabera baldintza eskuragarrietan, bere etxebizitza, bizilekua edo etxea izanik

duintasunez bizitzeko, bere intimitatea babestuz, eta familia- edo gizarte-harremanez gozatzeko, pertsonen erabateko garapena eta gizarteratzea bultzatuz.

6. artikularen arabera, Etxebizitzaren Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren Printzipioak azpimarratzen du pertsona guztiek dutela etxebizitza duin eta egoki bat izateko eskubidea, diskriminaziorik, bazterkeriarik, jazarpenik edo indarkeriarik gabe. Administrazio eskudunek printzipio hori bermatu behar dute, beharrezko babes-neurriak hartuz eta zuzeneko eta zeharkako diskriminazioa, jazarpena eta higiezin-eragiketa irregularrak bezalako egoerei helduz.

Etxebizitzaren Funtzio Sozialaren Bermearen Printzipio Gidariak 7. artikuluan ezartzen dutenez, administrazio publikoek etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren baldintzak sustatu behar dituzte, bereziki adingabeak ardurapean dituzten familientzat. Gainera, babesa zaindu behar dute.

Behin legalki etxebizitzaren kontzeptua definituta eta azpimarratuta denok dugula eskubidea diskriminaziorik gabe etxebizitza izateko; aztertu beharra dago zein egoeratan eta nola jasaten duten diskriminazioa ijitoek etxebizitza lortzerako momentuan. Behin diskriminazio mota eta modua identifikatuta, errazagoa izango da horren aurkako metodoak sortzea edo planteatzea, hurrengo atalean ikusiko denez.

Etxebizitzarako sarbidea osatzen duten puntu konplexuen artean, diskriminazioa etengabe azaleratzen da, testigantzetan, inkestetan eta etxebizitzaren merkatuan bertan.

Gertakizuna anekdotikoa izan beharrean, eskubide eta bizimodu duin baten alde borrokan ari direnen esperientziak zeharkatzen dituen ideia errepikakor gisa agertzen da. Aipatutako Valentziako ikerketan, *Estudio-Mapa de la Vivienda de la Población Gitana en la Comunidad Valenciana 2023*ko abendukoan (FAGA, 2023), bildutako testigantza-sortan, diskriminazio etnikoa funtsezko faktore gisa agertzen da, etxebizitza eskuratzea eta ijito-familien garapen sozioekonomikoa baldintzatzen duena. Ikerketa horretako inkestak bidez sortutako datuak osatuz, elkarrizketa kualitatiboen bidez hainbat kasuistika diskriminatzaile, abusuzko praktika eta praktika oker identifikatu dira etxebizitza eskuratzeko

eremuan. Esperientzia horiek agerian uzten dituzte norbanakoek eta familiek prozesuaren hainbat etapatan dituzten erronka esanguratsuak, arreta eta premiazko ekintza behar duten arlo kritikoak nabarmenduz.

Inkesten bidez diskriminazioa jasaten den etxebizitzaren alorreko hainbat kategoria identifikatu zituzten *Discriminacion racial en el ámbito de la vivienda y los asentamientos informales* ikerketan (Álvarez, García, Moreno, Parejo & Sánchez, 2022). Jarraian, kontakizun horietatik sortu ziren funtsezko bost kategoria aztertzen dira:

- Diskriminazioa etxebizitza bilatzean: Norbanakoek eta familiek etxebizitzaren jabeek eta higiezin agenteez bilaketa-prozesuan izandako zuzeneko diskriminazio-esperientziak kontatu dituzte, eta agerian utzi dituzte etxebizitza modu ekitatiboan eskuratzea oztopatzen duten diskriminazio-praktikak.
- Diskriminazioa erroldatze-eskaeretan: Erroldatze-diskriminazioa oztopo gisa sortu da, eta gizabanako batzuek ezinbesteko dokumentu hori lortzeko zailtasunei aurre egin behar diete, aurreiritzi etnikoen edo bestelako diskriminazio-moduen ondorioz, eta funtsezko zerbitzuak eskuratzeko aukerari eragiten diote.
- Etxegabeteen hazkundea eta funts putreen esku-hartzea: Funts putreen esku-hartzea eta etxegabeteen gorakada arazo kritikotzat jo dira, eta agerian utzi dute zenbait taldek finantza-jarduera oldarkorren aurrean duten zaurgarritasuna eta babes eraginkorragoaren beharra.
- Enpresek zerbitzuak ukatzea: Enpresak, oinarrizko zerbitzuak ematerakoan, kokapen geografikoaren arabera egoiliarrei zerbitzuak ukatzeagatik seinatu dira, desberdintasunak areagotuz eta eguneroko erosotasunetarako sarbidea mugatuz.
- Etxebizitza publikoen kudeaketa: Etxebizitza publikoen kudeaketak kezka sortu ditu, eta kontakizun horiek etxebizitza horien administrazioan eta mantentzean dauden akatsak nabarmenduz dituzte, egoiliarren bizi-kalitateari eraginez.

Narratiba edo esperientzia kualitatibo horiek pertsonen etxebizitza bilatzean aurre egin behar dieten konplexutasunen eta erronken ikuspegi zehatza ematen dute, eta

problematika horiei aurre egiteko ikuspegi bidezkoagoak eta politika eraginkorragoak behar direla azpimarratzen dute.

Azterlan horrekin bat etorritz, *Estudio-Mapa de la Vivienda de la Población Gitana en la Comunidad Valenciana* (FAGA, 2023), elkarrizketen analisisian identifikatu da itxura fisikoa edo larruazalaren kolorea, janzkera, izena, abizena, eta jatorrizko hizkuntza edo azentua direla pertsona identifikatzea ahalbidetzen duten eragile nagusiak, eta horien bidez pertsonak talde sozial edo etniko horrekiko dituen aurreiritziak «aktibatzen» direla. Etxebizitza bilatu edo eskatzerakoan, abiarazle horiek hainbat modutan jartzen dira martxan: telefonoz, beste azentu edo hizkuntza bat identifikatzen duten unean; eskatutako dokumentazioa etxebizitzaren jabeari emateko orduan, eta errentan emango duen pertsonaren izena eta abizena behatzen dutenean; edo, etxebizitza bisitatuz gero, larruazalaren kolorea edo ezaugarri fisikoak, fenotipikoak edo janzkera aztertu ondoren.

Datuak talde etnikoaren eta populazio-taldearen arabera bereizita aztertuz gero, ikus daiteke ijito herriko pertsonak, afrikar taldeko “afroondorengoek” eta beltzek larruazalaren kolorea edo ezaugarri fisikoak aipatzen dituztela etxebizitza bat eskuratzeko diskriminazioaren lehen eragile gisa. Adibide gisa, *Discriminacion racial en el ámbito de la vivienda y los asentamientos informales* ikerketan agertzen den esaldia dugu:

“Hay gente muy preparada pero no nos dan las oportunidades... por ser «morenitos» [color de piel]. ” Hombre PVDR del grupo Pueblo Gitano del municipio de Madrid (Álvarez, García, Moreno, Parejo & Sánchez, 2022, 45.or).

Lanaren arabera, Europako datuei erreparatzen badiegu, afrikarrek edo afrikarren ondorengoek gehien adierazten dituzten adierazpenetako batzuk honako hauek dira: errentatzaile partikular batek apartamentu bat alokatzeko eragozpenak (inkestatuen % 14k), talde etniko edo jatorri migratzaileko pertsonen eskaerak baztertzen edo baztertzen zituzten iragarkiak aurkitzea (% 6k) edo etxebizitza publiko bat alokatzea eragozten dietenak (% 6k).

Emitza horietatik ez oso urrun, egindako azterketak agerian uzten du arraza-bereizkeriak har ditzakeen forma-aniztasuna. Ildo horretan, etxebizitzaren esparruko arraza-bereizkeriaren adierazpen nagusiak zuzeneko diskriminazio erlatiboa deiturikoan



daude, eta nagusiki higiezin agentziek eta/edo partikularrek etxebizitzan sartu ahal izateko eragozpenak jartzean adierazten da. Zuzeneko diskriminazioa bitan bana daiteke, *Discriminacion racial en el ámbito de la vivienda y los asentamientos informales* (Álvarez, García, Moreno, Parejo & Sánchez, 2022) lanaren arabera:

- Zuzeneko diskriminazio absolutua, hau da, biztanleriaren etxebizitza-eskubideak eskuratzea erabat blokeatzen du.
- Zuzeneko diskriminazio erlatiboa, baldintza espezifikoak areagotuz kolektibo jakin batzuk etxebizitza eskuratzea eragozten du.

Diskriminazio erlatibo motan, alde batetik, bide bihurriak erabilita —etxebizitzaren erabilgarritasunari buruzko engainu eta aitzakiak, gehiegizko klausulak eta prezioak, gehiegizko dokumentazio eta berme eskaerak— eta, bestetik, —beste eskatzaile batzuei baino baldintza okerragoetan, kalitate txikiagoan eta diskriminatutako pertsonak planteatutako premiekin alderatuta, eta hirien barruko zona periferiko edo zaugarrietan kokatuta dauden etxebizitzak eskainiz— kasu askotan talde etniko eta populazio diskriminatuen kontzentrazio espaziala eta lurraldekoa eragiten dutenak. Joera hori, gainera, hiri handietan nahiz ertainetan errepikatzen da, eta horrek eskola-kontzentrazioa ere eragiten du. Azterketa horrekin ere, ikus dezakegu ijitoen periferietara joateko joeraren zergatietako bat: ez dute haiek erabakitzen, geratzen zaien aukera bakarra da hirigunetik urrun bizitzea askotan.

Adierazi diren adierazpen nagusiak kontuan hartuta, eta talde etnikoek eta populazio-taldeek aurkitutako desberdintasunak nabarmenduta, ikusi da higiezin agentziek eta partikular batzuek oztopatu egiten dutela arraza-bereizkeria jasan dezakeen pertsonak etxebizitzan sartzera. Eta horretarako, arraza-bereizkeria kanporatzeko erabiltzen diren moduak etxebizitzaren eskuragarritasunari buruzko engainuak eta aitzakiak izaten dira:

“Nos hemos encontrado con muchísimas barreras, muchas excusas del agente inmobiliario o del propietario cuando identifica a la persona interesada como gitana. Nos encontramos con que desaparece ese alquiler porque el propietario ya

no necesita alquilarla, o directamente se dice que no se quieren gitanos en el edificio.” Hirugarren sektoreko abokatua.

Kasu honetan, ijito herriko kideak izaten dira elkarrizketetan adierazpena gehien aipatzen dutenak eta hau aipatzen dute:

“Cuando quieres alquilar una vivienda, aunque vayas con el dinero en la mano y cumples los requisitos (...) cuando te ven gitano lo primero que dicen es «no, lo siento ya está alquilada, no nos ha dado tiempo a avisarte» (...) Es muy difícil.”

Madrilgo udalerriko Pueblo Gitano taldeko PVDR gizona.

Diskriminazioa ez da amaitzen etxebizitza eskuratzean, baizik eta errentatzailearekin hitz egitean pairatzen jarraitzen da, aurkako harremana dagoelako edo etxebizitzaren zaintzarekin lotutako arazoei eta auzokoen arteko harremanari aurre egin nahi ez zaielako (Provivienda, 2020) (García, A & Buch E., 2020). Egindako azterketan, errentatzaile eta alokairuan dagoen pertsonaren arteko harremanari begiratzen badiogu, argia da tratua diferentziala edo desberdina, eta diskriminazioaren biktimaren aurkako jokabide jakin batzuekin lotuta dago nagusiki.

Analisiaren barruan sarriago agertzen den bigarren adierazpena bizilagunekiko harremanari buruzkoa da, eta partekatutako espazio komunetan gizalegearen kontrako portaera (zikinkeria, zarata...) dagoela uste izatean oinarritzen da. Hori dela eta, etxebizitzaren inguruko edozein arazoren erantzuleak direla adierazten diete, eta, askotan, aurkako jarrerak agertu dituzte; gainera, bizilagunen artean tentsioak eta gatazkak sortzearen errudun dira (Álvarez, García, Moreno, Parejo & Sánchez, 2022).

Auzokide komunitateen harira, esan beharko litzateke ijitoak egoteak mesfidantza eta beldurra sortzen duela auzokieengan, baina egoera hori aldatu egin zen Covid-19aren pandemiarekin, zeren pertsonen arteko loturak sendotzeko unea ere izan zen komunitate-mailan. Aipatutako adierazpen arrazistekin batera, osasun-krisiak eragindako muga-egoerak, batzuetan, sare informalen laguntzari esker ordeztu dira, hala nola auzokoen arteko harremanei esker.

“Los que estamos en este bloque, somos una especie como de familia, vamos a decirlo así, porque ahora en pandemia he intentado ayudar a mis vecinos. ¿Cómo? Intentando ayudarles en lo que ellos carecen en ese momento: alimentación, ayuda en algo, o simplemente, hay unos señores viejitos, intentando ir a la compra para ellos para ayudarles, como seres humanos simplemente.” Madrilgo udalerriko Pueblo Gitano taldeko PVDR gizona.

Tratu hurbil eta positiboari esker, oro har aplikatzen diren aurreiritzi negatiboak gaintitu dira batzuetan. Horrela, zenbait testigantzek adierazten dute jabeek edo bizilagunek portaera aldatu dutela estereotipo arrazistak proiektatzen dituzten pertsonak ezagutu ondoren. Adibide horrekin argi ikusten da ijito herriarekiko estereotipo ugari dagoela, eta ez direla ijitoen ezaugarri; baizik eta, arrazoi gabe beste pertsona betzuei entzundako ideia inferituak.

### **2.6.3. Hezkuntza**

Ijitoak ez diren pertsona askok uste dute ijitoek ez dutela hezkuntza baloratzen. Hala ere, ijitoen hezkuntza-maila txikiak oztopo handia dira lan-merkatuan sartzeko. Haur ijitoak heztea funtsezkoa da pobrezia gaintitzeko, baina haien hezkuntza-maila baxuaren arrazoiak konplexuak dira eta ez dira familietara mugatzen.

Haur ijitoek oztopo ugari dituzte eskolara joateko. Kokaleku berezietan bizi direnentzat desplazamendua erronka garrantzitsua da. Gainera, gurasoek askotan ez dute baliabide finantzariarik arropa egokia, eskola-materiala eta janaria erosteko. Irakasle batzuek ikasle ijitoekiko dituzten itxaropen txikiak ere problematikoak dira. Bizi-maila, gurasoen enplegua, etxebizitza eta osasuna bezalako faktoreek eragina dute hezkuntzarako sarbidean, eta arazo konplexua eta erlazionatua eragiten dute.

Europako herrialde batzuetan, ikasle ijitoak eskola berezietan edo adimen-urritasunak dituzten haurrentzako eskoletan kontzentratuta daude, eta hori salatu egin du Giza

Eskubideen Europako Auzitegiak. Gainera, Europako hainbat herrialdetan, ijitoak ez diren ikasleen gurasoek manifestaldi antigitanoak egin dituzte eskola bereizien sarreran.

Eskolara edo unibertsitatera joaten diren ijitoek ere diskriminazioari aurre egiten diote. Irakasle batzuen ustez, ikasle ijitoak onartzeak beren erakundeen ospea kaltetzen du. Diskriminazioari buruzko Eurobarometroaren arabera (2012), EBn inkestaturen % 62 deseroso sentituko lirateke seme-alabek ijito-kideak izango balituzte, eta ehuneko hori % 55 izango litzateke Espainian.

Europako hezkuntza-sistemetan arazo garrantzitsu bat curriculumetan dagoen kultura-aniztasunaren gabezia da. Testu-liburuek, askotan, ijito-komunitatearen irudi negatiboa izaten dute, edo ez dute kontuan hartzen erabat. Ijitoen historia eta kultura ez daude eskola-programetan txertatuta.

“Esta aparente falta de interés y/o conocimiento sobre la cultura gitana, no facilita el trabajo en el aula con el alumnado gitano. Al contrario, parece favorecer que los escolares gitanos se muestren desinteresados y ajenos a muchas de las tareas y ejercicios escolares que se les proponen, así como a los propios profesores e iguales” (Alós, C. 2012).

Ijitoen identitate etnikoa behar bezala onartu eta sustatu beharko litzateke. Ijitoen hizkuntza, historia eta kultura bezalako elementuek hezkuntza-maila guztietan egon beharko lukete, norberaren autoestimua bultzatzeko, kultura-desberdintasunarekiko jarrera positiboa sustatzeko eta gizarte inklusiboa eta kulturartekoa sustatzeko.

Ijito-familiek hezkuntza-sistemari buruz duten pertzepzioa positiboki alda daiteke, baldin eta sistema horrek ijitoen kultura barne hartzen badu. Horrela, haur ijitoak motibatuta sentituko dira ikasteko eta ingurune inklusibo eta seguru batean parte hartzeko, non errespetatuak eta baloratuak sentitzen diren, bai antzekotasunengatik, bai desberdintasunengatik.

Espainian, hezkuntza-maila baxua da, bai helduengan, bai haurrengan. Lehen Mailako Hezkuntzako ikasketak amaitu ez dituzten 16 urtetik gorako ijitoen kopurua % 70ekoa da. Arrazoiak hauek dira: eskolara ez etortzea, biztanleria-talde horrekin

hezkuntza-erakundeek emaitzarik ez izatea, ikasketak goiz uztea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hasten diren ijitoen % 20k soilik amaitzen ditu ikasketa akademikoak, eta hezkuntza-prozesuaren jarraitutasun eskasa da arrazoi nagusia. Bereziki adierazgarria da neska ijitoen uzte-goiztiarraren indizea handiagoa izatea mutil ijitoena baino; eta analfabetismo-indize handiagoa emakume helduen artean, gizonen artean baino. Bi kasuetan, tasak biztanleria orokorrean baino askoz handiagoak dira.

Ijito-gazteak derrigorrezko ikasketen ondoko ikasketetara (batxilergoa, erdi-mailako heziketa-zikloak edo unibertsitatea) pixkanaka ari dira sartzen, baina gero eta nabarmenagoa da ikasle ijitoen presentzia ikasketa mota horietan eta espezialitate profesional askotan.

Horrek eragin positiboa du ijito-komunitateko kideen kualifikazio eta espezializazio profesionalaren mailen hazkunde geldo baina progresiboan. Horren arrazoia da, batez ere, ikasketak eta kualifikazio ertain eta altuko enpleguak dituzten ijitoen erreferenterik ez dagoela eta ijito-familia askok baliabide ekonomiko gutxi dituztela ikasketak ordaintzeko.

Bestalde, gutxi dakigu goi-mailako ikasketak dituzten ijito profesionalak daudela, eta gero eta ijito gazte gehiago unibertsitate-ikasketak egiten ari dela. Errealitate horiek zabaltzeak hezkuntzari buruzko estereotipoari aurre egiten lagunduko luke.

## **2.7. Lana, etxebizitza eta hezkuntzaren eremuko diskriminazioei aurre egitea**

Etxebizitzaren Funtzio Sozialaren Bermearen Printzipio Gidariekin 7. artikuluan ezartzen dutenez, administrazio publikoek etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren baldintzak sustatu behar dituzte, bereziki adingabeak ardurapean dituzten familientzat. Gainera, babesa zaindu behar dute.

Etxebizitzaren alorrean auzokideekin gertatzen diren gorabeherak kontuan izanda, proposamen sinple eta eraginkor bat azalduko da hemen. Proposamen honek, beharbada, ez du gizarte osoan eragingo, baina nonbaitetik hasi beharko da ijitoenganako estereotipoak

apurtzen *Discriminación racial en el ámbito de la vivienda y los asentamientos informales*

(Álvarez, García, Moreno, Parejo & Sánchez, 2022) lanean aurki daiteke esaldi hau:

“Resulta interesante también destacar que, situaciones que requieren de colaboración y apoyo vecinal como lo ocurrido durante la pandemia, sirven para evitar conflictos sustentados en el desconocimiento y los prejuicios racistas” (Provivienda, 2021).

Beraz, esaldi hori aztertuta, esan daiteke eraginkorra izango litzatekeela ijitoen inguruko payoekin harremantzea; horrela, aurreiritziak desmuntatu egin baitaitezke. Neurria auzoetara ireki daiteke eta, gehien bat, elkarteek auzokideen arteko jarduerak planteatu ahal izango litzukete auzokideen artean ezagutarazteko. Ezagutza horrek mesede handia egingo lioke auzoari, eta baita ijitoei ere; gainerako payoekin harremantzeko aukera emango lieketelako eta horrela estereotipoekin apurtu. Ez da ohikoena auzoetako dinamika horiek erakunde publikoetatik sortzea; horregatik, horren alternatiba litzateke ijitoen elkarteei diru laguntza handiagoak ematea auzokideen artean sortuko dituzten jarduerak burutzeko.

“El pueblo gitano sabe que lo importante es educar tanto a la población gitana como sobre todo a la no gitana en el ejercicio de esa capacidad de escuchar para conocer, de esa capacidad de vencer el miedo al otro, porque ese otro solo será un nosotros y no un otro a discriminar cuando le reconozcamos” *Discriminación y exclusión social: el pueblo gitano en el País Vasco* (Manzanos, d.g. 12.or.).

Horrekin ikus dezakegu zein garrantzitsua den ijitoen eta payoen artean ezagutzeko edo harremanak sustatzeko politikak egitea. Harremantzeko politikak ezartzea izan daiteke estereotipoei aurre egiteko modu eraginkor bat.

Hezkuntzaren eremua ikertu den bezala, ijitoenganako hainbat estereotipo daude eta horrek ijitoen hezkuntzaren arrakastan eragina du. Arazo mota horri aurre egiteko, hezkuntza interkulturala mugimendu berritzailea proposatzen da lan honetan, etnia ezberdinen bizikidetzari erantzuteko asmoz sortutako mugimendu berritzailea da.

Proposamen honen helburu nagusia, gaur egungo aniztasun kulturalari erantzuna ematea da, denon heziketa ahalik eta hobereena izan dadin; gainera, talde kultural ezberdinen interesak eta beharrak kontuan hartu beharko lituzke. Horrela, ijitoen arazoari aurre egin ahal izango zaio arazoa ikusezin bihurtu beharrean edo ijitoei egotzi beharrean. Hezkuntza interkulturala aurrera eramateko beharrezkoa da ijito-kultura eta haren aniztasuna hezkuntza-prozesuan aitortzea eta baloratzea; kulturarteko hezkuntza eta aniztasunarekiko arreta barne (Salinas, J., 2002; Etxeberria, F., 2002). Horretaz gain, Kulturarteko hezkuntzak hainbat gaitasun garatu behar ditu; hala nola, kultura-aniztasuna ulertzea eta errespetatzea, gogoeta kritikoa eta aztertze gaitasuna (Salinas, J., 2002; FSG, d.g). Gainera, ikasle guztientzako ikaskuntza-giro egokia eta eroso sortu behar da, ijitoak barne, haien integrazioa eta hezkuntzan parte hartzea sustatzeko (Salinas, J., 2002; FSG, d.g).

Hau egin behako litzateke hezkuntza interkulturala aurrera eramateko:

1. Eskola barruko interkulturalitate eta kultur aniztasunaren lanketari buruzko ikerketa egitea (metodoak ezagutu, egoerak aztertu... )
2. Errespetua eta berdintasuna sustatzeko dinamikak ezagutzea, eta, ondoren, ikasgeletan martxan jartzea.
3. Ikerketa burutu ondoren, esku-hartze bat proposatzea ikertutakoa praktikan jartzeko eta emaitzak ikusi ahal izateko.

Eskola bakoitzak egoera eta idiosinkrasia ezberdindua du, beraz, eremu desberdinetako eskolak hartu beharko lirateke ikerketa egiteko, eta horrekin esku-hartzea proposatu. Ezin da esku-hartze bera erabili eskola guztietan, ez luke funtzionatuko eta ez luke arazoa konponduko. Eskola bakoitzera edo eskolen egoera bakoitzera moldatutako esku-hartzeak proposatu behar dira. Esaterako, proposamen bat eskoletan historia ematen den unean ijitoen inguruko historia ematea litzateke; izan ere, urte asko daramatzate euskal lurretan eta hezkuntza sisteman ez dira aipatzen inongo ikasgaitan. Horrek erreferentziak emango lizkieke ijito haurrei eta sustatuko luke eskolan jarraitzeko nahia.

Hezkuntzarako ekarpen handiak izango lituzke hezkuntza interkulturalak: aldaketa positiboak ekarriko lituzke gizartean; azken finean, eskoletan dauden umeei sortuko baitute etorkizuneko gizartea. Horretaz gain, errespetua, berdintasuna eta elkarbizitza sustatzea ere ekarriko luke, eskoletan hainbat etniatako ikasleak batera egongo liratekelako, eta egoera horretara moldatutako esku-hartzeak proposatuko liratekelako. Eskola inklusiboa sortuko litzateke, esku-hartzeek estereotipoak desmuntatuko lituzkete eta inklusioa sustatu. Hezkuntza Komunitatea kontuan hartzea ere funtsezkoa litzateke, haiei egokitutako neurriak hartu ahal izateko.

Azken urteotako egoera dela eta, arrazakeria eta xenofobia nabariagoak dira hezkuntzaren munduan, eta zerbait egiteko beharra dugu gaitz horiek saihesteko. Lehenik frogatu beharko litzateke: gaiari buruzko informazioa bilatu eta aztertu, ondoren eskolaren batean esku-hartu, eta, azkenik, emaitzak ikusi eta hausnarketa egin gerora esku-hartzeen proposamenak egiteko. Amaieran, beste eskoletan txertatzeko plangintza diseinatu.

Hezkuntza interkulturalaren baitan, euskara komunikazio-hizkuntza gisako elementu garrantzitsutzat hartu beharko litzateke prozesu osoan zehar. Jarraian, aurkeztuko dira ijitoak eta euskara integratzeko kulturarteko hezkuntzari buruzko puntu funtsezko batzuk.

Azaldu bezala, hezkuntza interkulturala funtsezkoa da ijitoak hezkuntzan integratzeko, haien kultura eta aniztasuna balioetsi eta errespetatzeko aukera ematen baitu (Salinas, J. , 2002; Etxeberria, F. , 2002). Euskal herrien kasuan, euskarak izan beharko du ijitoak hezkuntzan integratzeko komunikazio-hizkuntza; betiere, ijitoen ikaskuntza prozesua bultzatzeko metodologia eta baliabide egokiak erabilita (Salinas, J. , 2002;ASGG, 1999).

Euskara hizkuntza ofiziala da Euskal Herrian, eta komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzen da ikastetxe gehienetan. Hala ere, ijitoak euskararen bidezko hezkuntzan integratzea erronka izan daiteke, ijito nagusi askok ez duelako hizkuntza hori ezagutzen eta menderatzen (Villameriel. M., 2002; Etxebarria, F., 2002). Ijitoak euskararen bidezko hezkuntzan integratzea lanbide zaila izan daiteke, ikasle ijitoekin lan egiten duten irakasleentzako baliabide eta laguntza faltagatik; baina ijitoen artean euskara ez ezagutzeak



edo ez menderatzeak gizarte eta hezkuntza bazterketa ekar dezake (Villameriel. M., 2002; de Haro Rodríguez, R., 2009). Beraz, hezkuntza interkulturean euskararen txertatzea eragin positibotzat hartu behar da, inolaz ere.

Horretarako, euskara ikasten eta ijitoak hezkuntzan integratzen laguntzeko metodologia eta baliabide espezifikoak erabili behar dira; hala nola, kulturarteko hezkuntza eta aniztasunarekiko arreta (Salinas, J. 2002) (FSG. d.g). Baina eginkizun horiek aurrera eramateko, irakasleek eta hezkuntza-erakundeek laguntza eta baliabideak behar dituzte; horren barruan sartu beharko litzateke programa espezifikoak sortzea kulturarteko hezkuntzako prestakuntzarako eta ijitoak hezkuntzan integratzeko (Villameriel. M., 2002; Etxebarria, F., 2002).

*Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia 2018-2020 (Eusko jaurlaritza, 2018)* argitalpenean, euskarari ez zitzaion ia aipamenik egiten. Plan osoan hurrengo proposamenean soilik agertzen zen:

“Ikastetxearen urteko planak hobetzeko helburuen artean estrategia eta jarduera inklusiboak sartzea, ikasle ijitoen emaitzak hobetzea lortzeko. Helburu horien segimendua eta ebaluazioa egin ahal izateko, adierazle neurgarriak ezarriko dira, haien bidez ikasle horien urteko aurrerapenak egiaztatu ahal izateko; berebiziko arreta jarriko da hizkuntza gaitasunean euskarari dagokionez.”

Ikus daiteke soilik arreta eskainiko diotela aipatzen dela, ez da neurri zehatzik azaltzen.

Aldiz, *Ijito Herriarekiko Euskal Estrategian 2024-26an* (Eusko Jaurlaritza, 2022) gehiagotan aipatzen da eta neurri zehatzagoak ematen dira. Gainera honako hau aipatzen da: “Euskal Herriko kide izatearen elementu positiboak (esaterako, euskara) naturaltasunez uztartu behar dira elementu propioekin, kulturartekotasunaren izenean”. Jarraian proposatu ziren ekintza batzuk aipatuko dira: ijitoen erakundeen, ijitoen aldeko erakundeen eta Ijito Herriaren Euskal Kontseiluaren partaidetza sustatzea Euskaraldian, Ikastetxeei beharrezko baliabideak ematea (orientabideak, estrategiak, giza baliabideak...), ikasleek eskatzen zaien

hizkuntza-gaitasuna lor dezaten. Familiekin euskarara hurbiltzeko estrategiak partekatzea eta haien ikaskuntza bultzatzea. Neurri horiez gain, Euskadiko hizkuntza propioa (euskara) ikasteak eta erabiltzeak ematen duen abantailaz gain, ijitoek *Berbalagun* bezalako programetan parte har dezaten sustatzea da ohikoak ez diren gizarte-harremanak sortzeko aukera bat. Azken neurri honetan ikusi daiteke nola lan honetan proposaturiko bi neurri uztartzen diren. Alde batetik, euskara ikastearena, eta, bestetik, komunitate berekoak ez diren kideekin harremanak sortzea estereotipoak apurtze aldera.

Laburbilduz, kultura arteko hezkuntza eta euskara komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea tresna garrantzitsuak izan daitezke ijitoak hezkuntzan integratzeko; betiere, metodologia eta baliabide egokiak erabiltzen badira, eta ijitoen kultura eta aniztasuna baloratzen eta errespetatzen bada. Ezin daiteke ahaztu gai korapilatsua eta oso konplexua dela, eta irakasleentzako eta hezkuntza-erakundeentzako laguntza eta baliabideak behar-beharrezkoak direla.

### 3. Atal enpirikoa

Jarraian aipatuko diren datuen sinesgarritasuna eta etikotasuna bermatzeko ondorengo pausuak hartzea ezinbestekoa izan da ikerketarentzako, horretarako momentu oro 15/1999 Lege Organikoa, Izaera pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa, kontuan izan da datuak bildu eta erabiltzerako orduan. Lehenik eta behin parte hartzaileak ez dira derrigortuak izan galderak erantzutera eta elkarrizketak gauzatzera.

Elkarrizketatuei momentu oro adierazi zaie beraiein erantzunak zein helbururekin erabiliak izango diren, eta elkarrizketak grabatua izateko galdetu zitzaieen ea ados zeuden teknika hori erabiltzeaz. Horretarako baimen bat aurkeztu zitzaieen bi elkarrizketatuei baimena esplizituki emateko eta sinatuta egoteko. Pribatutasuna gordetzeko heluruarekin elkarrizketatuen izenak erabiltzeko galdetu zitzaieen eta baimena ere eman zuten.

#### 3.1. Violetaren esperientzia eta estereotipoak: hezkuntza, etxebizitza eta lana

Ijitoen gaia sakonago aztertzeko eta behar duen ijito ahotsa edo ikuspuntua azalarazteko, atal enpiriko honetan emakume ijito bati eginiko elkarrizketa txertatzea erabaki da. Violeta Pérez Manzanori egindako elkarrizketa ekarri da lanera, zeren gazte hau hainbat elkartetan ari da parte hartzen aktiboki eta EHU<sup>n</sup> Zuzenbideko graduan matrikulatu den lehen emakumea ere izan da.

Violeta Perez 2001eko urriaren 24an jaio zen Derion. Betidanik bizi izan da Txorierrri bailarako herri Bizkaitar horretan. Bere herriko bertako eskolan eta institutuan ikasi zuen. Batxilergoa amaitzean, EHU<sup>n</sup> Zuzenbideko graduan matrikula egin, eta, nahiz eta lehen urtean ijitoa izateagatik sufritu behar izan zuenaren erruz ia gradu ikasketak alde batera utzi, azkenean, graduatu egin zen 2023an; gainera, GRALean ohorezko matrikula lortu zuen. GRALaren gaia *Historia jurídica del pueblo gitano en España* izan zen. Gaur egun, abokatutza eta prokuradoretza masterra egiten ari dal. Hori gutxi balitz, kirol munduan

ibilitakoa ere bada; izan ere, taekwondo kirolean Espainiako txapeldunordea izan zen 2023an.

Violetak hainbat elkarterekin egiten du lan; besteak beste, Amuge eta Romi Berriak elkarteekin.

Amuge elkartean interbentzio eremu asko dituzte, Violetak gehien bat hezkuntza eta akonpainamendu juridikoan egiten du lan. Hezkuntzaren alorrean segregatuta dauden hainbat hezkuntza zentrotara joaten dira eta bitartekaritza lana egiten dute familien, ikasleen eta zentroen artean. Horretaz gain, ijito ikasleriaren arrakasta akademikoa sustatzeko hezkuntza euskarri lana ere egiten dute; erreferente gisa jarduten dute. Violetaren iritziz, oso garrantzitsua da ume ijitoek irakasleriatik kanpo norbait izan dezaten haien erreferente. Bere esperientzia pertsonaletik dio, eta lehen eskutik ezagutzen du gaia, on egiten duela erreferente argiak izateak.

Akonpainamendu juridikoari dagokionez, hainbat familia artatzen dituzte akonpainamendu eta aholkularitza juridikoa bermatuz. Violetak dio beharrezkoa dela lan hori burutzea ijitoek haien espazioak har ditzaten.

Lehenik eta behin, atal enpirikoa den aldetik, ijitoenganako diskriminazioa existitzen dela frogatu nahi da; horretarako, Violetak kontatutako pasarte batzuk aipatuko dira. Bere eguneroko bizimoduan, gehien eragiten dion diskriminazioa familiarekin, lehengusinekin edo ijito-lagunekin edozein dendatara joaten delarik ere, lapurretan egingo dutela uste dutelako jazarpena da. Behin, amarekin zerbait hartzen zegoela, mugikor bat lapurtu zutela pentsatu zuten inguruko bezeroek.

Violetaren biografia aztertu ondoren, eta parte hartzen duen elkarteak ezagututa eta azalduta, estereotipoen gaiari buruz galdetu zaio. Beraz, estereotipoen gaia jorratuko da jarraian.

Gaiari heldu, eta egin zaion lehen galdera izan da gizartean dagoen estereotipoen pertzepzioaren ingurukoa. Elkarteetako kidea den aldetik, datuak erabiliko dituela eta horiek ikusita edo esperientzietatik abiatuta, ijitoen kontrako estereotipoen kontzientziarik dagoen gizartean galdetu zaio.

Ezetzta erantzun du jarraian, ez dagoela ijitoekiko estereotipoei buruzko benetako kontzientziarik, askok uste baitute estereotipo horiek egiazkoak direla. Aipatzen du, bere esperientzia pertsonaletik, esaten duenean ikasketak dituela eta kirolean ona dela, beti jasotzen duela erantzun bera: ez duela ijitoa ematen edo ez dela besteak bezalakoa.

Horrek iradokitzen du ijitoei buruz uste dena egiazkotzat hartzen dela, eta ezjakintasun horrek estereotipoak elikatzen dituela. Norbaitek ijitoei buruz ezer ez badaki, haiei buruz duen ideia, edo etxean kontatu diotena, egiaztat hartzen da. Hori bera da lanean zehar jorratutako ideia; hau da, estereotipoak inferitutako oinarririk gabeko ideiak direla eta gizartearen hedatu egiten direla.

Hala ere, Violetak badu alde itxaropentsu bat, elkarteak egiten ari diren lanarekin pixkanaka hori aldatzen ari dela uste duena. Beharbada, duela 10 urte ezjakintasun handiagoa zegoen, baina orain aldaketa batzuk ikus daitezke. Hala ere, hori begiratzen den ikuspegiaren araberakoa da.

Ijitoa dela esan duen guztietan, komentario berberak jaso ditu, unibertsitatean izan ezik lagunekin, ez baitu inoiz horrelako erantzunik jaso izan. Hala ere, egoera horretatik kanpo, komentarioak honako hauek izan dira: "Zu ez zara ijitoa", "Zu ez zara besteak bezalakoa". Bizitzako eremu guztietan jaso ditu komentario berberak, ez du alorrik bereizi, hezkuntzan, zein lanean edo etxebizitza alokatzean beti jasan ditu diskriminazioak.

Izan ere, ijitoei buruz dauden estereotipoekin bat ez datozen gaiak ikasten edo ekintzak egiten ez badituzu, askorentzat jada ez dirudizu ijitoa. Horrek erakusten digu zein errotuta dauden oraindik ere estereotipoak, eta ez dugun onartzen inferitutako ideiak besterik ez direla. Horrelako kasuak agertzean, jendeak eszepzioak direla esaten du, eta, berez, ijitoak sortutako estereotipoak dituzten pertsonak direla. "Encasillar a un pueblo en estereotipos negativos provoca el racismo diario" (La galeria de la revista digital, d.g.) Esaldi horrekin adierazten da nola estereotipo negatiboak baditugu ijito herriarekiko, behin ijito bat ezagu eta "kasilla" horietatik ateratzen bada, ez dela ijitotzat hartua izango edo hartu nahi izango.

Ijitoen kultura eta historia ezagutzeak eta ulertzeak aurreiritziak eta estereotipoak murrizten lagun dezake. Pertsona batzuek beren pertzepzioak alda ditzakete ijito-komunitatearen kultura-aberastasunari eta aniztasunari buruz ikasi ondoren (Cortes, T. 2020; Ministerio de Sanidad, d.g.). Kultura eta historiaz gain, ijito-komunitateko kideekiko interakzio pertsonala funtsezko faktorea izan daiteke aurreiritziak murrizteko. Pertsona batzuek beren pertzepzioak alda ditzakete ijitoekin elkar eragin ondoren, uste zuten bezain desberdinak ez direla ohartuta (Cortes, T. 2020; La galeria, d.g.).

Horrekin lotuta, estereotipoaren salbuespenak egoteak pertzepzioak aldatzen lagun dezake. Pertsona batzuek beren pertzepzioak alda ditzakete, ijito guztiak estereotipo negatiboetara egokitzen ez direla ikusi ondoren (FSG, 2004). Beraz, oso garrantzitsua da ijito komunitatean erreferente gisa eta ijitoen estereotipo horiek apurtzen dituzten ijitoak egotea. Violetak, lehen aipatu bezala, hezkuntza sisteman umeen erreferente izateak motibatu egiten ditu ikasleak, eta beraz, estereotipoak aldatzen lagun dezake.

Elkarrizketatuak aitortzen du jasotako komentario horiek nahiko gogorrak direla, eta, bereziki nerabezaroan, min handia egin ziotela eta nortasun-krisia ere eragin ziotela. Inguruko jende guztiak esaten badio ez duela ijitoa ematen, "agian ez naiz ijitoa", pentsatzen zuten. Oso zaila da hori jasatea pertsona gazte batentzat, eta prozesu psikologiko bizi samar batera eraman zuten egoera horrek.

Jendeak ijitoa zela ez zekienean eta gero jabetzen zirenean, beti harritzen ziren. Ez du inoiz topo egin harritzen ez den inorekin. Esperientzia horiek esparru guztietan bizi izan ditu; bere egunerokoan, ijitoa dela esan duen bakoitzean, beti komentario berberak jaso ditu. Kasu batzuetan beste batzuetan baino tratatu okerragoa jaso du, baina aipatu duen guztietan, erantzun berberak jaso ditu bere bizitzako espazio guztietan.

Ondoren, Violetari ijitoek zein alorretan jasaten duten diskriminazio gehien galdetu zaio, eta baita bere bizitzan gehien jasan izan dituen diskriminazioak zeintzuk izan diren ere. Hasiera batean era orokor horretan galdetu zaio bere erantzunaren nondik norakoa ikusteko, ondoren zehatzago hezkuntza, etxebizitza eta lanaren eremuko estereotipoen

inguruan galdetu zaio. Lehenik galdera orokorra egitea hautatu da; izan ere, horrela ez da erantzunik mugatzen eta datu gehiago jaso ahal direlako.

Elkarrizketatuak azaldu du gaur egun ijitoei buruz dauden estereotipoak duela 600 urteko berberak direla. Asko dira ijitoenganako estereotipoak, baina batzuk aipatu beharko balitu, hauek lirateke: ez dute lanik egin nahi; gainera, pertsona gatazkatsuak direla, eta ahal duten guztietan delituzko ekintzak egiten dituzte, lan egin nahi ez dutenez, Gizarte Zerbitzuetatik jasoten dituzten laguntzetatik bizi dira; neska ijitoek ezkontzan baino ez dute pentsatzen, ez dute ikasketetan pentsatzen eta senar bakarra izan nahi dute, eta horregatik ezkontzen dira gazte.

Ikusi daiteke, orain arte ikerketan azaldu diren estereotipo nagusiak baieztatzen dituela Violetak. Lan eremua eta hezkuntza aipatzen ditu; nahiz eta etxebizitzaren ez duen aipatzen, elkarrizketan aurrerago aipatuko du behin pisu bat alokatzeko deitu zutela higiezin agentziara eta telefonotik baietza eman ziela hasiera baten, baina bertaratu zirenean, langileak ezin zuela alokatu aipatu zien. Beraz, arlo horretan ere badago diskriminazioa.

Jarraian, aukeratutako estereotipoak; hau da, lana, etxebizitza eta hezkuntza, banaka aztertuko dira Violetaren elkarrizketan jasotako erantzun eta hausnarketekin.

### **3.1.1. Estereotipoen eragina lan eremuan**

Lanaren arloa jorratu denean elkarrizketan, elkarrizketatuak esan du ez duela inolako diskriminaziorik bizi izan lan eremuan, eta ez duela sentitu diskriminaziorik, batez ere bere lan-esperientzia ijito-elkarteetan izen delako orain arte; ez du esperientzia askorik izan arlo horretatik kanpo. Hala ere, Amuge elkartetik ikastetxeak bisitatu dituztenean, diskriminazioa sentitu du inoiz, eta, behin baino gehiagotan, gutxietsi dutela sumatu du.

Elkarteko lan-elkarrizketei dagokienez, ez du sekula diskriminaziorik sentitu. Hala ere, jakin daki ijito gehienek jasaten dutela diskriminazioa. Jakitun da ijito ez direnen enpresaren batera joango balitz, ziurrenik diskriminazioa jasan beharko lukeela. Sentimendu hori maiz sentitu du unibertsitate-ikasketetan. Lankideen baino espediente akademiko hobea izan

dezakeen arren, jakin daki abokatu-bulego batean lana aurkitzea gehiago kostatuko zaiola. Hori da daukan sentimendua, errealitatea horrela izango den ala ez ziur ez badago ere.

Alferrak izatearen estereotipoari dagokionez, Violetak dio ez dagoela batere justifikatuta. Bere etxean, denek egiten dute lan, baita aitona-amonek ere. Egia da lan-merkatuak irisgarritasuna txikiagoa dela, txikitatik zailtasunak izaten dituztelako eskola-arrakasta lortzeko, eta, ondorioz, haientzat zailagoa da hain prekarioak ez diren lanpostuetara iristea. Hala ere, gehienek gogor egiten dute lan.

Azoka txikietara joatea, adibidez, ahalegin handia eskatzen duen lana da: goizean goiz joan behar duzu, muntatu, desmuntatu eta han egon egun osoan. Etorkizunerako eskubiderik eskaintzen ez duten lanak dira gainera; hala nola, pentsioa edo gaixotasunagatiko ordainsaririk ematen ez dituzten lanak. Hori dela eta, oso prekarioak dira lanak, baina Violetak dio oso pertsona langileak direla ijitoak.

Lanarekin lotuta dauden estereotipoekin jarraituz, erakundeek ematen dituzten laguntzetatik bizi direnen estereotipoari buruzko datu batzuk eman ditu Violetak. Berak dio estereotipo hori ere, ez dela bidezkoa. Elkarte batean lan egiten duenez, jakin daki ijito batzuek laguntzak jasotzen dituztela, baina ez direla haiei esker bizi. Elkarrizketatuak dio laguntzak kontraesankorrak direla, bizitzako uneren batean laguntza ematen dizutelako, ez dizute askatasunez bizitzen uzten. Adibidez, autoa erosi nahi baduzu, baldintza batzuk bete behar ditu autoak, 2003a baino lehenagokoa izan behar du; berriagoa bada, laguntza kentzen dizute. Beti dago laguntza kenduko dizuten beldurra. Ezin zara lurraldetik atera justifikaziorik gabe, eta orain etxean wifia izateko aukera badago ere, duela 10 urtera arte ezin zuten laguntza jaso.

Kontrol handia dago laguntzak jasotzen dituzten familien gainean. Familia horietako gehienek ez dute egoera horretan bizi nahi; lana lehenbailehen lortu nahi dute mendekotasun horretatik ateratzeko. Hala ere, beti egiten diote aurre diskriminazioari beren bizitzako edozein arlotan, eta horrek zailagoa egiten du lana lortzea. Gurrpil zoro etengabea da.



### 3.1.2. *Estereotipoen eragina etxebizitzan*

Violetari, etxebizitzaren alorrari dagokionez, galdetu zaio tratu desberdinik nabaritu duen ijito izatearen ondorioz, eta erantzun argia eman du: beti sentitu dut tratu desberdina gainerakoekin alderatuta. Familiarekin batera, beti bizi izan da alokairuan eta diskriminazio mota asko jasan dituzte. Bizilagunek ijitoak izateagatik beragatik, edozer gauza esan diezaieketela pentsatzen dute.

Elkarrizketatuak etxebizitzarekin harremanetan bizitako esperientzia deigarri batzuk aipatu ditu; behin, pisu bat alokatu nahi zutenean, telefono bidez esan zieten etxebizitza bat eskuratzeko aukera zutela, baina zuzenean ikusi zituztenean, esan zieten ezinezkoa zela beste arrazoi batzuek medio.

*Discriminacion racial en el ámbito de la vivienda y los asentamientos informales* (Provivienda, 2021) ikerketan azaltzen den bezala, etxebizitzaren eremuko diskriminazioen kategoria aztertzen dute. Horietako bat zuzenean etxebizitza eskuratzeko oztopoak ezartzea da: Norbanakoek eta familiek etxebizitzen jabeek eta higiezin agenteez bilaketa-prozesuan izandako zuzeneko diskriminazio-esperientziak kontatu dituzte, eta agerian utzi dituzte etxebizitza modu ekitatiboan eskuratzeko oztopatzen duten diskriminazio-praktikak. Dagokigun adibidean, argi ikusten da nola ijito izateagatik ukatzen dieten alokairua. Izan ere, bat batean esaten baitietei ezin dutela alokatu.

Gainera, pisuen jabeak, askotan, alokatu nahi dutenak ijitoak direla jakitean, hiru hilabete aurretik ordaintzea exijitzen diete. Azken esperientzia horretan ere, ikus dezakegu etxebizitzaren estereotipoaren eraginak azaltzerakoan azaldu den zuzeneko diskriminazio erlatiboaren jokaera argia (Zuzeneko diskriminazio erlatiboa, baldintza espezifikoak areagotuz kolektibo jakin batzuk etxebizitza eskuratzeko eragozten du). *Discriminacion racial en el ámbito de la vivienda y los asentamientos informales* (Provivienda, 2021) lanaren arabera.

Kasu honetan bide bihurriak erabilia diskriminatu zituzten Violeta eta hare familia, (hiru hilabete aurretik ordaintzea) etxebizitzaren erabilgarritasunari buruzko engainu eta aitzakiak, gehiegizko klausulak eta prezioak, gehiegizko dokumentazio eta berme eskaerak. Horrez gain, oso arazo larriak izan dituzte haien azpiko etxebizitzako emakumearekin azken 5-6 urteetan, uste baitu makinak dituztela eta gauez legez kanpoko poltsak egiten dituztela azoketan saltzeko. Emakumeak salaketak jarri ondoren, polizia etxera etorri zaie, eta ez patruila bakarra gainera; inoiz, gaueko 11:00etan, igandearekin. Beheko auzokidea zuria denez, esaten duen guztia egiaztat hartzen da, zalantzarik egin gabe. Gerora, poliziak egiaztatu du salaketa horiek faltsuak direla. Arazoari irtenbidea emateko, hitzarmen bat sinatu behar izan dute udaltzaingoarekin: andre horrek deitzen duen bakoitzean, Ertzaintzari ez etortzeko abisua bidaltzearena, salaketa faltsua dela frogatuta baitago. Baina emakumeak jarraitzen du jarrera berberarekin, eta auzokideen elkarteak ez du ezer egiten, inork ez du ezer egiten. Hori, gaur egun, jasaten ari diren arrazakeria-ekintza argia da.

Etxebizitzaren estereotipoaren eragina azaldu denean lanean zehar, Proviendaren 2020ko ikerketan azaltzen den gisa, Violetak ere pairatu du auzokideengandiko diskriminazioa. Auzokideak edozein zarata edo jarrera ezegoki ikustean, uste dute ijitoak izan direla. Hori bera da Violetari gertatutakoa; izan ere, gauetan zarata handia egotea egotzi die auzokideak esanez poltsa ilegalak egiten dituztela.

Horrelako esperientziak bizi izan dituzte alokatutako pisu guztietan. Ikusten denez, etxebizitzaren alorrean ez dituzte soilik alokairuaren edo erosketaren unean jasaten diskriminazioak, baita auzokideengatik ere, jarrera arrazistak eta antigitanoak pairatzen dituzte etengabe.

Garrantzitsua da zehaztea bere abizenak Pérez Manzano direla eta, beraz, ezin dela jakin lehen momentutik ijitoa denik ez baititu ijitoen ohiko deiturak; ijito askorenak, oster, lehen begiratuan adierazten dute haien jatorria. Deitura horiek curriculum batean jartzeak diskriminazioa areagotzen du. Violetak ezagutzen ditu horrelako adibideak, ijitoen abizenak dituztelako zuzenean esan diete: "Ijitoa zara, ez dizut pisua alokatuko".

### **3.1.3. Estereotipoen eragina hezkuntzan**

Bere esperientzia pertsonalean, Violetak ez du inoiz bestelako traturik jaso irakasleen aldetik. Etxetik gertu dauden ikastetxeetan ikasi du beti, eta, halakorik ez denez, ez dio aurre egin hezkuntza-arloko diskriminazioari. Hala ere, institutuan entzun behar izan ditu komentario arrazistak, nahiz eta irakasleek ez zekiten bera ijitoa zenik. Adibidez, latineko irakasle batek behin aipatu zuen ijitoz betetako ikastetxe batetik zetorrela, eta ijitoek abestu eta dantzatu egiten zutela, eta egungo ikasleek askoz hobeto jokatzen zutela. Horrelako esamesak jaso dituen arren, ez du zuzenean espektatiba txikirik izan, beti saiatu baita hirukoitza egiten, eta besteak bezalakoa izan nahi izatearen etengabeko presioa izan du. Violetak uste zuen “txikiagoa” zela gizartearen pertzepzioengatik, ez irakasleen tratuagatik.

Egia da hezkuntzaren arloan inoiz ez dutela itxaropen txikirik ere izan bereganako; ikastetxe askotan, irakasleak ez dira neska ijitoekin ahalegintzen, laster ezkonduko direla onartzen baitute, eta ez duela merezi haiekin lan egitea. Aipatutako azken informazio hori oso deigarria da; bertan ikusi daiteke nola eragiten duten estereotipoek: nahiz eta ikasle ijito batek beste umeen bezain besteko gaitasuna izan, ez dute ahalegin bera egiten. Ijitoa izateak dakartzan ideia edo estereotipoen erruz, gutxiago exijitzen zaio eta horrek ondorio larriak izan ditzake. Estigmatizazioa eta autoestimua estereotipatzearen zeharkako ondorioak izan daitezke, eta ijito bati gutxiago eskatu. Horrek autoestimua baxua eta norberarengan konfiantzarik ez izatea eragin dezake (Alarcon, M.J., 2014; Cortés, T., 2020). Violetaren esperientzia pertsonalean ikusi dezakegu egoera hori, ez du inoiz hezkuntzan horrelako diskriminaziorik jasan zorionez, baina bere buruan ere bazegoen kapaza ez zenaren ideia eta autoestimuan eragina zuen. Baina estereotipoak ez daude soilik ijito ez direnengan, gizartean hedatzen diren neurrian, eta diskriminazioa eragiten duten neurrian, ijitoei haiei ere sartzen zaizkie buruan estereotipo horiek, haienganako dituzten estereotipo berberetan erortzen dira zoritxarrez.

Heldua izan denean, Violeta, estereotipoei buruz hausnartzean, konturatu da ijitoa izateagatik beti sentitu dela gutxiago, eta horrek eragina izan duela autoestimuan.

Horregatik, ikasle garaian hirukoitza lortzen saiatu da, askoz ere lan gehiago egin du lortu duena lortzeko, baina beti pentsatu izan du hori egin ezean txikiagoa izango zela. Ijitoa delako berak barneratu dituen itxaropen txikien ondorioa da hori; gizarteak ijito izateagatik ulertarazi dion estereotipoagatik.

Benetan, bere lankideekiko desberdintasun bakarra inguruan beste ijito-kiderik ez egotea izan dela sentitzen du. Hori ijitoen aurkako sistemaren ondorioa dela dio, sistemak ez baitu ikasle ijitoen arrakasta akademikoa sustatzen. Egoera horrek sentiarazi dio unibertsitatea ez zela bere espazioa, eta eragin negatiboa izan duela. Zuzenbide graduko lehen urtean, erabaki zuen ez zuela han jarraitu nahi, eta utzi egin zion ikasteari. Denbora horretan, oso gaizki pasatu zuen, gainerako lagunak baino askoz beherago sentitzen zen bizitzako arlo guztietan. Hau guztia, orain arte aipatu dugun gisa, estereotipoak errotuta daudenaren seinale dira; ijito ez direnen, zein ijitoen artean, gizarte osoan dago hedatuta.

Violetak, familiaren laguntzari esker, gradura itzuli eta klaseei ekin ahal izan ziren berriro ere. Graduko lehen urtean aurrera egin zuen, ikasturte berean hasi ziren ikaskideekin batera, eta lau urtetan amaitu zuen karrera. Lorpen hori, inolako zalantzarik gabe, duen barne-sendotasunagatik eta familiaren laguntzagatik izan da, karrera osatzeko gai zela gogorarazi baitzioten. Arazoa identifikatu eta babesa eman izan ez balio, gaur egun, ziurrenik, ezin izango luke istorio hau partekatu.

Aurreko paragrafoan azaldutakoarekin, nabarmen ikus daiteke estereotipoek eragin oso larriak dituztela ijitoen bizitzetan. Violetak zortea izan du familiak lagundu egin diolako, bera berez indartsua izan delako eta baliabide ekonomikoak izan dituelako. Baina beste hainbat ijitoren hezkuntza sistemaren inguruko istorioak, beharbada, lehen urtean bukatzen dira. Izugarri garrantzitsua da Violetaren azken hitzak kontuan izatea ijitoen arrakasta akademikoa bultzatzeko politikak sortu nahi badira.

“gracias a mi fortalecimiento interno y el de mi familia, de que realmente esa era mi carrera, que yo era capaz de estar en esa carrera y que me la iba a

sacar. Si no hubiésemos detectado el problema, probablemente hoy no podría estar diciéndote esto.”

Amuge eta Romi Berriak bezelako elkarteetan lan eginez, Violetak ikusi du ikasle ijitoek itxaropen txikiak dituztela irakasleen aldetik. Tratu horrek pena eta ezintasun handia ematen dio, heziketa funtsezkoa baita bizitzan. Batzuetan onartzea kosta arren, pertsona baten etorkizuna, neurri handi batean, jasotako hezkuntzaren araberakoa izan daiteke. Oinarritik itxaropen txikiak badaude, etorkizuna zaildu egingo da, lehen etapa horretan ez baitute babes sendorik izan. Laburbilduz, Violetak onartzen du oso egoera zailean bizi direla eta eragin negatiboa duela ijito gazteen bizitzan.

Irakasleriak ijitoenganako espektatiba gutxi izateak ondorio larri gehiago ere baditu etorkizunera begira ikasleriaren bizitzetan. Ijito bati estereotipoen ondorioz gutxiago exijitzeak gizarte bazterketa, marjinazioa eta pobrezia ekar ditzake (Gamero, M. 2020; García, O., 2023). Azken batean gainerako ikasleek momentuan baztertu egingo dute, eta, etorkizunera begira, gutxiago exijitzeak ikasleari lana aurkitzeko zailtasunak ekarriko lizkioke; eta horren ondorioz, pobrezia eta lana ez izateagatik, bazterketa gehituko litzaioke. Gutxiago exijitzeak zuzenean hezkuntza aukerarik eza ekar lezake, ez zaie hezkuntzan jarraitzeko aukerarik ematen ijitoei (Gamero, M. 2020)

Horretaz gain, aukerarik eta baliabiderik eza estereotipatzearen eta ijito bati gutxiago exijitzearen ondorio zuzena izan daiteke, eta horrek desberdintasun sozial eta ekonomikora eramán dezake (Alarcón, M.J., 2014; Gamero, M. 2020). Behin estereotipoen bidezko desberdintasuna eginda, errotu eta mantendu egingo da, ijitoak gutxiago direneko ideia indartuz. Ordezkaritza politiko eta sozialik eza ekar dezake, ijitoak gutxiago direneko ideiarekin ez baitira ordezkaritza horietara helduko. Gainera, gutxiago exijitzearen ondorio zuzena ijito-komunitatea aintzat ez hartzea eta ikusezin bihurtzea izan daiteke (Alarcón, M.J., 2014; Cortés, T., 2020). Hezkuntza sisteman ez badira kontuan hartzen ez dira haiengana zuzendutako politikak osatuko eta ez da, halaber, ijitoen eskolaratzea sustatuko.

Violetak aipatzen du zuzenean ez duela diskriminaziorik jasan hezkuntza sisteman, baina bai zeharkakoa era batera edo bestera. Azken batean, elkarteek ijitoen arrakasta

akademikoa bultzatzen badute ere, ez dago politika aktiborik erakunde publikoetatik ikasleen lorpen hori sustatzeko. Badirudi erakundeek ez dakitela zer gertatzen den ikasle ijitoen arrakasta akademikoarekin. Argi dago arazo bat dagoela, baina agintariek ez dute konpontzen. Egoera horrek ziklo biziotsua betikotzen du, eta oso zaila da horri aurre egitea.

Ijitoen eskolaratzea edo arrakasta akademikoa bultatzeko politika edo proposamenak: elkarrizketatuari ijitoek eskolaratuta jarrai dezaten egin beharreko ekintzei buruz galdetu zaio eta, hasteko, zein sistematan gauden ikusita, galdera nahiko korapilatsua eta zaila dela erantzun du. Hala ere, argi dauka zer ez den egin behar: bereizitako ikastetxeak sustatzen jarraitu. Bilboko auzo askotan, ikastetxeetako segregazioa auzoetakoa baino askoz handiagoa da. Auzo bereizi horietan bizi diren "payoek" nahiago dute seme-alabak itunpeko ikastetxe pribatuetara eraman ikasle gehienak ijitoak diren ikastetxeetara baino. Oso datu deigarria da ikastetxe publiko horietan ikasleen ehuneko oso handi bat ijitoa izatea, eta, duela urtebete arte, ikastetxe horietan ez eskaintzea "D eredia", eta hori oztopo esanguratsua da bizitza akademikorako, Euskadin ezin baitute euskaraz ikasi. Ijitoak izateagatik diskriminatuak izateaz gain, ez diete uzten edo ez diete aukerarik ematen euskara ikasteko, eta, Euskadin egonik, oraindik ere oztopo gehiago sortuko dizkie horrek. Ijitoak gutxiesteagatik gerta liteke D eredia ez eskaintzea segregatutako eskoletan.

Gainera, ikastetxe horietako irakasle batzuen tratuak "deja mucho que desear", eta, askotan, komentario antigitanoak egiten dituzte. Beraz, bereizketa hori konpondu egin beharko litzateke. Violetak aipatzen du, mugimendu edo alderdi politiko batzuek ikasleen zaugarritasun-tasa ikastetxe itunduen artean banatu nahi dutela; nolana ere, neurri hori desegokia dela iruditzen zaio. Hezkuntza publikoaren aldeko apustua egiten ari diren eta ikastetxe publiko batera joan nahi duten ikasleak ez lirateke itunpeko ikastetxeetara bideratu behar segregazio-tasa gainditzeko. Hori ez da neurri zuzena, eta ez du uste konponbidea horrela bideratzea eskola-segregazioa saihesteko modu egokia denik.

Violetaren ustez, ikasketak hasi zitueneko urte haietatik gradua bukatu duen arte, aldaketak egon dira; edo, alde batetik, baietz pentsatu nahi izango luke, baina ez dago ziur. Sozialki, elkarteetatik oso mugimendu indartsua dago, baina ez hainbeste erakunde

publikoetatik. Bere ustez, pertsonak, oro har, gero eta gehiago jabetzen dira ijitoek pairatzen duten diskriminazioaz, diskriminazio orokorraz, baina, bereziki, hezkuntzaren esparrukoaz. Hezkuntzaren arloan kontzientzia handitzen ari da, batez ere gaur egungo belaunaldiek haurrak eskolaratzeko aukera ekonomiko gehiago dituztelako. Adibidez, Violetaren gurasoen garaian, zailagoa zen hezkuntza munduan sartzea, dirua etxean behar zelako. Orain, premia hori gutxitu egin da, eta aldaketa horrek isla du, ijito-familietan ez ezik, gizarte osoan; pixkanaka bada ere, garrantzi handiagoa ematen ari zaio ikasteari. Horrekin, esan daiteke ikasleriaren arrakasta sustatzeko erakunde publikoetatik baliabideak eman behar dituztela; eta, diru laguntzak ez ezik, hainbat elkartetan egiten ari den lan pedagogikoa ere gehiago sustatu beharko luketela.

#### **3.1.4. Diskriminazioari aurre egiteko proposamen ideiak**

Violetaren elkarrizketa aztertu ondoren, ijitoen diskriminazioari aurre egiteko proposamen ideia sorta eman duela ikus daiteke. Elkarrizketatuak funtsezkoa ikusten du elkarteetatik egiten ari diren lana. Eskola eremuan dauden haurrekin esku-hartzea, ijitoei erreferentziazko pertsonak erakusten. Oso baliagarria ikusten du segregatutako eskoletara joatea ijito bezala, haurrek ikus dezaten ijitoa izanda ere ikasketak egin ditzaketela, eta hezkuntza sistema badela haien espazioa ere. Violetari horrelako erreferenteak falta izan zitzaizkion gaztetan, eta, bere iritziz, oso lagungarria izango zitzaizkiola aipatu du.

Positiboa da bere esperientzia partekatu ahal izatea, batez ere, ijitoen aurkako sistema batean biziz eta hezkuntza-sistemaren erronkei aurre eginez. Positiboa iruditzen zaio bere istorioa kontatzea. Hala ere, uste du beharrezkoa dela bide horretan jarraitzea eta gauzak egiteari ekitea aldaketak sustatzeko.

Horrez gain, hezkuntzaren eremuan aipatu den bezala, nahiz eta ez duen diskriminazioari aurre egiteko proposamen argirik, badaki zer egin behar ez den: arraza-segregazioaren balantzezko banaketak zentzurik ez du, eta hori ez da diskriminazioari aurre egiteko bidea.

### **3.2. Aurreiritziak lantzen dituzten inkestetako barometroen hausnarketa ijito begiradatik**

Violetari lanaren, etxebizitzaren eta hezkuntzaren inguruko estereotipoen inguruan galdetzeaz gain, inkesten barometroen inguruan ere galdetu zaio. Jada azaldu da lan honetan barometro horiek zeintzuk izan diren Ikuspegi behatokiak argitaratutako lanean, gai mamitsu eta interesgarria dela pentsatu da, eta atal enpirikoan hori lantzea ere garrantzitsutzat jo da. Izan ere, ijitoen ikuspuntua eta iritzia jakitea ezinbesteko baita horrelako inkestetan.

Sentimendu kontrajarriak ditu diskriminazioarekin lotutako inkestei buruz. Benetan beharrezkoak direla uste du, baina sentitzen du ez direla ondo egiten ari. Dagoeneko lan honetan aztertutako Ikuspegik egindako *Neurtu 2022*ko estatistika aipatu du galdera erantzutean. Estatistika horren helburua da euskal biztanleriaren arrazakeria-maila neurtzea. Violetak azaldu duenez, ikerketa horretako galdera batzuk garrantzitsuak dira; hala nola, "Alokatuko al zenioke etxe bat ijito bati?" ijitoa ez den pertsonen jarrera arrazista neurtzen dutelako. Hala ere, uste du beste galdera batzuk ez lirakekeela egin behar, esaterako: "Uste duzu haur ijitoak eskoletako hezkuntza-maila jaisten ari direla?" edo "Uste duzu gizon ijitoak matxistagoak direla ijito ez direnak baino?".

Azken galdera horiek, bere ustez, haien kulturari buruzko balio-judizioak egiten dituzte. Lehenik eta behin, gai horiei buruzko galderarik ez badiozu sekula egin zeure buruari, —haur ijitoek hezkuntza-maila jaisten ote duten, esaterako— estereotipoari buruzko hausnarketa eragin dezake eta iritzi okerra sorrarazi. Galdera horiek planteatzean, aurreiritziak eta estereotipoak finkatu egiten dira.

*Neurtu 2022* txostenaren beste alderdi kezagarri bat aipatzen du Violetak: galdera horiei erantzun zieten pertsona gehienek ez dutela inolako harremanik ijitoekin, eta horrela ezin da neurtu ijitoak nola tratatzen dituzten; baizik eta estereotipoetan eta ezjakintasunean oinarrituta erantzuten ari direla. Inkestaren emaitzak ikaragarriak eta gogorak izan zirela salatzen du elkarrizketatuak, eta datu horiek politika aktiboak bultzatu beharko lituzketen



arren, ezer ez dela egiten ari sentitzen du. Bere ustez, Eusko Jaurlaritzak inkesta bat eta azterlan bat dituen ez esku artean, bere burua zuritzen ari da; baina datu horiekin benetan zer egingo den galdetzen dio bere buruari Violetak.

### **3.3. Arartekoko teknikari bati elkarrizketa**

Arartekoaren bulegoko Itziar Barrenkuari egin zaio elkarrizketa lan honen atal enpirikoa borobiltzeko. Arartekoko gizarteratze, etorkin eta kultura-gutxiengoaren arloko arduradun tekniko da Itziar, eta ijitoei eta minoriei buruzko gaiak jorratzen ditu; beraz, lan hau garatzeko informazio baliagarria adierazi dezake. Arartekoaren Albia eraikineko bulegora bertaratu, eta aurrez aurreko elkarrizketa egin zaio

#### **3.3.1. Arartekoaren zeregina ijitoen alorrean**

Arartekoa Eusko Legebiltzarrak izendatutako erakunde publikoa da, eta haren titularrak izendatzen du. Funtzio nagusia da administrazio publikoen jarduketekin zerikusia duten kexak izapidetzea, baldin eta okertzat edo abusuzkotzat jotzen badira, edo arauak ez betetzearen zantzuak badituzte. Kexak izapidetzeaz gain, Arartekoak administrazio publikoen jarduna gainbegira dezake bisiten, politika publikoen diagnostikoen, ezohiko txostenen eta politika horiek ebaluatzeko azterlanen bidez.

Arartekoaren ardatza beti dago euskal administrazio publikoen jardunetan. Hala ere, Euskadin badira bere eskumenetik kanpo dauden beste administrazio batzuk ere, eta Estatuko Arartekoak kontrolatzen eta zaintzen ditu Estatuko Administrazio Orokorraren jarduerak. Sarritan, bi erakundeek modu koordinatuan lan egin behar dute.

Zentzu zabalago batean, Arartekoak payoen eta ijitoen arteko bizikidetzaren bezalako gaiak ere jorratzen ditu, eta euskal administrazio publikoarentzat interesgarritzat jotzen baditu, bizikidetzaren hori hobetzeko programak eta neurriak ezarri beharko lituzke.

Arartekoan eztabaidatzeko beste gai bat interes orokorreko gaietan esku-hartzeko aukera da, bereziki 1981eko araudiaren hurrengo aldaketarekin, interes orokorra ulertzeko

eta kudeatzeko modu berriak sar baititzake. Horri esker, defentsa-erakundeek hobeto babestuko lituzkete herritarrak.

Arartekoaren lana, batez ere, herritarren kexak izapidetzean oinarritzen da. Oso erakunde malgua da, eta kexak aurrez aurre, posta elektronikoz edo posta arruntez aurkezteko aukera ematen du. Horrek erraztu egiten du erakundera sartzea. Gainera, zerbitzua doakoa da.

Zerbitzu honetara presentzialki ere aurkeztu daiteke zerbitzua erabili nahi duenak, horren harira galdetu zaio Itziarri ea ijitoen gaiak lantzen dituztenek, presentzialki ijitoak haien bulegora doazenean, ea prestakuntza berezirik jasotzen duten estereotipoetan ez erortzeko, edo inplizituki diskriminazioak zuzentzeko eta horiei aurre egiteko. Itziarrek aipatu du erakundearen herritarren arretan lan egiten duten pertsonen prestakuntza sendoa eta inplikazio sozial handiko ibilbidea dutela. Nahiz eta ezin den esan ikastaro espezifikoak egin dutenik, oro har, gaituta daude herritarren arretan, aniztasunarekiko errespetuan eta beste arlo garrantzitsu batzuetan. Erakundeak asko estimatzen eta zaintzen du zerbitzu hori, eta inoiz ez da jaso alor horretako arazoekin lotutako kexarik. Langileak sentsibilizatuta eta informatuta daude, eta etengabeko prestakuntzako ikastaroetan parte hartzen dute. Hala ere, prestakuntza espezifiko bati buruz galdetuz gero, ez luke espezifikoki bat ere aipatuko.

Kexak izapidetzea Arartekoaren eginkizun nagusia den arren, Arartekoak ofizioz ere esku har dezake arazo bat gizarte-erakundearen edo komunikabidearen bidez identifikatzen badu. Kasu horietan, informazioa eska diezaieke administrazio publikoei, edo zuzenean jo dezake zerbitzu horretara. Administrazio publikoa behartuta dago eskatutako informazioa ematera. Arartekoaren gomendioek izaera juridiko loteslerik ez duten arren (epai judizial batek duen bezala, esaterako), haren informazio-eskaerei ez erantzuteak lege-ondorioak izan ditzake, baita penalak ere.

Elkarrizketako beste galdera bat izan da kexak jasotzean, zein uste duen dela oraindik lan handia beharko lukeen eremua ijitoen diskriminazioari aurre egiteko. Itziarren esanetan, ijitoen kolektiboak oraindik ere erakunde eta politika guztien arreta hobea behar du. Ikusitako zailtasun handia ez dago soilik lan-arloko politika publikoekin lotuta, baina hori

aipatzea garrantzitsua da. Bere esperientzia kontuan izanda, identifikatutako arazorik handiena etxebizitzarena dela dio, ijitoen kolektibo osoari eragiten baitio. Gainera, harreman-eta bizikidetzeta-gaiak daude, eta horiei buruzko kexak ere jasotzen dira. Etxebizitzaren inguruko egoerak konplexuak eta larriak dira interes asko gatazkan daudenean, eta arazo kezkarriak dira.

Erantzun horren harira, Itziarri aipatu zaizkio gaiari lotutako datu zenbait, eta, askotan, lana dela ikerketetan gailentzen den diskriminazio iturria, baina etxebizitzarena ere jarraian dagoela. Berak bere esperientziatik hitz egiten duela esan du, eta berak kexak izapidetzean, hori dela arazo gehien ematen dituenak; azken batean umeak, helduak zein zaharrak barnebiltzen dituen arazoa delako, eta umeak tartean dituen arazoak larriagoak bihurtzen dira beti.

Lanari dagokionez, Itziarrek adierazi du behin harritu egin zuela entzuteak ijitoak zirela langileenak. Informazio hori ezin izan du egiaztatu, baina interesgarria iruditzen zaio. Gai horri buruzko diagnostikoren bat egiteko interesa agertu du, ulermen sakonagoa lortzeko. Gaineratu du, beren ikuspegitik, ijitoak bizirik irauten saiatzen ari direla beti, oso aktibo jarraitzen dutela etengabe, eta hori nabarmentzeko moduko ezaugarria dela. Violetak, beste elkarrizketatuak, aipatutakoarekin harremana du horrek, Violetak aipatu baitu oso langileak direla ijitoak, eta beti ijito ez direnak baino pauso bat atzerago hasten direla beti helburu bera lortzeko; beraz, ahalegin handiagoa egin behar dutela. Itziarrek aurreko galderan sakonduta, jarraitu du esaten gizarteratzearen ikuspegitik, bizirauteko beharrak garrantzitsuak direla, baina beste eremu batzuetan ere arazoak daudela, hala nola hezkuntzan eta lanean. Atzerritarrek lan egiteko baimena behar badute ere, lana lortu ezin duten ijitoen ehunekoa handia da, eta, gainera, askok ez dute prestakuntza kualifikaturik. Oztopo asko dauzkate, eta unibertsitateko ikasketak lortzeko oztopo guztiak gainditzen dituztenak benetako heroiak dira.

Lana eta hezkuntza oso lotuta daude datozen belaunaldien etorkizuneko proiektzioaren ikuspegitik. Etxebizitzarik ez izateak bazterkeria dakar, eta lana eta prestazio ekonomikoak lortzea zailtzen du. Egoera horretan, askotan adingabeak daude tartean, eta

horrek beste konplexutasun-geruza bat gehitzen dio esku-hartze sozialari, bai udalen aldetik lehen mailako arretan, bai bigarren mailako arretan. Ikus genezakeenez, diskriminazio mota guztiak elkarri lotuta daude.

### **3.3.2. Inkesten barometroen galderak**

Itziarrek esan zuen gai zabal eta garrantzitsua dagoela jorrazeko ikerketa soziologikoen egokitasunarekin lotuta. Azterketa horiek, askotan, distortsioak izan ditzakete lagin jakin batzuekin lan egin behar dutelako. Ijito-populazioaren kasuan, ez da oso ugaria lagina, eta harreman zuzena izateko aukera gutxi dago, horrek ezagutza sakona lortzea zailtzen du.

Askotan, estereotipoen inguruko informazioa komunikabideetan hedatu eta erreplikatu ohi da, eta ikerketekin kontuz ibili behar dela iradokitzen du elkarrizketatuak; ikerketek mugak dituztelako.

Gainera, Itziarrek nabarmendu du ez dela erraza egiaztatzea azterketa soziologiko bat zuzena den ala ez, hori esparru akademikoko eskumena baita. Arartekoaren erakundean, soziologoek egindako diagnostikoetan eta azterlanetan oinarritzen dira, baina ez da haren eginkizun nagusia iritziak edo joerak ematea. Ikerketa-tresnak babestea planteatzen denean, erakundeak gai horietan duen eginkizunari buruzko barne-eztabaida sortzen da.

Itziarrek Ikuspegi behatokiak egindako *Neurtu 2022* ikerketa ere aipatu du, haren erabilgarritasunari buruzko zalantzak sortu dituen eta eztabaida bat irekitzen lagundu duena. Konpontzen erraza ez den arren, funtsezkoa iruditzen zaio ijitoek ikerketetan parte hartzea, joerak eta akatsak murrizteko, Nazio Batuen gomendioei jarraituz. Baina Itziarrek adierazi du gai konplexua dela eta ikuspegi askotatik landu behar dela. Ijitoek gaitzespen handia jasan dute, batez ere pandemian, eta tratu hobea merezi dute. Gomendio orokorrak badaude ere, horiek guztiak ijito-herriari aplikatu dakizkioke, bereziki zaugarritasun egoeran daudelako.

Elkarrizketatuak adierazi du ijitoen erakundeak oso aktiboak izan direla haien esparru juridikoa defendatzeko, eta ijito komunitatea babesteko araudiak bultzatu dituztela. Aitortu du asko dagoela egiteko prestakuntzari eta ikasketetan parte hartzeari dagokienez, eta diskriminazioa sakon errotuta dagoela gizartean, diziplina anitzeko eta elkarlaneko ikuspegia eskatzen baitu.

### **3.3.3. Diskriminazioari aurre egiteko proposamenak**

Itziarrek aipatu du justizia errestituatiboaren gaian sakontzen ari direla gaur egun eta justizia errestituatiboak eskaintzen dituen aukerak aztertzea ere proposatzen du. Bere ustez, oso interesgarria da horrelako tresnen garapena bultzatzea eta sustatzea, kontzientziario indibidualagoa sustatzen baitute; ez epaile edo kanpoko bitartekari batek emana, baizik eta talde edo pertsona bakoitzaren barne-lan baten ondorioa, bere ekintzen ardura hartzeko.

Oraindik ez dute horrelako prozesurik abiatu baina badute ijito talde batekin metodo horrekin hasteko proposamena. Baina proposamena onartu behar dute ijitoek, borondatezko metodoa baita. Gainera, metodoak konfiantzazko harremanak sortzea du ardatz; ez da bitartekaritza soil batera mugatzen, aldez aurreko lana eta konprometitutako pertsonen parte-hartzea eskatzen ditu. Itziarren ustez, justizia errestituatiboa da diskriminazioari eta horrek eragiten dituen efektu negatiboari aurre egiteko aukera eraginkorrena. Justizia errestituatiboak arazoa hainbat perspektibatatik hartzen du, eta ijitoen diskriminazioaren gaia hain da korapilatsua eta hainbeste erpin dituen, ezen beharrezkoa dela alor desberdinetatik lantzea. Aipatu du, bestetik, justizia errestituatiboak denbora behar duela eta hori dela instituzio publikoek ez daukatena. Askotan beste neurri batzuk erabiltzen dira diskriminazioaren alorreko gaiei aurre egiteko, beharbada momentuan eraginkorrak izan litezke, baina etorkizunera begira ez dituzte gauzak aldatzen. Gaur egun, askotan erabiltzen da inteligentzia artifiziala eta horretara bideratzen ari da gizartea, baina badaude gai batzuk ezin direnak horrela konpondu.

Justizia errestituatiboa desafiatzailea izan daiteke administrazio publikoentzat, nahiago izaten baitute konponbide azkar eta eraginkorrak, adimen artifizialak eskaintzen dituenak, esaterako; baina eremu horretan, ijitoen diskriminazioari aurre egiteko eginkizunean, ez du lekurik edo ez du eraginik momentuz. Justizia errestituatiboak denbora eta ahalegina eskatzen ditu, eta hori, askotan, urria da. Itziar ziur dago ijitoek bizilagunekin eta espazioak partekatzen dituzten beste pertsona batzuekin hitz egiteko, azaltzeko eta komentatzeko aukera izango balute, aldaketa esanguratsuak gertatuko liratekeela. Komunikazio- eta ulermen-prozesu horrek, denbora eskatzen badu ere, transformatzailea izango litzateke, zalantzarik gabe.

Itziarrek aipatzen du elkarrizketako momentu batean ijito-biztanleriak esku-hartze sozialekiko duen mesfidantza eta beldurra; agian, eskatutako kalitatea ez zutelako jaso, edo aurreiritzien eta aurreko esku-hartzeen ondorioz. Funtsezkoa da ijito-familia nolakoa den eta nola bizi diren ulertzea esku-hartze egokiak diseinatzeko. Bazterkeria-egoera larrian dauden ijito-familietan, beti daude haurrak tartean, eta horrek premiazko egiten du egoera horiek kudeatzeko prestakuntza espezializatua behar izatea. Beraz, esan daiteke formazio espezializatuak ematea izango litzatekeela beste proposamen bat ijitoekin esku-hartzeak garatzeko, mesfidantzari aurre egiteko. Kolektiboarentzako esku-hartzeak hasteko eta estrategia espezifikoak diseinatzeko baremo egokiak erabili behar dira.

Horretaz gain, Itziarrek azaldu du Arartekoak, diskriminazioari modu eraginkorragoan aurre egiteko, berdintasunerako erakunde bat sortzeko eskatu duela edo erakundearen antolaketa bidean dagoela. Sortu nahi duten erakunde berriak independentea izan beharko luke, eta hura eratzeko araudi egokiaren babesak izan beharko luke. Berariazko lege bat behar da Euskadin, neurri horiek tokiko testuingurura egokituta egon beharko lukete, Katalunian egin denaren antzekoa.

Azkenik, diskriminazioari aurre egiteko, babes-politika publikoen eta arau-hausteen eta xedapenen araubidearen garrantzia azpimarratu du Itziarrek. Arartekoaren bulegotik udaletan garatzen ari diren politikei buruz galdetu zaienean, ondorioztatu ahal izan da aniztasunaren ikuspegitik landu direla politikak, eskubideetatik baino gehiago. Horrek

adierazten du berdintasunerako eta diskriminazioa ezerezteko eskubidean zentratu beharra dagoela, eta administrazio publikoei eta gizarte osoari eragiten diela.

## 4. Ondorioak

Argi geratu da, lan osoan zehar, ijitoak egoera zaugarrian bizi direla eta diskriminazioa pairatzen dutela. Diskriminazioa hezkuntzan, lan eremuan zein etxebizitzaren inguruko alorretan ematen dela aztertu da lanean; gainera, ikusi dugu diskriminazio mota horiek haien artean ere, elkar elikatu egiten direla.

Horretaz gain, lan honen bitartez diskriminazioan estereotipoak duten eragina ikertu da, nahiz eta diskriminazioan hainbat faktorek eragiten duten, argi ikertu da estereotipoek ere badutela espazioa diskriminazioari dagokionez.

Nahiz eta errealitatearekin lotura zuzenik ez izan estereotipoek, eta ez duten oinarririk, ondorioztatu daiteke historiak eragin handia izan duela gaur egun ijitoek pairatzen dituzten estereotipoetan. Historikoki jazartuak eta segregatuak izanak gaur egungo estereotipoak dakartza hein handi batean.

Era berean, ikusi ahal izan dugu ijitoenganako estereotipo ugari egon badagoela, eta egiaztatu ahal izan da ez daudela datu errealetan oinarrituta. Estereotipoak konstruktua soziala dira, ez dute inongo oinarri zientifikorik, eta ez dago errealitatean oinarrituta daudela baieztatzen duen ikerketarik. Gizartean errotuta dauden kontzeptuak edo ideiak baino ez dira estereotipoak. Baina horiek denak jakinagatik ere, frogatuta gelditu da eragin handia dutela ijitoen bizitzako alor guztietan.

Horrez gain, jasotako beste ondorioetako bat hau litzateke: gizarteari erakutsiko balitzaio estereotipoak induzitutako edo eragindako ideiak direla, berez desegin egingo liriatekeela. Horretarako, ordea, ikerketa arloa indartzeaz gain, gogoeta eta kritika sakonak egin beharko liriateke estereotipoen inguruan.

Elkarrizketetatik ondorioztatu daiteke ijitoen estereotipoen gaia oso eremu konplexua dela eta hainat ikuspegitik aztertu behar dela bertan esku-hartzeak proposatzeko. Horretaz gain, argi dago elkarrizketetan jasotako esperientzietatik, egunero jasaten dituztela diskriminazioak bizitzaren edozein eremutan.



Gainera, lanaren alorra gai oso konplexua dela ondorioztatu daiteke; izan ere, eremu horretan jasotako diskriminazioek beste hainbat eremutan eragiten dute aldi berean; lana baita gizartean dugun eremu garrantzitsuenetariko bat, eta horrek eragin nabaria du baliabide ekonomikoetan, pobrezian, prekarietatean...

